

anaitasuna

419. alea

APIRILA

100 PEZETA

DOSSIERRA iparraldeaz



hainbat aburu

EVA
SERRAekin
hizketan

Adio Kattalina

OSKORRIK
bere diskoa
aurkezten digu



IHESKARIA

Presidente jauna, gutun bal idatzen dizut, denborarik badaukazu irakurriko duzuna. Nere paper militarrek oraintze iritsi zaizkit, gerlara abiatzeko asteazkenaren arratsalde baino lehenago.

Presidente jauna, ez dut joan nahi, ez nago mundu honetan jende pobreak hiltzeko. Ez diot hau zu hasarretzeko baina nere erabakia hartuta daukadala esango dizut: ihes egitera noa.

Jaio nintzenetik, nere aitaren heriotza ikusi dut, anaiak abiatu eta semeak negar egin ere. Nere ama, jasan behar izan duenagalik, hilobian dago, zizarrez eta bondez barre egi-

nik. Preso egon mintzenean emaztea lapurtu zidaten, nere arima eta nere iraganaldi maile guztia. Bihar goizaldean nere atea itxiko diet urte hilei eta bideetatik abiatuko naiz.

Eskean ibiliko naiz Frantziaren bideetatik, Bretainatik Probenzaraino, eta jendeei esango diet: «Ez obeditu!, Ez egin!, Ez joan gerlara!, Ez zaitezte abiatu!».

Odola eman behar baldin bada, eman ezazu zurea Presidente jauna, apostolu ona bailzera!

Xerkatzen banauzue ohartu zure txakurrak, armanik ez daramadala eta tiro egin ahal izango dutela.

Boros Vian

AURKIBIDEA

Hileko dokumentua:
Arrantza Euskal Herrian
(II). Arrantza motak.



EVA SERRArekin hizketan. Katalunyatik datorkizu elkarrizketa hau, Euskal Herriko abertzalekeria salatuz: "Nik abokatu abertzaleen tarjetak gaztelaniaz idatzirik ikusi ditut".

Elkarrikuska

BALENDIN ENBEITArekin egindako elkarrizketaren II. zatia. Bertsolaritzaren mundua azaltzen digu Balendinek.



2.or.: **Iheskaria:** Gutun Irekia Mitterrand Lehendakariari.

3.or.: **Aurkibidea.**

4.or.: **Liburuak:** Fernando Gabeira-ren "A por otra Compañero!", Gene Yurre-ren "Gimnasia, Dantza. Ritmo. Abestia. GIDARIA", Federico Krutwig-en Belatzen Baratzeko bigarren tomoa eta Gregorio Moran-en "Los españoles que dejaron de serlo".

5.or.: **Hileko Dokumentua:** Arrantza Euskal Herrian (II). Orain dela zertxobait argitara eman genuen Euskal Arrantzari buruzko artikulu luze xamar bat, oraingo hau haren jarraipena duzue. Ordukoan gaia zera zen: Arrantzaleen mundura hurbilketa antzeko zerbait. Orain, oster, arrantza mota ezberdinak azaltzen du artikuluak.

Nazioartekoa

9.or.: **OUA**ren krisia.
10.or.: **EVA SERRA**rekin hizketan: "Nik abokatu abertzaleen tarjetak gaztelaniaz idatzirik ditut irakurri".

Elkarrikuska

14.or.: **Balendin Enbeita** (II). Aurreko alean Muxikako bertsolariarekin hasitako elkarrizketari ematen zaio oraingo honetan bukaera.

Dossierra

19.or.: Ipar Euskal Herriaz hainbat aburu. SEASKA, Gau Eskolak, L. Etezaharreta, Deustuko Euskal Kultur Mintegia, J.L. Davant, Jokin Apalategi.

31.or.: **Ekonomia:** Ekonomia eta Abertzaletasuna.

32.or.: **Komikia:** Erramun Landaren komikia.

33.or.: **Bertso Paperak:** Euskadi Erreala eta Zuen Grina agindu bakarrik?

34.or.: **Gramatika:** Bizkai-era ere batua da (1). Jose Ramon Etxebarria ari zaigu sail honetatik bizkaitarrok baturantzako bidea zein dukegun azaltzen.

36.or.: **Musika Kritika:** Oskorrik bere diskoa aurkezten digu: Adio Kattalina. Donostiako XVII. janzaldia. **MUSKARIA**koekin hizketan. Kasete berriak: Lasarte, Miren eta Bingen.

40.or.: **Ekologia:** ANAITASUNAKo txoko hau zabaldu nahi genizuke gai honetaz kezkatuik zaudetenei.

Gaiak

41.or.: Azentuz jo eta ke.
42.or.: Protoien energiarren kontra potroen indarra. (IV).

44.or.: Polizientzako euskara.

45.or.: Zuloak, miloiak eta banderak.

46.or.: Euskal Lokuzioak direla eta, mintza ahalmenaz gogoeta batzu.


47.or.: Gurutzegramak.

DOSSIERRA

Iper aldera jo dugu oraingoan eta bertakoei eskeini hitza: **Iparraldeaz hainbat aburu.**



OSKORRI taldeak bere **ADIO KATALINA** disko berria aurkezten digu. Oskorrik du hitza.



ANAITASUNA

Erredakzio Kontseilua

I. Antiguadad
J.I. Basterretxea
J.R. Bilbao
J.R. Egiluz
J.R. Etxebarria
J.M. Pastor
I. Saez

Idazle eta Lankideak

Esteban Agirre, Paulo Agirrebaltzategi, Iñaki Alvarez, J.L. Davant, Harotza, Miren Izagirre, Julen Kalzada, Karmelo Landa, Jesus Maria Larrea, Xabier Portugal, Karlos Santiesteban, Bittor Uruga, Xabier Zorrotza,

ANAITASUNA

Zabalbide, 68
Tel. 411 66 20
BILBO

† **Federico Krutwig Sagredo. «Igibarziaren iphainak».** Haranburu argitaraldaria. 133 orrialde. 600 pezeta. Belatzen baratza saila.

Haranburu editoreak argitaratu berria duen liburu honetan, Federico Krutwig izpiritu erromantikoa sartzen saiatzen da alde batetik, eta Gaztelaniaren kulturaren kolonialismoak ezarritako hesietatik askatzen, beste batetik. Honetarako Europako kultura errepresentatiboetara jotzen du, haien iturburuaz baliatuz, gure kultura goimailara eramateko.

IGIBARZIAREN IPHAINAK



FEDERICO KRUTWIG SAGREDO

BELATZEN BARATZA SAILA

Ipuiak —idazlek berak dioenez— historia magikoaren ipuin batzuen eta narrazio errealeko batzuen bilduma dira. Ipuinetan Igibarzi izeneko «radar»ek «Xehreâderen» ekintza betetzen du.

Bestalde, maila linguistiko batetan, liburuan egiten diren proposamenak eztabaidagarriak direla ikus daiteke.

† **Gregorio Moran. Los españoles que dejaron de serlo.** Planeta. 413 orrialde. 300 pezeta.



Ondorengo hiru premisotan oinarriturik: Euskadi ta Askatasuna (ETA), Euzko Alderdi Jeltzaila (PNV) eta Neguriko gizarteaz arduraturik, autoreak Euskal Herriak ezagutu dituen azken berrogei urteen azterketa egiten du.

Ikerketaren ondorioz bi ideia agertzen dira, aski ezberdinak biak. Alde batetik, nahiko on izango da Espainiako Estatuan ari diren zenbait pertsonaia haien asmoak, gure herriari buruzkoa noski, argixeago geldidatezen eta ezagutzen ez duten egoera sozio-politiko hau hurbilagotik ikus dezaten.

Baina, beste alde batetik, bere partzialkeria dela medio zenbait jende alde zein aurka geldituko liburuak irakurri ondoren, dena dela, nahiko arrut den zerbait da baikoitzak bere ondorioak ateratzea.

† **Gene Yurre. «Gidaria Gimnasia. Dantza-Ritmo-Abestia».** Elkar argitaraldaria. 194 orrialde, 300 pezeta.

Egileak berak aitortzen digunez, liburuak eskola urteetan, eta herri abestien bitartez, dantza eta kantua ikasteko gida liburu da. Ezen gimnasia ariketak eritimo neurriekin nahastean bait dira, honela haurra musika eta dantzara hurbilduz.

Gure gorputza bera baldin bada lehen adierazpen tresna, oinarritzkoa da ezagupenaren garraitziaz arduratzen da. Neurrian eta posibilitate guztien jabe izango gara prozesoa bukatu ondoren.

† **Fernando Gabeira. «A por otra compañero».** Anagrama. 480 pezeta. 204 orrialde.

Autoreak, Brasileko diktadurapean bizirik esperientzia militante eta gerrilera kontatzen digu liburu honetan. Liburu hau oso da interesgarria, baina azter dezagun ea zer ematen digun:

1-Oso aberasgarri datekeen era konkretu batez aipatzen digulako berak ezagututakoak (E.B.etako kontsularen behitzea eta abar).

2-1964-1970 bitarteko urteen azalpen aberasgarria egiten duelako (pentsa beza irakurleak egoera sano aldatu dela ordutik hona).

3-Ez da deskribapen huts bat, autoreak berak bizi duen egoera kontatzen baitu.

2. KALEAN! OINARRIZKO EUSKARAZKO ALDIZKARIA

aizu!

comandante velarde 2. bilbo. BIZKAILA.

HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!!!


IZEN ABIZENAK	ORDAINTZEKO ERA
HELBIDEA	<input type="checkbox"/> JIRO POSTALA
HERRIA	<input type="checkbox"/> TXEKE BIDEZ
ZEIN MAILA?: ZENBAT ORDU IKASI DUZU?	<input type="checkbox"/> BANKU BIDEZ
<input type="checkbox"/> 180 ordu (1. MAILA)	BANKUA/AURREZKI KUTXA
<input type="checkbox"/> 350 ordu (2. MAILA)	SUKURTSALA
<input type="checkbox"/> 500 edo gehiago (3. MAILA)	KONTUA/LIBRETA: ZENBAKIA
ALE BATEN PREZIOA: 100 pzt.	A NOMBRE DE
URTE OSOKO HARPIDETZA:	IZENPEA/Firma
1.000 pzt. HEGO EUSKAL HERRIA / ESPAÑA	
1.500 pzt. IPARRALDE / EUROPA	

Arrantza Euskal Herrian (II)

Gure arrantzaleek dituzten problema orokorrei begidara bat botatzerakoan, hiri iturburuko ibaia zela esan genuen, bakoitza aztertuz. Gogoan izan ditzazuen, berriro aipatuko ditugu iturburuok: 1.- Erregaiaren (gasolioaren) garestitzea, 2.- Gure uretan harrapatzen diren hainbat arrain-moeten salmentarik eza, 3.- Gure untziek lan egiten duten uretako nazioen jabegoa 200 milla-lara hedatzea.

Arrantza-moetak sailkatuz amaitzen genuen, untzi-moeten arauera honela egiten genuelarik:

- 1.- Ur-handitakoak edo arrasteruak
- 2.- Itsas-bazterrekoak edo bajurakoak
- 3.- Atuntzale izozkailuak
- 4.- Makailozaleak
- 5.- Lebazaleak.



Orain dela ale bi (417.ean) hileko dokumentu bezala Euskal Arrantzari zegokion artikulua bat argitaratu genuen jarraipena emateko asmotan, eta hona hemen bigarren partea. Seguruenetik gehiago ere izango dira irakurleek merezi duela uste badute.

Aipatutako artikulua horretan, gure sail honekin oinarrizko datu batzu nahi genuela eman esan genuen, oinarrizko informazioa helburu sasi-didaktiko/sasipedagogiko batekin eta ideia berean jarraitzen dugu.

IPARRALDEA

Gaurko honetan lehenengo sailaren azterketa egingo dugu, baina horren aurretik Iparraldeari dagokion aipamena egin nahi dugu. Egoera desberdina delako eta datuak ere horrela datoze-lako sailkatuta, Ipar eta Hego Euskal Herriaren artean dagoen muga errespetatu beharrean aurkitzen gara. Laukian agertzen den moduan, ez dira 800-era heltzen guztira hango arrantzaleak, adinez ere nahiko helduak izanik.

Garrantzitsuenak, duda barik, atuntzaleak dira, 28 denetara, urtea Dakaren (Afrikan) ematen dutenak 10.000 tonelada arrain harrapatuz. Haietan ari diren gizonen kopurua urria da, ehun, eta teknikoak gehienak, zeren tostarko (itsasgizon arruntak, maila berezitu gabekoak) guztiak Afrikako arrantzale beltzak izaten bait dira.

Itsas-bazterreko arrantzan (bokarta, lebatza eta bisigua) gatazkak izaten dute hegoaldekoekin Merkatu Batuko lizentziak direla-ta. «Ba dirudi, Bruse-la, Parise edo Madrilgo gizonen gain uzteko orde beren auzia, euskal itsasgizonen beren artean hobeki zutela hitzartzea, lehen egiten ohi zuten bezala. Ba ditugu zorigaitzez oztopo eta trabak ez bakarrik ekonomikoak, baina oroz gainetik politikoak eta psikologikoak.

Zenbaki bakar batzuk adierazten digute zertan dugun Iparraldeko arrantzaren egoera. Horrek erran nahi du «zaharrak» nagusi direla Iparraldean eta bereziki Donibanen. Nahiz zahar hoietarik 6/10 Hegoaldeko seme diren, edo menturaz horrengatik, guztiz kontserbakorrak ditugu» diosku Jose Basurko-k JAKIN-en.

Amaitzeko, JAKIN-eko beste aipamen bat egingo dugu, kontserbaindustriari dagokiona:

«1972an 1400 langile ba zebiltzen lantegi hauetan eta 21.000 tona

arrain hartzen zituzten. Bost urteren buruan 1.000 langile dira bakarrik eta 17.000 tona arrain darabiltzate. Gehiago aitortu behar da; Donibandarrek Afrikatik bidaltzen duten atunaz bestalde, Donibaneko kontsebategietan sartzen den antxoia, sardina edo beste arrain gehiena urrunetik datorrela, Algeriarik edo Italiatik, non ez den kontrabandatik».

1.- UR-HANDITAKO-AK

Iparraldeari azal-azaleko begirada hau eginda gero, goazen beste atal honekin, gaztelera arrastreros edo pesca de altura bezala ezagurua denarekin.

TEKNIKA

Arrantzarako erabiltzen duten teknika, laburtuz, hauxe da: zaku tankerako sarea hondora bota eta dandarrez (arrastaka) eroan untzi bat, bi edo hiruren artean, barrura sartzen diren arrain guztiak hartuz. Freskotan jateko saltzen da harrapaturiko dena, kontsebategietara ezer ere bidaltzen ez dutelarik. Gehienbat, lebatza da harrapatzen duten moeta, nahiz eta honegaz beste hainbat ere etortzen diren takartak, liriokak, itsazapoak, zentolloak etab.

ARAZOAK

Errekinaren prezio-igoeraren eragina txikia ez izanik, arazo latzenak 200 mililatetik datozkio. Arrantzeko tekina



dela-ta, ezin dute lanik egin ur sakonegietan (200 metrotakoetan gehienez) eta orduan, gaur Merkatu Batuarenak diren uratarantz abiatu beharra dute. Orain dela 5 urtera arte, M.B.-aren ur-jabegoa zabaldu arte, askatasun osoz egiten zuten lan, baina orian urtero egon behar dira Europako arrantza-planei begira, lizentzien zain, eta hauen kopuruaren arauera urtean 4-5 hilabete baizik ezin dira jardun...

Azken urteotan, (estatistiketan ikus daitekenez) harrapaketak ez badira lizentzien kopuruaren parean urritu, bategatik, kala (arrantzan egiteko tokia) berri bat aurkit dutelako izan da, Rock-All, Irlanda eta Eskozia artean baina 200 mila madarikatuetatik kanpo, eta bestetik, pirata moduan ibiltzen direlako ur-debekatuetan, multak jasoteko arriskuan. Beraz, argi ikusten da arlo honen etorkizun osoa Europako

M.B.-arekin egiten eta egingo diren itunetan oinarritzen dela.

Amadoreen eritzian, Espainiako Estatuak ez zuen egin gogor 1977an Londresen Ituna izenpetzean eta arrantzaren interesak baztetu egin zituen beste batzu defendatzeagatik, honela ba, bidezkoa ikusten dute gaur arloaren azinbesteko berregiturapena egiterakoan sortzen diren gastuei berak eman diezaiela aurpegi eskatzea. Berregiturapen hori untizen kopurua gutxitzetik pasatzen da, noski, eta ezin da itxaropen handirik izan Espainia M.B.-ra sartzeaz gauza argituko denari buruz, zeren kasurik onenean ere, emango lituzketan lizentziak ez liratekeelako izango 1978. eneko Iturean emanakoak baino gehiago, 240, kantauri itsasertzen ur-handitako 415 untzi egonik. Kontutan izan behar da arrantza arloan Espainia oso bazkide indarsua dela eta beste nazioek heuren interesak defendatuko dituztela. Datu bat hau argitzeko: Ondarroak berak bakarrik, Irlanda osoaren beste arainuntzi ditu.

Nolanahi ere, negoziaketetan behar den moduan landu ez den atal bat dago oraindino: inportazio/exportazioak. Indar gehiago egin baharra dago hemen, arrain-eragiketek gero eta M.B.-aren aldekoagoak bait dira: guri harrapatzen uzten ez digutena, haiek harrapatzen dute, baina, geuri saltzeko. Adibide batzu hau argitzeko: 1976an esaterako, M.B.ko inportazioak 3.686 milloi pezetatakoak izan ziren, exportazioak 2.887-koak (779 milloi M.B.-aren alde); lau urte geroago, 1980an, inportazioak 11.208 milloitarra igon ziren bitartean exporta-



LEHORRERATU ETA ZATIKATU: AGINDUTAKO SUIZIDIOA

zioak 4.448-ra baino ez, hau da, 6.780 milloi M.B.-aren alde. Honetan argi dago Frantziaren jokoak: España M.B.-ra sartu orduko, arrainuntzien flota desegin, eta gero gerokoak, honela, konpetentzia egin liezaiokeen potentzia hau deuseztuz (zoritzarrez, España, kasu honetan, euskaldunak gara ia ia soilik). Frantziaren interes ekonomiko bereziak erraz ikus daitezke: 78-79 urteetan M.B.-tik egindako inportazioak % 18 gehitu ziren toneladatan, eta % 61 dirutan: aldi berean, Frantziatik egindakoak % 62 gehitu ziren toneladatan eta % 185 dirutan.

Baina, Españaiko Estatuak zergatik ez du egiten indar gehiago negoziaketa hauetan? ba, beste arlo batzu zaintzeagatik, fruta eta ortuariena esaterako, honen ondorioa argia izanik: untzien kopurua gutxitu beharra. Kantauri itsasertzean ehun untzik desagertu beharko dute eta problema da nola egin. Armadaoreen ustean, Estatuak dirulaguntzak sortu behar ditu hau gertatzerakoan, parte handi batean bera delako egoeraren erruduna. Desguazeak sarituz, untziak desegite-ra bultzatu behar ditu armadoreak, ehun horik kenduz geratzen direnak erosoago egin dezaten lan. Bestalde, lan barik geratzen direnentzat ere zerbait ipini behar du, bai arrantzaleentzat eta bai herrikoentzat, azken hauek arrantzaleen beste dira-ta.

IRTENBIDEAK

Egoera hau izanik, gure portu garrantzitsuen biek, bide desberdinetarantz jo dute. Pasaiak, Ingalaterra-gaz batera enpresa bikoitzak egiterako bidea hartu du: guk, untziak eta gizonak ipintzen ditugu, heuren, naziotasuna, honela gure untziak «europarrak» bihurtuz eta lizentziaren problemari ihes eginaz. Ez da negozio makala ingelesentzat, baina pasaitarrak lan egin nahi badute zerbait egin behar. Hau dela-ta, David Harris diputatu ingelesak, salaketa bat egin zuen Europako

Parlamentuan joan den otsailean, untzi hoiak ingelesena den eskubidea erabiltzen dutela esanez. Bere hitzetan, Españaiko Armada berri hau tranpaz sartu da heuren lan-esparruan, eta legetan ez bada horrelakorik zigortzen, legeok gogortu egin behar dira. Ez dakigu zertan geratuko den salaketa hau, baina gaurkoz behintzat ez da ezer jaso. Gutxienez, Pasaiko 20 untzi joan dira baldintza hauetan.

Ondarrutarrak ere Pasaitarren antzera, lau edo bost untzi bakoitzarentzat lizentzia bakar bat dutelarik, untzien arrantza moeta aldatzea erabaki dute, lehen hondoko arrastekoak izandakoak pintxo erara bihurtuz. Honela, lizentzia bakoitzarekin denbora gehiago egin lezakete arrantzan (hiru aldiz gehiago), gasolio gastuak urriagoak dira, saretan eta tresneritan gastatzen dutena ere gutxiago da eta harrapatu-riko arraina kalitate hobean dator (1).



URRUNERA BEGIRATUARREN ETORKIZUNIK EZ



HANDIAK NAHIZ TXIKIAK, DENAK TXARTO.

Orain bai, aldaketa honek eragozpenak ere ba ditu, diru-inbertsio berriak egin behar direlako, eta arrain gutxiago harrapatzen delako, era hau artisautzatik hurre dago-ta. Beste hiru-lau untzi Canarias-etako uretarantz joan dira, Mauritania-koekaz batera ibiltzeko asmotan, eta bost edo zeiz pasaitarren bide berbera harku ingeleskaz elkartu dira.

ETORKIZUNA

Ikusten denetik, arlo honen etorkizuna ez da bat ere garbi agertzen, berregiturapena hainbat arinen egitea beharrezkoa izanik, egoera berrira egokitzeko. Txarrena da, egoera zein den jakitea ez dela hain erraza, ez bait daki inork zein izango den Merkatu Batua-ren jokaera zehatza: lizentziak urritzen joango dela bai, baina zein neurritan ez

- (1) Puntu honetan azalpen bat egitea komeni dela uste dugu. Askotaz hobe izaten de jaterakoan amuko (anzueloko) lebatza arrastakoa baino, eta hau izoztua (konjelatua) baino. Prezioan ere alde ikaragarria izaten dute, baina desberdintasunaren arrazoia ondo ezagutzen ez delakoan gaude.

Amukoa eta arrastakoaren arteko aldea, arraina hiltzeko moduan datza« lehengoan, amua ahotik josita duela alaten (jasoten) du arrantzaleak lebatza, 100-150

metrotako kondotik gutxi gora arrantzaleak lebatza, 100-150 metrotako hondotik gutxi gora-behera, azalera agertzen denerako itota egonik; bigarrenean, bate-re alaten dira arrain denak, zaku antzeko aipatutako sarrian, eta bata bestaerearen kontra zapalduta hiltzen dira, erdi lehertuta. Arrastakoa eta izoztua teknika berdinak harrapatzen dira, eta, izozteak (jelatzeak) zaporean eraginik duen ala ezaren arazoa a'ide batean utzita, arrainmoetak desberdinak dira nahiz eta bestea Afrika-ko ur epeletakoa bait da.

IPARRALDEKO ARRAINUNTZI-FLOTA

	untziak	gizonak
Atuntzale izozkailuak	28	100
Sardina eta atuntzaleak	18	270
Motor-txikiak	19	114
Lebazaleak	27	81
Ur-handitakoak	33	209
GUZTIRA	125	774

IPARRALDEKO ARRANTZALEEN ADINA/KOPURUA

	kopurua	%
50 urtetatik gora	270	35
40-50 urte	244	32
30-40 urte	167	22
30 urtetatik behera ..	93	11
GUZTIRA	774	100

UR-HANDITAKOEN FLOTA HEGOALDEA 1980an

portuak	arrantzak			
	untziak	gizonak	toneladatan	milloi pztatan
Pasaia	138	1.770	18.990	3.240
Ondarroa	74	1.230	18.100	3.070
Bilbo	6	80	539	153
GUZTIRA	218	3.080	37.529	6.463

MERKATU BATUAREKIN EGINDAKO ITUNAK: LIZENTZIAK/TONELADAK

urteak	arrantzak			
	lizentziak	lebatza	kideak	guztira
1977	266	14.600	29.200	43.800
1978	240	13.848	27.696	41.544
1979	240	15.500	31.000	46.500
1980	168	11.870	23.740	35.610
1981	142	10.500	21.000	31.500
1982	130	8.500	17.000	25.500

UR-HANDITAKOEN BILAKAERA

	1975	1976	1977	1978	1979	1980
Untzien kopurua	308	251	216	216	216	218
Gizonak	4.800	4.010	3.332	3.268	3.070	3.080
Arraina toneladatan	75.800	60.500	50.495	46.786	42.994	37.529
Prezioa	120	129	153	168	186	202
Balioa	7.650	6.350	6.365	6.541	6.691	6.463

TRIPULAZIO- AK

Arrantza-moetak berdinak ez diren neurrian arrantzaleekin ere berbera gertatzen da. Moeta batzutan, eginbeharrak, errazagoak dira ikasterakoan; beste batzutan ia artesautza izanik, gutxi-gutxika joan behar. Arrastaren teknika nahiko landua eta mekanizatu denez gero, ez da gatx gertatzen beste arlo batzutatik datozen langileentzat eta horregatik agian, tostarkoen artean asko eta asko etorkinak dira, lehorrekoak sarritan (andaluzak, extremeñoak, galegoak etab.) teknikoak euskaldunak diren artean gehienbat.

Lan-baldintzak oso gogorrak dira, egunean ordu asko sartuz, igande ez jai-egun gabe.

Alogeraren arazoan aldakuntza sakonak egon dira. Orain 20 urte, marieja (mareajea) zen nagusi, armadoreentzat oso baldintza onetan: untziaren gastu guztiak baltzotik (sarrera gordinetatik/ingreso bruto) ordaindu ondoren irabazi garbietatik % 80-a armadoreentzat eta % 20-a arrantza-leentzat, inolako soldata fijorik gabe, harrapatzen zenaren arauera. Teknikoek (sota-patroia, arrantza-patroia eta makinistak aparteko ordainketa zuten, armadorek ordaintzen zietelarik, baina beste guztiak berdin, 10 urte nahiz astebete eroan lanean, Asko harrapatzen zenean asko, hala ez zenean, agoantatu. Orain dela urte batzu arrantzaleek soldata fijoa izatea lortu zuten, (nahiz eta arrantzen denaren parte bat ere izan) alogerari zihurtasuna emanda. Bost urte dira soldata horri geldirik daudela arloaren egoera larria dela-ta (erosmen-ahalmena %50-ean urritu zaie langileei) eta hori izan da aurten Ondarroan izandako huelga gogorraren funtsezko arrazoia.

Hurrengo batean segituko dugu beste arloekin, denak batera agertzea arrain askotxo litzatekeelako jatordu bakar baterako, bestela ANAL-TASUNA arrain-usainez kutsaturik geratuko litzateke bertirako.

EDDY

OUA-ren krisia



Afrikako batasunerako erakundea apurtzeaz dago? Beldur hori senti daiteke azken berriak jakin ondoren.

Luzea izan da erakunde honen bidea; hasieran guztiz indargabe izan zen, eta taldeetako banaketaren eraginez ez zen posible ia ezer egin; aurrerazale eta moderatuen artean ez zegoen elkar ulertzerik, eta hola ezin zen inolako erabakirik hartu.

Apurka apurka egin da batasuna, eta azken urteko ekintzak ikusita, OUA-k garrantzia eduki dezakeela pentsa daiteke.

Bi izan dira aurten tratatu diren bi gai aipagarrienak: Tchad-ekoa eta R.A.S.D., Errepublika arabiar saharaui demokratikokoa alegia.

Tchad-eko kasua

Herri honen egoera guztiz kritikoa izan da azken urteetan: tendentzien artean zati-turik, gerran geratu gabe, gobernu finkorik gabe. Orokorrean, Hissene Habré jaunak, defentsarako ministro-ohiak, Iparraldea dominatzen duelarik; eta Hegoaldea, N'D-jamena hiriburua barruan dagoelarik, Goukouni Oueddei— lehendakariaren eskutian.

Egoera zeharo korapilatzeako, Khadafiren soldatuak agertu ziren Iparraldean, Habré jaunaren deiaz.

Konponbiderik ikusten ez zenean, eta interesatuek bakarrik ezin izango zutela ezer egin ikusirik, OUA-k lehendakaria lagundu behar zela erabaki zuen; hala ere ez zirudien argiegi zer gertatuko zen iparraldean, eta hola, Libiatarrak, OUA-ko erabakiei jarraiki, joan zirenean, berehala bete zuten hutsunea Habré-ren gizonak, eta segituan hegoalderanzko gatazka hasi ere.

Azken hilearen egoera lehengoa bezain argi ez dagoelarik, proposamen berria egin du OUA-k, interesatu guztiek beraien artean eztabaida dezaten nola irten oraingo egoeratik.

Agian ez du askotarako balioko OUA-ren laguntza, baina edonola ere, norbaitek zerbait proposatu ahal badu, bera da, eta besterik ez.

Saharaiuen arazoa

Zaharrak dira ere basamortuko herri honen arazoak; eta honetaz zerbait jakin behar dugu Estatu Espainolekoek. Guda luzea eraman du Polisarioak Marokkoko armadaren aurka, burruka luzea, gogorra eta ez denon gustukoa.

Interes handiak dabiltza tartean: fosfatoak, bai, baina baita ere, Algeria eta Ma-

rokko artean dauden arazoak, Marokkoko jendearen burua betetzeko «Gibraltar»a, etab.

Eztabaida bukaezinak egin daitezke saharaiuen kopuruaz, heuren arteko askoren jatorriaz, eta kanpotik hartzen dituzten laguntzetaz, baina dudarik ematen ez duena zera da, Marokkotarrak ez direla sentitzen, eta ez dutela batere erresuma horretan sartu nahi; eta hau dena beraiek Marokkorekiko daukaten aurrerazaletasuna alde batetara utzirik.

Marokkori asko kostatzen zaio burruka amaigabe hori, baina ondo etortzen zaio ere hori han edukitzea, Herriak hortaz pentsatzen duen bitartean, beste ezertaz pentsatuko ez baitu; eta guda horren alde daude ia talde politikotarik guztiak, eskuina eta ezkerrean (sozialistak eta komunistak (PPD)), eta bakarrik aurki daiteke ezker muturreko talde bat, autodeterminazioaren alde agertzen dena.

Beno, ba azken udako Nairobiko batzarretik zabaltasun handiko berria heldu zen gure komunikabideetara: OUA-n soluzio bat proposatu zen, Marokkoko erregeak bultzatua.

Elkarrizketa proposatzen zen, eta bai erreferenduma ere; baina elkarrizketa nortzuren artean? Polisario eta Marokko artean? Ez...! Alger eta Rabat-en artean, horik baitira, gobernu marokkotararentzat guda honen benetako burrukalaria.

Ez zuen edonork argiegi izan behar bide horrek inora ez zuela eramango ikusteko. Zenbaiti, halere, kontzientzia lasaitu bide zitzaion, proposamenaren aurrean Polisarioak erakutsi duen «gogorkerian» oinarriturik; proposamena hor geratu da, ez aurrera, ez atzera egin gabe.

OUA-ko zenbait partaide R.A.S.D. onartzearen alde zegoen, baina batzu kon-

tra ere bai.

Erakundearen hurrengo batzarrek Addis-Abeba-n izan behar zuen; eta arazoak urdinez jantzirik agertu ziren: bat batean, ministroen lehen batzarrean, RASD-eko talde bat sartu zen, eta partaide gisa jezarri ziren; itzarrotekoa zen, noski, besteen presentziak oharturik, marokkotarrek alde egitea, baina ez ziren irten bakarrik, beste zenbait herriren ordezkariak ere lagundu baitzituzten.

Nola gertatu zen RASD-eko ordezkariak han agertzea? Ba, dirudienez, OUA-ko idazkariak partaide-gehiengoaren eskaera pribatuak kontutan harturik, berekaxa erabaki zuen, nahiz eta hori RASD estatutatzat onartzea zela jakinik.

Eztabaidak oso luzeak izan dira: erabaki hori hartzea estatu partaideen lehendakari batzarren zegoikiola, batzarrea utzi zuten 19 herriak kendurik, ez zela heltzen behar ziren bi herenetara; besteek esaten zuten, aldiz, gehiengo simple zegoela, etab., etab.

Azken uneko egoera zera izan da: bi herenik ez dago; erdia, bai. Gainera, hurrengo batzarra Tripoli-n izango da, eta datorren urteko lehendakaria, Khadafi; eta horrek ez du ere gehiegi lagunduko.

Zer gerta daiteke orain? OUA pikutara koango da? Marokkoko 19 horien kopurua mantendu ala gehitu ahal izango du? Bi erakunde desberdin sor daitezke? Ba du horrek zentzurik?

Dena da galdera; auza seguru bakarra zera da, erakundea oso makal atera dela Addis-Abeba-ko batzarretik, eta denbora zailak itzuli direla.

Sinesgarritasuna galdu du, eta hori leku askotan senti daiteke; Tchad-en adibidez...

María Jesus Esteban

EVA SERRA- rekin HIZKETAN: «Nik Euskadin Euskaldun abokatu abertzaleen tarjetak gaztelanieraz ikusititut...».

Batzuren ustez, katalanak gure anaia nagusiak liriteke. Exenplu gisakoak. Besteren aburuz, ordea, «Espainia» aldean dauden konformista hoiek ditugu, edo -ta, baten batek esan zuen legez, «ganorabako espainolak», beste zertxobait izateko aukera ez daukatenak. Hortxe dugu gakoa. Eta honengatik, Kataluniara jotzen dugun

bakoitzean arreta haundiaz begiratzen diogu bertako egoerari, zenbaitetan euskaldunoi arraro xamar iruditzen zaigun egoera horri. Oraingoan Eva Serrarenganantz abiatu gara eta berarekin hainbat gauza eta arazotaz ihardun dugu, hasieran nahi genuen baino denbora-tarte askoz laburrago batez.

Eva Serra familia katalanista baten barnean jaio zen eta bere herriaz kezaturik burruka latzak egin eta egiten ditu aspaldidanik. Bartzelonako unibertsitate autonomoan historia irakasten du. I.P.C. —Independentistes dels Països Catalans— talde politiko barruan dago. Gartzelaldiak eta torturak jaso ditu atxilotua izan denean.

Evak dioskunez, Euskal Herriko eta Kataluniako dinamikak bestelakoak ditugu. Euskal Herrian burruka harmatua daukagu baina handik ere ba daukate esperientziarik arlo honetan eta, gaur egun ezer gutxi bada ere, tradizioa garrantzitsua omen da.

«Bai —dio Evak— Beti esaten da Katalunia paktista izaten dela, hala ez da baina. Bertan tradizioa ba daukagu eta bikoitza, gainera: Bala, anarkista. Bestea, abertzalea, estatu katalanaren alde burrukatzen duena».

Kataluniako burruka abertzaleaz galdetzen diogunean halako atsedendaldi laburñoa hartzen du bere ezagutza historikoen edukiak ordenatu nahi bailituen. «Hemen ez dugu Sabino Aranarik. Nazionalismo katalana ez zen euskalduna bezain independentista. Horrexegatik joan zen haserre Sabino, hemendik denboraldi bat eman-dakoan». Pertsonaia historiko bat aipatzeko eskatzen diogu eta Prat de la Ribera-z hasten zaigu. «Haren praktika erregionalista izan zen. Hark lau diputazio katalanak erreibindikatzeko zituen. Mankomunitatea Katalunian bakarrik aplikatzen da». Evaren ustez, Prat de la Ribaren erregionalismoa oraingoa baino kontsekuenteagoa izan zen, behintzat ikuspuntu nazionalari dagokionez. «Hark administrazioak ematen ziona erabiltzen zuten. Besterik ez. Hortaz baliatu egiten zen, koherentziaz.»

FRANCESC MACIÀ-K «ESPAINIA GURE ETSAIA DA» ESATTEAZ GAIN, ZENBAIT «ESCAMOT» —KOMANDO— ERATU ZITUEN IPAR KA-



TALUNIATIK HEGORA SARTZEKO.

Geroago, 1919.ean Francesc Macià agertu zen. Maciàk «Espainia gure etsaia da» esaldi ospetsua esan zuen. «Escamol» —komando batzu osatu zituen Kataluniaren alde burrukatzeko. Haien ekintzarikoa bat erregearen kontarko atentatua izan zen. Primo de Riveraren diktadurapean Prats de Mollo delako gertaera suertatu zen. «Francesc Maciàren escamotak —kondatzen digu Evak— Ipar Kataluniara bildu ziren. Ehun bat lagun izango ziren. CNT-koekin batera Kataluniara sartu nahi zuten. Fillrazio bat egon zen eta frantsesek escamol guztiak delenitu. Macià epailu egin zuten, Frantziatik ateratzea erabakiz. Belgikara joan zen orduan.»

Frankismoaren garaiko erresistentzia ez zen nolana hikoia izan. Front d'Alliberament Català agertu zen Batista Rocaren eskutik. 1950.garrenean arte burrukatu zuten, 1956.ean erakunde politiko agertzeko. Front delakoaren barruan egondako zatiketarik dator gaurko independentismoa: «Balistaren taldetik beste erakunde batzu sortu ziren. OLLA —Organització Lluita Armada— bat izan zen. 1979.ean desartikulatu zuten. Ejercito Popular Catalán, —EPC—, gaurko Terra Lliure-n dago, antza. Terra Lliure banaketa hoiaren sintesia da. Emigranteak ere sartu ziren arazo nazionalaz arduraturik. Denak 1980.ean delenitu zituzten.»

TERRA LLIURE SORTZEA KONZIENTZIA IN-

**DEPENDENTIS-
TA HELDUTA-
SUNAGATIK
IZAN DA. ETA
(PM)-KOENTZA-
KO KRITIKA BAT
DA, BESTALDE.
KATALUNIAN
ZENBAIT EKIN-
TZA EGIN ZUTEN
ETA GUK EZ
DUGU INONGO
AITAKERIARIK
GURA.**

Terra Lliureren existentzia laburra izanagatik ere, ekintza harmatu batzu egin ditu. Ekologistak: FECSA eta ENHER —Euskal Herriko IBERDUEROren antzekoak— izan dira helburuak, Ascó eta Vandellós dituzte eta. Estatuaren kontrakoak: Irakaskuntza, Magistratura eta Gobernadore Zibilaren edifizioak eraso dituzte. Hizkuntzaren alde: Jimenez Santosi tiroa. Pertsona hau institutoko irakaslea zen. Eva Serrak baieztatzen duenez Jimenez Santos Rodriguez Sahagunen lehengusua da eta «*Manifiesto de los 2.300 intelectuales castellanos en Cataluña*» izenpetu zuen. Agiri horretan «*gaztelanieraren baztertea*» salatzen zen. Guardia Zibilaren kontra ere ihardun dute Terra Lliure-koek. Terrassa eta Reus ondoko herri batetako kuarteletera jo zuten.

«*Terra Lliure sortu zenean —dio Evak— independentismoak goreneko gailurrera jo zuen. Hori heldutasunaren froga izan zen, gainera ETA pm-koentzako erantzun bat, Katalunia aldean egindako ekintzengatik. Guk ez dugu inongo aitakeriarik gura. Geuk askatu behar dugu Katalunia.*»

Puntu honetaraino helduta, eta Kataluniaren tradizio anarkistaren inportantzia kontutan hartuz zera galdegiten diogu Evari, nolako harremanak izan diren bi mugimenduen artean. «*Primo de Riveraren garaian ahaleginak izan ziren. Zer gertatu zen? Anarkisten barruan ere espainolistak eta katalanistak ba daudela. Piera azken*



joerakoa zen eta 1918-19. go greban jokaera dexentea eraman zuen. Espainolistak, hala ere, kontaktu hauek apurtzen saiatu egin ziren. 36.ean, bestalde batelatik, kontraesan haundiak izan zituzten anarkistek. Sasoi hartan «Faxisten kontrako milizien komiteak» sortu ziren, tartean Esquerra Republicana, Estat Català eta CNT zeudelarik. Komiteek irabaztean, Companys CNT-ko Oliverrengana joan zen soldadu, bere ordurarteko gobernua Oliverri berari eskainiz. Zer lortu zuen. CNT-ko batzu Generalitalera sartzea. Besterik ez.»

Joera hori, Evaren aburuz ez da aldatu egin: «*Haiek oinarririk irtelen dira, Estatua gaitzetsiz. Mundu guzlia federazioz erlazioatuko da. Penintsula Federación Ibérica izango dugu, Portugal ere barne. Baina funtsez, iberismoa espainolismo hutsa duzu.*»

**PSAK KALTE
ITZELA EGIN DIO
KATALUNIARI.
BOTUA EMAN
DION ASKO EZ**

**DA ANDALUZIA-
RRA. BI KOMU-
NITATEAK IZO-
RRATZEKO IZAN
DA**

Euskal Herrian jazo den moduan Katalunian ere emigrazioa egon da. Gerra aurrean ba zegoen arren —«murciano» gaitzizenaren garaian— frankismoaren denboran bilakatu zen izugarri.

«*Industria eta emigrazioarekin batera hiringuruak sortu ziren. Orduantxe sartu zen «xarnego» berba. Bertoko langileek soldata trikiagoak jasotzen zituzten, kanpolik etorririko asko ere biltzearen prest lanerako. Horrekin guzliorrekin, bi komunitateak banaluta egonez, gauza bat gertatzen zaigu: hizkuntz arazoarena. Hemen ez da elebitasunaren errebindikazioa egiten, katalanierarena baizik. Kontu hau, baina, ez dute ongi planteiatzen eta problemak hasten dira. Lehen, emigrazioaren haurrek kalean, jolasean, ikasten zuten katalaniera eta nagusiek erosketan.*

Orain gauzak aldrebestu egin dira. Emigrazioaren «ghettoak» ditugu. Hori beste mundu bat da. Errealitate soziologiko ezberdin bat. Nik, haurtzaroan, katalanieraz jolasten nuen. Baina denborak aldatu dira. Telebistaren funtzio zapaltzailea ere badago. Politikari dagokionez, istilu gorriak eduki ditugu. PSA horrek izugarrizko kaltea egin dio Kataluniarri. Katalunian botua eman dion asko ez da andaluziarra. Izorratzeko egin dute. Emigratioak dakarren arazorik latzena ez dute langileek sortzen, funtzionarioek baino. Hauek hona etortzean, beren eduki kulturala dakarkigute, lehengo iskanbilak sortuz. Eta honen froga zera da: *El Baix Llobregat alde horretako pertsonarik gehienek XX. mendearen hasierako emigratioaren hirugarren gizaldia osatzen dute. Bertan, hala ere, katalanieraz mintzatzen da eta kontzientzia independentista itzela dugu.*

Katalu niako hizkuntz egoera ez da gurea bezalako. Udalek katalanieraz egiten dituzte aktak. Eskoletan katalaniera sartu dute, lehen etapan zenbait arazo edukita ere. Institutoetan, berriz, aurrerakuntza haundiagoa izan da. Unibertsitatean asignatura asko ematen da katalanieraz. «Unibertsitatara joan nahi duen edonork katalaniera ezagutu egin behar du», esan digu Evak. Han fenomeno bitxi bat suertatzen da. Irakaslegoa banatuta topatzen dugu. Zenbaitek ez du gaztelanieraz irakatsi nahi eta klaseak katalanieraz ematen dituzte. Gaztelanieraren aldeko monolinguismoa ere izaten da. baina hau arraroagoa da.

«KATALUNIAN KATALANAK KATALANIERAZ HITZ EGITEN DU. EUSKAL HERRIAN, TAMALEZ, EZ DA BETI HALA PASATZEN. BERTON, KATALANIERA EZAGUTZEN EZ DUEN KATALA-



NA PUTASEME KERIARIK HAUNDIENAREN EREDUA DA»

Independentziarako bidean hizkuntzak daukan inportantzia itauntzen diogu Evari eta gogor erantzuten digu:

«Hizkuntzak lehenetsunak dauka. Katalunian katalanak katalanieraz hitz egiten du. Euskal Herrian ez da beti hala gertatzen, tamalez, beste errealitate soziologikoa baitauka. Bertan, katalaniera ezagutzen ez duen katalana putasemekeriarik haundienaren eredua da.»

«HIZKUNTZ BURRUKA MODU GUZTIETAN EGITEN DA. NI EUSKADIRA JOAN NAIZ ETA EUSKALDUN ABOKATU ABERTZALE ZENBAITEN TARJETAK GAZ-

TELANIERAZ IKUSI DITUT»

Eva gehien izorratzen duena elebitasun nazkagarria da. Metroan *sortida/salida; no fumar/no fumar* eta halakoak jartzea, hain zuzen. Exenpluak adierazten jarraitzen du etengabe eta Euskal Herriko egoeraz galde-tzen diogunean serio serio paratzen da.

«Zuena askoz problematikoa da. Katalunian politikoeak arrakasta eduki nahi badute katalaniera ikasi beharra daukate. Ba daude PSA eta PSOEko salbuespenal ere. Eta nola ez!, PSUC-ko López Raimundo, Errepublikara garaian Aragondik etorria eta katalanieraz mintzatzen ez dena. Euskal Herrian, ordea, Txillardegia da irla bakarra. Hizkuntz burruka modu guztietan dago. Ni Euskadira joan nahiz eta euskaldun abokatu abertzaleen tarjetak gaztelanieraz ikusi ditut. Behin, Bilbon nengoelarik, hango politikari bati zera esan nion: «Me gustaría venir un día a Bilbao y no entender a nadie». Berak harriturik begiratu zidan. Ez zuen ezertxo ere ulertu. Niri Bartzelonan gaztelanieraz egitea ez litzaidake inondik inora bururatuko...».

IDAZKUNTZA - JOSE MARI PASTOR

BALENDIN ENBEITA: URRETXINDOR KUMEA (eta II)



Hona hemen azken ANAITASUNAn agertu zen elkarrizketaren bigarren eta azken partea.

Gogoratuko zaretenez, han, Enbeita familiari zegokiona agertu genuen gehienbat, Jose Antonio, Balendinen aititagaz hasi eta Jon semeagaz amaituz. Baina... Balendin beraren nortasuna eta garrantzia murriztuta geratu ez ote zenaren zalantzak ditugu. Bere hitzetan oinarritzen bagara, aitita oso ona zan, osaba oso fina, aitik zeukana ez du inorengan aurkitu, semea aititaren bidetik doa, eta bera?, galdetu bezala geratu zitzaigun ezer ez zelakoan, eta edozeinek daki hau honela ez dela. Enbeita Zaharra oso errespetatzen da bertsozaleen artean eta hau ez da dohan lortutako meritua, lan astun eta egokiaren bidez baizik, bertso eder asko boteaz eta idatziz. Honela gertatzearen errua gure galderetan egon daiteke edo bere apaltasunean agian, dena den, bidezkoa deritzagu azaltzeari.

Gizon hau bere osotasunean ezagutzeko, ona litzateke alde batetik orain esku-artearen duen liburua amaitu eta argitara emango baltiz, eta bestetik, euskal aldizkari gehinetan zehar eta hainbat saiotan zehar barreitua dituen bertsoak bilduko eta argitaratuko balira. Antonio Zavalak Auspoaren 117-118 zenbaki bikoitzean (Nere apurra/B. Enbeita 1974) egin zuen holako zerbait, baina hitzaurrean aitortzen duenez «liburu ontan ezin jarri izan ditugu Balendiñen bertso guziak, au baño askoz liburu aundiagoa bear litzateke danak sartzekotan». Beraz, ideia hor dago.

Beste azalpentxo bat gure aldetik. Seme bertsolarien izena sarreran aipatu bagenu ere, elkarrizketan zehar Jonen izena baizik ez genuen erabili: gure galderak behartu zuten honetara Balendin. Aukera eman bagenio, seguru gaude Abel aipatuko zuela, berdin Kepa, Libe, Joseba Andoni edo Moises, Moises, eta seguruenetik baita J. Ajuria Deunoro eta Jesus Mari Sardui lobak ere, baino hildo estu bat eman genion eta handik abiatu behar. Guk zergatik aukeratu genuen Jon ez dugu uste azaldu beharrik ere dagoenik: azken txapelketan bigarren gelditu zelako.

Eta besterik ez, hemen uzten zaituztegu gure gizonagaz.



BALENDIN ENBEITA

LEHENGO/GAURKO BERTSOLARITZA

ANAIT.— Zeintzuk dira sarrien erabili dozuzan gaiak?

BALENDIN.— Txapelketak hasi zirenetik, jartzen euskuenak. Aurrrerago ez zan gairik egoten. Plazara igon eta bertsotan hasi; batek hartzen baeban gai bat, hareri jarraitu besteak. Orain gai jartzaileak dagoz eta bertsolaria lehen baino gehiago lotuten da: zorroneko izaten da norberak sarritan eskuartearen erabilitako gaia suertatea.

ANAIT.— Beraz, hortik dator sarri esaten dana, hau da, bertsolariak zenbat eta jakintza-maila altuago izan, hainbat eta hobeto defenditu plazan.

BALENDIN.— Bai, duda barik. Behin Uztapidek Basarri esan eutsona:

plazara bota gaitue biok bertsotarako eta geldik, bueno Basarri, zer esan behar degu?, Jaungoikoa ona dala ala zer?

Gai-jartzailea egotea ona da, baina bertsoz dakien pertsona izan behar da. Kontu handia euki behar dabe sarritan, bertsolarien

artean erabilten ez dan errimarik eta ez imintzeko. Behin Txirritari jarritakoa, esate baterako:

Nahi niuke banaukake
zuk dezun hainbat bist

eta Txirritak erantzun:

guk ba degu txakur bat
deitzen zaiona list
atearen gainetik
akuditean pist
azpiko zulotikan
azkar sartzen da txist.

Lehen esan dotan moduan, gai-jartzaila bertsoa zer dan da-
kiena izan behar da, horrelakorik ez imintzeko. Horretan, gure lo-
bea, Deunoro Sardui ona da, Loiolako Iriondo be bai, eta abar.

ANAIT.— Lehen go eta gaurko bertsolarien artean ba dago ez-
berdintasunik?

BALENDIN.— Bai. Gaurkoa landuagoa eta gehiago ikasitakoa
da, teknika be hobea da gaur bertsolarien artean dagona. Lehen-
goa tabernan egoten zan plazara urten barik, batak besteari han-
diak esaten. Gaur, bertsolariak plazara urteten dabenean beste
gauza bat da, ez da bertsolaria bakarrik, herriak be asko egiten
dau eta aldatuta dago lehendik hona: arin igarten dau nork bota-

— **Neuretzako,
lehen baino
bertsolari
hobeak da-
goz.**

— **Herriak arin
igarten dau
nork botaten
dauan bertso
ona.**

ten dauan bertso ona. Lehengoaz lez: **bart honek mozkor
ederra ekarri dau** ez dakit nondik nora ibili dan eta... gaur
horretarikoai herriak ez deutso jaramonik egiten, barre bai baina...
bertso ona entzuten danean, herriak beréz txalotuten dau.

Horregaitik, neuretzako, lehen baino bertsolari hobeak dagoz.

BERTSOAREN TEKNIKA

ANAIT.— Bertsoa egiterakoan zereri emoten deutsozu garrantzi
gehiago, gaia eroaten jakiteari, doinua polito eroan eta abots ona
izateari, neurria errespetatzeari, errimari...

BALENDIN.— Gaia biribiltzen jakin behar da: doinuak be garran-
tzi handia dauko, baina niretzat, bertsoan, errima eta neurri ba-
rruan, hasten dan arloa oratzen-oratzen joatea da inportantziarik
gehien daukona.

Bertsolaria belarri bakoa bada, abestutean herriari zakar geldi-
tzen jako, baina kontuz, abotsak bakarrik ez dau egiten bertsoa.

ANAIT.— **Poto** egitea hain pekatu handia da zuretzat?

BALNEDIN.— **Poto** eginda bertso ikaragarriak urten dabe.
Epai-mahaikoa izanda, **poto** egiteagatik ez neukez kenduko pun-
tu guztiak.

ANAIT.— Zer da zure ustez pekatu handiagoa, etena ez gorde-
tea ala **poto** egitea?



Bertsolaria belarri bakoa bada, abestutean herriari zakar geldituten jako, baina kontuz!, abotsak bakarrik ez dau egiten bertsoa.

— Gipuzkoan, bertsoaren azkanak dauko garrantzirik genien.

BALENDIN.— Niretzat, bertso guztian berbak ebagiten joatea, **poto** egitea baino pekatu gehiago da.

ANAIT.— Bertsoa norako da, tabernarako ala plazarako?

BALENDIN.— Bietarako. Bertsolariak zentzuna badauko, tabernan be probetxua atarako dau. Nik tabernan sarri egiten dot bertsoan eta beste askok; jendea matrakan dabilenean, baretuteko, bertsolaria zentzunduna bada bertsoa da gauzarik onena: gauzak egoki esaten baditu, jendea adi-adi paraten da eta baketu.

Edonon balio dau bertsoak, tabernan zein plazan zein eleizan. Eleizan be bai.

BERTSOLARI IZATEN IKASI ALA JAIIO?

ANAIT.— Orain betiko itaun topikoa egingo deusut. Mila aldiz erantzungo zeuntsan galdera berberari baina asko interesaten jat zure erantzuna. Bertsolaria jaiio ala egin egiten da?

BALENDIN.— Biak. Egizu kontu bi jaioten direla eta batek berezko txispa ikaragarria dakarrela: nik uste dot hori jatorriz edo odoletik be ba datorrela. Gero bai, egin be egin behar da. Berezkoa bada txistosoa izango da eta bertso zelebreak botako ditu, baina landu egiten ez bada, jatorrizko etorrera pobredun baina landu batek gehiago egingo deutso.

Lopategik esan eusten niri behin, bera hamar urtetan ez dala egin bertsolari eta injineru askotaz arinago egingo zala. Gure eskolan hasi zanean Ariatzan, guk ez genduan uste horrek bertsolari urtengo ebanik: baina jo ta jo ta jo, ikasi, esakerak hartu eta... azkenean urten.

ANAIT.— Zer deritzazuz orain sortzen dagozan bertsolari-eskoiei, Santutxukoa, Durangokoa, Algortakoa, Mungikoa eta abarrei?

BALENDIN.— Ondo. Ez daiela pentsau baserritarak eta bakarririk direla bertsolariak, herrian barruan be bertsolari asko dago, eta entzuten ez bada egiten ez dabelako da. Horrek eskolatik urten behar dau; han asmatuko da nor dan txispa daukona eta ez daukona.

Abestuten soltau egin behar da. Idaztea be ona da. Gero batek memoria ona ba dauko, idatziak be gogoratu egiten jakoz abestu-

— La Cruzada-koa pistoleagaz eta gorri kriminala errosarioagaz.

ten dagola eta handik be hartu egiten dau. Bertsolaria horretara be egiten da. Idatzi asko eta gero buru argia badauko, joaten da plaza batera eta **bota egizuz bertso batzuk honeri**, eta berak asko idatzita dauko lez, taka-taka hasten da.

Gero, plaza-gizon bihurtutea ez da erreza. Lotsea bota, beldurra kendu, hortik hasten da. Txapelketa Bilboko Arenalean jokatu teko izan zanean, gau bitan egon nintzan lorik egin barik. Ba dakizu zerk? ba, jende guztiak: Enbeita izango da, Enbeita eta Enbeita... eta nik, **nire aitte bai baina ni ez naz**. Oraindino txarrago imintzen nintzan, ze, esaten naben: nik egiten ez badot, bape ez naz, egiten badot lehengo bestean nago.



Nerbioak danak daukoguz: txapelketea Bilboko Arenalean jokatu teko izan zanean, gau bitan egon nintzan lorik egin barik.

TXAPELKETAK

ANAIT.— Orduan, txapelketak bertsolariengan dauken eragina ikusita, bertsolariaren kalterako ala onerako izan dira?

BALENDIN.— Txapelketarik izan ez balira, Bizkaian, gaur dagon beste bertsolari ez zan egongo. Hori sigur-sigur. Bizkaian txapelketak hasi ziranean, nik ez nekien inon bertsolariarik bazan. Lehenengo txapelketan, Arenalean 14.000 lagun edo kalkulätzen ebezan. Anasagasti obispua be han egon zan bere txapel gorriagaz, plaza erdian eta Alfonso Irigoienek esan ebanean **bertsolari handien aurrean txapela erantzi behar da**, rrraa!! zutundu zan eta bere txapel gorria kenduta parau zan plaza erdian.

Txapelketan bertsolaria estu egoten dala? Hori, nerbioak, danok daukoguz. Txapelketa ez da plazara joan eta bertsoan egitea. Bertsolariak horregaitik ez dabe gura izaten. Behin gainera, entzute apur bat edo hartzen badau, orduan, plazetara ba dabil eta txapelketarik ez dau gura. Danak ez dira gainera txapelketarako bertsolariak. Tabernan ikusi edo plazan ikusi, bertsolaria erdiaraino bajaten da.

GIPUZKOA ETA BIZKAIA

ANAIT.— Aspaldion bertso-papelak inportantzia galdu gabe, ez da?

BALENDIN.— Bai eta nik uste dot gaur be balegoz hoba leikela.

Indartu behar dan arloa da, baina jendea nagi dabil. Lehenago **txakur-handi** batean saltzeko ziran, gure aittetek be bertso baten azkana halan imintzen dau.

ANAIT.— Bertsotan, bizitza normalean erabilten dan berbetea erabilten da?

BALENDIN.— Aldatu egiten da zeozer. Bertsotan, berbetan erabilten diren berbak baino aberatsagoak esaten dira, berbetea loretu, hobeto jantzi. Beste batzutan berbea ebagi be bai, neurrian sartzeko, herrian erabiltzen ez dan berbera hori. Hori, bertsolari guztietan aldatuten da. Xalbadorrek berak be, hitz egiten eta bertsotan nahiz eta gitxi egin, aldatu egiten eban.

ANAIT.— Zuk, AUSPOAn argitaratu zendun liburuari **NERE APURRA** imini zeuntsan izena; **NERE, NIRE**-ren orde; bai zuk eta bai zure seme-alabak be, bertsotan egiterakoan sarri esaten dozuez **det, degu, dezu, zera, gera,** eta horrelako Gipuzkoako formak. Nondik datortzuez hori?

BALENDIN.— Gure aittetek ez eban ibilten holakorik. Guk, Gipuzkoako bertsolariekin nahastean ibiltean hartu dogu hori, eta beste batzutan errimea edertuteko be bai.

ANAIT.— Eta Gipuzkoa aitatu dogunez, zera itaunduko deusut, ea Bizkaiko eta Gipuzkoako bertso-egikerak bardinak diran.

BALENDIN.— Ez. Gipuzkoan bertsoaren azkanak dauko garrantzirik gehien, eta erdian batzutan nahastea egoten da. Bizkaian aldiz, lehengotik azkaneraino esaten eta esaten joaten da, eta orduan azkana ez da emoten hain gogor.

Gero, Gipuzkoan, etena ez dabe gordeten Bizkaian baizen ondo.

LIBURU BAT

ANAIT.— Idazten dozu ezer orain?

BALENDIN.— Bai, liburu bat, nire bizitza dala-ta. Gerran ikusi nebazan zera guztiak, Gernikako bonbardeoak, kartzelako gure tratametuak, zelan ibili ginan... Puerto de Santamariako bizitza, Duesoko bizitza...

Nik uste dot, irakurten hasten danak arreta handiz jarraituko dauala, egiak diralako. Gauza gogorak be bai, barre egitekoak be bai bitartean. Lau urte egin nabazan barruan, Puerto de Santamarian hiru eta Dueson bat.

ANAIT.— Konta eiguzu halako pasadizoren bat.

BALENDIN.— Santoñan, kanpo-konzentrazioan egon ginan, Italiano menpean eta abade requeté bat etorri zan txapel gorriagaz, kapitan izarrakin, pistolea eskuan hartuta, eta gugaz bata-lloian ibili zan abade bateri esan eutson han gordeta eukan pistolea emon daiola, eta besteak, eskua sartu partikarara eta errosarioa erakutsi eutson, **hauxe da nik frentean neure gudariekin erabili dotan arma bakarra.** Komandante italiano bat etorri zan, belarririk hartu, ostikoagaz jo eta jaurti eban requetéori eta esan euskun **inor etorten bada hona abisau, honek ez daukoe zertan sartu hona eta.** Nik liburuan halan iminten dot: La Cruzada-koa pistoleagaz eta gorri kriminala errosarioagaz.

Inolako bueltarik gabeko gizona dela ikusiz Balendin, hainbat eta hainbat galdera gehiago gogoratzen zitzaigun, inongo misteriorik gabe erantzungo zigula seguru bait geunden. Bertsolaritzatik kanpo, politika mailan esate baterako, gerran-gudari, baina seme bat baino gehiago gartzelatik pasatua eta azkenez seme bat oraindik ihazko Gabonetan gartzelan eduki duen Balendinen bilakaera jakiteko kuriosidadea, batek baino gehiagok izango du. Geuk ere bai, ez dago zertan ukatu. Baina, zertarako? pentsatu genuen, erantzuna izango dena izanik, Euskal Herri zatitu hone-tan beti egongo bada txartzat hartuko duen norbait?

Nahiago izan dugu Balendin bere lekuan uztea, Bizkaiko bertsolari eta bertsozaleen **aita** bezala, horixe delako Balendin beste edozeren gainetik.



BALENDIN ENBEITA

NERE APURRA

1.— *NERE APURRA* Auspoa 117-118: liburu honelan ezin izan dira batu Balendin bertso guztiak.

Amaitzeko, berak oraintsu kantatutako bertsoren bat eskatu genion:

BALENDIN.— Oraintsu kantatutakoa da, Igorren, eleizan izan zala uste dot. Ba dakizu zer esaten dan gaur hortik: gauzteak ezin direla hezi, gaurko gazteria galduta dagola, ez dakit eta ba dakit zer... Ba, bertso hau abestu naben:

Esaten dabe gaurko gaztea
ezin legikela hezi
egia esan nabarmenkeri
asko eiten da ikusi
baina gazteak ta bardin zárrak
kontuan gaitezan jausi
lur maite hontan bakez ta pozez
baldin nahi badogu bizi
batak besteai itzala izan
t'aldar maitatzen ikasi.

J.R. BILBAO

IPARRALDEAZ HAINBAT ABURU

Gure dossier sailari jarraipena emateko oraingoan ipar aldera jo dugu eta bertakoei eskeini diegu hitza, papera. Ez da hau dossier sakona, ez da hori gure asmoa izan ere, baina Euskal Herriaren zati hau ezagutzen lagundu bazaitugu gurea bete dugulakoan gaude:

Ipar aldekoiei eskeini diegu hitza, honela **Jokin Apalategik** erantzun digu hego eta ipar aldekoen harremanak sakontzeko eritziak ematen dizkigularik. **Jean Loui Davanten** lantxoak euskal departamendua eta hauteskundeak edo botzak ditu ardatz. **SEASKA**ren lan luze bat datorkizu geroxeago, iparraldeko ikastolen mogimendua ezagutzeko beharrezkoa. **Gau Eskolen** hasierak eta nekeak dituzu segidan. **Ipar Euskadiko II Astea**-ren berri ematen digute ondoren **Deustuko Euskal Kultur Mintegikoek**, Martxoaren 24, 25 eta 26an Bilbon izandako aste interesgarria. Amaitzeko literatur kutsua eman nahi izan diogu dossier honi, horretarako **Louisean Etxezaharreta** idazle jatorrak laguntzen gaitu.

Eta hau duzu dena, **ANAITASUNA**ko idazle porrokatua, orain zuri eskeintzen dizugu aukera, irakurri eta komentatzeko aukera. Besterik bazenu gure ateak zabalik. Agur Benhur eta datorren hilerarte Mariabitarte.

Joxe Ugarriza

Euskal herriaren
ipar eta hegoaren
naturazko
lokarriak
suspertzeko

Naparroako erreinuak bere administral erakundeekingure Herriaren iparra eta hegoa bateratzea utziaz gero ez dugu politiko lokarririk

eduki izan. Baina gaineatiko gure lokarri guztiek bizirik iraun izan dute, binbitartean, mila gertaera eman izan badira ere gure Herri izaera desgaiteko entseioan.

Orain, halere, ez ditut jazarpen eraso horiek izendatuko eta aztertuko. Ez da hori une hone-tako nire eginkizuna. Hortan jardutea baino hobea, bataren eta bestearen artean bizia pasatzen nola jarraitu izan duen gogoratuko dut.

Mugaren mugan alde batetakoak beti kuru-ztatu izan dira beren bizi beharretan. Bizi mo-dua elkarrekin egiten ikasia dute. Abereak eta kontsumoko gauzak beti erreztasun osoz truka-tu izan dituzte. Are, heuren artean ere ezkontza orduan ugaritsu nahastu izan dira. Jakingarria izan litzake sail hau estatistikaz neurtzerik ba-lego.

Muga mugatik urrutitzen bagara ere aisa atxemanen ditugu aztarna horiek. Adibidez, hi-labete hauetan Baionako herriko etxearen hila-betekarian zera irakurri dut: gaurregun Baiona-ko bizilagunetarik %ko 9a Espainia estatuan sortuak direla. Bistan da, Espainia Estatu erre-ferentzia pean gehienak hego aldeko euskaldu-nak direla. Eta bestalde, konpreni dezagun esa-ten dena. Han sortu eta Espainia estatuko nai-zonalitatea gordetzen jarraitzen dutenak esan nahi da. Zeren, milaka eta milaka baitira han sortuaz gero hango nazionalitatea utzi dutenak. Are, gure lojikarekin aitzinerago joanaz, esan dezagun, oraino hego aldeko erroak dituztenen kopurua erraldioago litzakela bi edo hiru belau-naldiz atzeraka eginaz kontabiliza ahal bageni-tzake.

Eta Baionarako esan dugun hau, gaineatiko herriei aldakuntza gehiegi gabe aplika lekieke.

Guzti honen sorburuan, bereziki, karlistade-kin hasiaz gero gelditu ez den egoera politiko zapaltzailea dago, noski. Soldaduskatik, gerra-tik, presondegitik ihesi, hego euskaldunek ipa-rra bilatu izan dute naturazko aterbe leku.

Eta iparraldekoek zer? Baita ere hegoa hau-tatu izan dute beren naturazko aterbe lekuztat hortarako gertakizunak bizitzea tokatu izan zaie-nean. Egia da, halere, iparraldean okasio larri horiek gutiago eman direla. Baina soldaduskak eta gerrateak behin baino gehiagotan bultzatu izan ditu iparraldekoei. Adibide bezala aipaga-rria da Perkain pilotari haundiaren kasua.

Aipatzen ari naizen gaia aurkeztu nahirik az-pimarratu ditudan printza moduko atal isolatu hauek aski adierazgarri dira enborra konpreni-tzeko bidean. Gaurkoz geldu bitez hortan!

Baina, orain, gaian aitzinera eginaz, galde dezagun naturazko lokarriak, gogoz bultzatzeko ordu honetan, zer dugun sustagarri? Izan ere, gaurdainokoa, gehien batetan inposamenduz bizi izan ditugun harremanak gogoz gainditzeko eta bideratzeko egoeran sartuak bait gara. Poli-tiko proiektu bat firmoki altxatzeko sasoiari sar-tuan bait gaude. Nolaz hortaratuko garen? Zer-tan entseiatu behar garen?

Gure ekintza espazioaren atal batzuk seina-latuko ditut.

1) Gure lurraldea oinezkatuaz dastatu behar dugu!

Euskal Herria deitzen duguna, lehenik, lu-rralde bat dugu. Orain ez naiz hasiko lurralde horren izaera geografikoa zehazturik izendatzen. Seinala dezadan, halere, lurra dela nazio baten

oinarrietariko bat. Egia bada ere, nazio batek, azkenik galtzen duena ez dela beti lurra. Horren adibiderik ezagunena judioen kasua dugu. Ju-dioek belaualdi luzez beren lurretik at ibiliaz gero, behin ere ez baitzuten beren komunitate erreferentzia galdu izan. Eta hain zuzen, horri esker Palestinako lurrean anak ezartzearekin berriz beren nazioa errotu ahal izan zuten. Ge-roago Israel altxatzearekin beren nazioa Esta-tuan bilakatuko zuten bezala. Lurra, halere, ez da naziotasun osoa. Nazioaren oinarrietariko bat baizik. Euskal Herria, gaineatiko herrien an-tzo, bere lurri dagokionean, historian zehar, mugikor izan da. Komunitate baten ontasunak gora-behera haundiak ohi bait dituzte. Eta go-ra-behera horiek, lurraldeari ere ikutu ohi diote. Gaur egun oraino Euskal Herriak bere nazio-tasuna sendotzea eta zihurtzea firmoki eta ausar-ki bilatzen duenean, gure arerioek lurra bortxa-tzea bilatzen dute. Zenbait aldiz gure ustea bes-terik bada ere, gure arerioek ez gaituzte hizkun-tzaren eta erakundeen alorretan bakarrik eraso-tzen.

Hego aldean eskualdetiar administral bata-sun bat onartu izan denean ere, Nafarroa gai-neatiko euskal hiru probintzietatik at eman dute. Zergatik? Euskal nazioak Estatura dara-man bidea ukatzeko gako egoki atxeman dute-lako. Nafarroa gabe ez dago euskal Estaturako jokabiderik.

Baina, era berean, euskal Estaturako ez dago aterabiderik ipar aldea kontutan hartu gabe. Eta jokabide hau plazaratuta dagoelarik, ipar aldea bere urratsetan gaketzeko neurriak ere hartuak ditu arerioak. Nola? Iparraldea bi-tan emanaz. Hain zuzen, Zuberoa dugu gakoa. Iparraldetik arerioek ziriz eta laiaz pitzatuta daukate gure lurraldea. Eta pitzatze horrek bes-te gabe bere ondorioak dakartze gogoeta mail-an besteak beste. Zuberotarren «manexa» ai-pamena lekuko.

Gaur beretik guetariko norberaren neurriko den jokabide bat gogoarazi nahi nuke gure lu-rraldearen batasuna present edukitzen eta sus-tatzen jarrai dezagun. Izan ere, gure Herri bo-rrakaren sail haundiak eramaten jarrai behar dela esan gabe doa.

Denok dauzkagu oporraldiak edo pausaldiak gure eguneroko egitateetan, ba zergatik horie-tariko parte bat gure lurraldeak oinezkatzeko ez har? Ximplea badirudi ere garrantzi haundiene-ko izan liteke. Eta oinezkatze hori arras abera-tsago litzake hegoak iparra eta iparrak hegoa eginen baluket.

Zer ikusi, zer ikutu gure zentzuekin? Gure Herrira atzerriko turistak ekarrazteko erabil-tzen den slogan batek zera dio: gure Herriak mendia eta oihanak, itsaso eta ibaiak, eguzkia ugari dituela. Eta aipatu elementuak gustuen munduan lilura haundieneko dira.

Eta iparraldeko mendietan ibiltzeko gida li-buru bat behar baduzute bat gomendatuko di-zuet frantsesa irakurtzen duzenontzat: Miguel Angulo, Guide des Pyrénées basques, Imp. Marrimpouey jeune, Pau, 1977. Izan ere, eus-karaz oraingoz ez baitugu gida-libururik iparral-deko mendiko ibilietaz. Baina, hutsune hori be-tetzeko lana Beltzak egina du. Ea laster argita-ratua ikustan dugun! Mendia eta bertan bizi izan direnek eginikako historia agertuko dizki-gu. Ebanitarrean iparraldeko menditarren kultu-ra ezagutzeko egoki bezala erabil dezakezute: Claude Dendaletche-ren Montagnes et civili-sation basque, Ed. Denoël, Paris, 1978. Gazte-leraz ere argitara emana egon behar da. Autore berak argitara eman duen: Montagnes pour un enfant, Imp. Marrimpouey jeune, Pau, 1981, ere destagarria da.

2) Hizkuntzaren trukean sendotu behar gara!

Euskara batuak aurrerakada haundi bat su-posatu izan du gure hizkuntzaren etorkizunari buruz. Baina, galdera bat egin beharrean aurkitzen gara. Zertan gara? Iparraldea egunero ari da galdera hau oihukatzen. Izan ere, Hegoalde-tik datorren euskara batuan ez bait dira atxe-maten. Zergatik? Hizkuntz eta zibilizazio arazo bat dago arteko.

Izan ere, hegoaldeko euskara, bere euskalki guztiekin, gaztelaragatik eta bere zibilizazioa-rengatik zeharkaturik bait dago. Eta bistan da, zeharkatze horren pisua eta garrantzia haundi izanik, iparraldeak ez du errez irensten. Aldiz, iparraldea frantses hizkuntz eta bere zibiliza-zioarengatik zeharkaturik dago. Eta hegoalde-arentzat arrotz gertatzen da.

Egitate bat inposatzen zaigu bada. Hegoak iparraldeko euskararen egungo lexikoa eta jos-kerak bereganatu behar ditu. Eta iparrak he-goaldekoa berdin. Hau bistan da idazleen ar-tean batik bat inposatzen dela. Baina, euskal eskolaren maila guztietara ixuriaz joan behar da. Iparraldeak hegoak ez bezalako lexiko eta joskerak bait ditu. Anitzetan iparraldeko euska-ra zeharkatzen duen hizkuntzak eta zibilizazioak ezarri dituen berezuntz hutsen gora-behera. Baina, horiek ezagutuaz elkarren trukean jarri behar ditugu.

Guzti honetan egungotasuna bereziki azpi-marratu nahi dut. Ez baita hainbat klasikoetan amaitzen den arazoa. Jendeak egun bizi duena kontutan hartu behar da.

Gaineatian iparraldean ere euskara batuaren joera eta dinamika zeharo inposatuak ageri zaizkigu. Egitate hortan ikastolek eta gau esko-lek duten jokabidea txalogarria da.

Baina, berriz, hegoaldeari zera gogoaraziko diot iparraldea ikasten eta irensten saiatzeko duen egitatea. Izan ere, euskara batuaren alor honetan ardura bereziki biterik jardutera behar-tuta dago hegoaldea. Euskara batua hegoalde-ko euskararen piso soziolojikoan oinarrituta bultzatu baita. Iparraldeko lexikoa eta joskerak hegoaldearen entseia gaitetzen lehenbailen!

3) Herri gogoaren emaitzak gure izakeraren bideko argi!

Jokabide guzti hauetan beldurrik gabe jar-dun behar gara. Euskal mundua kurutzatzen eta zeharkatzen duten gaurko hizkuntzek eta zibili-zazioek gurean galduko gaituztela? Ez dut uste. Baldin eta gure Herri gogoaren emaitzak mia-tuaz bidekari hartzen baditugu ez dezakegu bel-dur hori aproba.

Eta iparraldeak gure Herri gogoaren espre-sio bideak bizirik ditu. Ez ditugun aintzinate usaiaren hegitik bakarrik har. Ez gaitzen lana-bes horien formalismo hutsean lilaturik jar. Gure Herri gogoaren lekukotzat ikus ditugun baizik. Pastoralak, maskaradak eta toberak gure Herri gogoaren espresio bide hautatuak dira.

Horien bidez benetako herri xehea mintza-tzen da. Herritar Kulturaren balioak ezagutzen ditugunok espresio bide horiek gaurkotzen eta ahal bada hedatzen saitu behar ginake.

Bestalde, egokia litzake, gure iparraldeko he-

rikideek horrelako lan bat prestatzen duten ba-koitzean gure hegoaldeko munduan aurkezten saiatuko bagina. Piskanaka herriko eta herritar denez konprenio handi batekin ikustera hel liteke. Eta kurutzamen horretan bizitza bat hedatuko genuke. Gure inguru ustelduan hain beharrezko den gogozko bizitza aberats bat, noski.

Biziki baikor da hegoaldetik geroz eta ugariago iparraldeko kultur emankizunetara datorren jendearen jokabidea. Poz handia ematen du iparraldeko edozein herrisketan hegoaldeko jendetza eder batekin topatzeak. Hori egiten jarraitzeko ez dago esan beharrik. Baina, kontutan har dezagun bigarren parte, hots, hegoaldeko gure plazak iparraldeko Herri gogoaren espresioei irekitzea.

Bertsolari eta abeslari sailean egindakoa beste alor hauetara luzatu behar da. Eta azken aldian geldotzen eta itzaltzen joan den kultur dinamika berpiztu behar da. Gure gogozko bizitzan leku handi bat eman behar diogu.

4) Materiazko produktzioaren lekukotasuna:

Gizarte batek produktitzen dituen materiazko lanabesak Herri gogoaren beste atal bat dira. Beren ezagutza, bada, gogozko bizitzaren sustagarri gertatzen da. Eta iparraldeak badu materiazko produktzioaren horrenik. Behin baino gehiagotan hegoaldean galdurik dauden giza hegiak bizi bizirik atxemateraino.

Industria aurreko produktio moldeei dago-kiena iparraldean aski bizirik dugu. Eta gainera, galtzen doazen lanabesak ere ongi bildurik aurkeztuak daude Euskal Erakustokian. Non dagoen Euskal Erakustoki hau? Baionan Musée Basque bezala edozein gida liburutan izendatuta aurkituko duzute.

Euskal Erakustoki hortaz esan dezagun bere alorreko erakustokien artean Europan den aberatsenatariko bat kontsideratuta dagoela. Euskal bizitza tradizionala ikustaldi batez nolabait konprenitzen hasteko toki egokia, noski.

Era berean, Belloc-eko komentuan Aita Martzel Etxehandik, han hemen, iparraldearen alde guztietan bilduaz gero txukun eta ordenatuki baratze harizitsu batetan ezarriak dituen hil-harrien edo harri-biribilen zerrenda ikusgarria da. Gure arbasoen mundua, bere sakonaren sakonean topatzen dugu. Gai hau ikasi nahi duenak, besteak beste, irakur beza Michel Duvert, Contribution à l'étude de la stèle discoïdale basque, T.1 eta 2, Ed. Bulletin du Musée Basque, N.º 71 eta 72, Bayonne, 1976.

5) Amaitzeko hitz idekiak:

Ez zaitetz agerpen honekin konforma. Saia zaitetz nire hitz hauek piztu pindarra txordartzen. Geure Herriko gauzen konprensioak geure buruen ezagutzara eramaten bait gaituzte. Eta gure izaera euskal bideetan zihur eta zuzen ikusteko izan garen eta garenaren jakitun izan behar gara.

JOKIN APALATEGI

Botzak eta departamendua

1981-eko udaberrian, elkarri josirik joan dira hauteskundeak eta euskal departamenduaren xedea.

Euskal departamenduaz

1962-eko udazkenean, politika mugimendu baten antolatuta nahiz ari ginen Enbata hilabete-kariaren inguruko abertzale apurrak: 1963-ko Aberri-Egunean agertu beharra zen mugimendu hori. Programa baten eratzen ari ginen. Argi zegoen helburua: zazpi probintzien batasuna eta beregaintasuna, Europa federatu batean (alde batetik bagenuen Europazaletasun bizia, Besteetik separatistak ginelako akusamendu gaitztoaren ahultzeko taktika).

Baina bizpahiru lagunekin mintzaturik (laborari zuhurrak ziren), erran nuen epe luzeko jomuga zela hori eta bitarteko etapa bat eskaini behar geniola populuari, bestelan ez genukeela jarraikilerik. Euskal departamendu baten xedea proposatu nuen beraz. Orduetik onartu zuten Enbata zaudenek.

Itsasuko Aberri-Egunean aurkeztu genuen, publiko zabal eta nahiko popular baten aurrean. Textua Labeguerie-k idatzi zuen (nahiz gero xede horren aurka jokatu zen) eta euskaraz itzuli nuen. Hona:

Gure politika saila

Ikusirik:

- Euskal Herria orai bi zatitan berezia daukatela Frantziak eta Espainiak;
- Eskuara gibel ari dela;
- Ipar aldeko hiru Probintzietan bizipideak errekarat doatzila, gazteria Herriatik kasatuz.

Ikusirik:

— Oraiko frantses politika mota guziek Eskualdunen interesak osoki bazterrerat uzten dituztela, bai bizipideen, bai kulturaren aldetik, dela Frantziaren gerizan, dela Europaren bate-tartzeko moldeetan.

ENBATA oldeak, Lapurdiko Itsasun bildurik, 1963-ko Apirilaren 15-ean, huna zer porposatzen duen Euskalduneri:

— Lehengiziko epe batean, eta Frantziako Errepublikaren legepean, Ziberoa, Baxe-Nabarre ta Lapurdi elagarretaratuko dituen Eskualdun Departamendu bat, Eskuaren aldeko lege batekin;

— Bigarren urrats batean, eta Europaren batasunean, Zazpi Eskual Probintziak elgarretaratuko dituen Eskualde bat, politikako, administrazio- eta kulturako sailetan bere gaintasunekin, Europako beste Herrialderi datxikola».

Argi dago: abertzaleentzat, orduetik, azken jomuga ez da departamendua. Ez daiteke izan. Ez dut abertzalerik ezagutzen, bere borroka departamenduan gelditu nahi duenik. Abertzale bantentzat, etapa bat baizik ez da hori. Besterik erraitea, gezurra litzateke.

Departamenduaren eskaria egin nuelarik, ez nakien xede horrek historia bat bazuela. Hona, oso laburki.

1790-ean, ipar Euskal-Herriko bi probintziak eta nafar erresuma deusezturik, Basses-Pyrénées-etako departamenduan urtzen gaituzte Biar-nesekin. Alta bada, bi departamendu berez eskatuak zituzten euskal eta biarnes deputatuek. Debaldetan protesta eginen dute Lapurdiko deputatu diren Uztaritzar GARAT anaiek.

1836-an berpiztu da horien xedea. Baiona, Maule ta Akizeko eskualdetako jaun askok izen-peturik, eskari bat zuzentzen diote Louis-Philippe erregeari: «Adour» izeneko departamendu bat nahi dute, prefetura Baionan duekeela. Berriz ere debaldetan.

1945-ean euskal departamendu auto-no-moaren aldeko lege gai bat antolatzen du Marc LEGASSE-k, hiru lagunekin. Xede horren ezagutarazteko, bozketan aurkezten dira. Gero, Et-

chevry-Ainciart deputatuaren bitartez, Konstituzio berri bat antolatua beharra duen Biltzarrari helarazten diote. Hortan gelditzen da lege gaia, ezen legearen apailatzeaz arda duen Batzordeak ez du aintzakotzat hartzen, eta ez dio Deputatuaren Biltzarrari aurkeztuko.

Zein dira, Enbatarentzat, euskal departamendu baten helburuak?

— Legezko nortasuna eta batasuna ipar aldeko Euskal-Herriarentzat;

— Laneko tresna bat, bere diru kutxa, zerga eta biltzarrekin;

— Kultura erakunde bat (erakasleen eskola ofiziala, eta abar...);

— Euskal podere bat, autogestioari buruz abiatzeko;

— Estatuaren aurrean, arartekari bat;

— Hego aldearekiko batasunari buruz, ate bat.

Hara zer dio Enbatak 1967-ko auteskundee-tan. Geroztik gertakari asko agitu da xede horren inguruan. Hemen ezin ditut aipa, luzeegi joan laiteke. Xehetasunak nahi dituztenek aurki ditzateke **ZABAL** agerkari ohian, 11-garren alean (1975-eko Urtarril-Otsailakoan).

Aitor dezadan ondotik euskal departamenduari ez ziola garrantzi gehiegirik eman Enbatak praktikan.

EHAS-ek berriz, ukatu gabe, gutietsi zuen, behar bada Enbataren xedea zelakoz: departamendua baino gehiago, departamendu-eskualde bat behar zela, autonomiarekin. Hortaz ez da bada frango izan dut EHAS-eko buruekin: gehiago eskatu behar genuela, baina ez horregatik besteen eskaria trabatu, aitzitik. Bakearen ukaiteko ala konbentziturik, ez dakit, pixka bat amor eman zidaten.

Arte hortan xedea bere gain hartua zuen jaun multzo ttiki batek, Baionako komertzialdegiko buruaren inguruan: hau da **Saint-Martin** jauna, hein bat euskalzalea. Horren lehendakaritza pean, Euskal-Herri departamenduaren aldeko Batasun bat eratu zuten.

Gaur batasunaren buruzagi da **Viala**, Arrangoizeko auzapeza (Biarnesa da). Beste batasun bat ere agertu da: Euskal-Herri departamenduaren aldeko hautetsien batzarra. Aitzindaria, **Berger**, Milafrangako auzapeza (ez da euskalduna, ez eta «baskoa»).

Ikus dezagun orain zein diren xede horri buruz ipar aldeko politika indarren ikuspegiak. Frantsez indarrak lehenik.

Aurka dago Chirac-en eskuin «gaullista», R.P.R. delakoa: **Inchauspe** deputatua, **Duboscq** departamenduko lehendakaria, **Ithurralde** (Donibane-Lohituzneko auzapeza), **Marie** (Biarritzeko)...

Alde daude, baina eztki, erdiko eta Giscardzale gehixenak (**Eppherre**, **Letamendia**, **Luberriaga**), salbuespen haundi batzuekin: **Borotra**, **Mendiboure** (Angeluko auzapeza)...

Erdipurdi **Grenet**, Baionako auzapez eskuindiar ezin klasatua.

1981-eko urtarrilatik, alde agertzen da P.S. Alderdi Sozialista.

Alde P.S.U. eta L.C.R.: frantsez alderdie-tan euskalzaleenak duda gabe.

Erdipurdi P.C.F., Frantzes Alderdi Komunista.

Euskal indarretan orain:

— Alde dira **Enbata** kazeta, **Izan** erakunde-a, **Ezker Berri** talde ttikia;

— Aurka: Iparretarrak;

— Erdipurdi: Herri Taldeak.

1981-eko Urtarrilaren ondarrean, euskal departamenduaren aldeko lege gai bat Parlamentuko bulegoaren gainean pausatzen dute P.S.-eko deputatuek. Kultura mailean, eskualde baten eskubideak badituzke departamendu horrek. Izenpetzen dutenetan daude **LAURIS-SERGUES** (Lot-et-Garonnekoa, sortzez Baionesa), **GARMENDIA** (Girondakoa), **LABARRERE** (Pauekoa), **LE PENSEC** (Bretoi-na)...

Lehendakaritzako botzei buruz, euskal departamenduaren xedea bere programan ezartzen du MITTERRAND-ek: 110 proposamen famatuetan 54-garrena...

Hauteskundeak

Ikus dezagun euskal indarrek nola bozkatu duten iragan udaberriko hauteskundee-tan (hauek dira lehendakaritzakoak eta deputatue-nak).

EHAS-ek, aldez aurretik, frantzes ezkerria kritikatuaren, honen alde bozkatzera deitua zuen, eskuinaren joitea gatik. Hona beste indarrak nola banatu diren.



I - Lehendakari-tzako bozkak

1) Lehen itzulian

— Ez bozkatzearan alde agertzen dira Herri-Taldeak

— Brice **LALONDE**-ren alde «Ekologia gaur» Euskadiko taldea.

— Ezkerraren alde, beraz, EHAS bakarrik.

2) Bigarren itzulian

Buruz-buru gelditzen dira bi kandidat nagusiak: GISCARD eta MITTERRAND, lehen itzulian botz gehienik bildu dutenak.

— Mitterrand-en alde mintzo da EHAS. Maiatzaren 5-ean bere nahiz desagertzen zaigu alderdi hau, «Euskaldunak» bere hilabetekaria ixileraziz ber denboran.

— Mitterrand-en alde Ezker-Berri.

— Mitterrand-en alde berrogei abertzale, ezker abertzaleko eskualde guzietarik etorriak, Herri-Taldeko batzuek barne. Hona izen ezagutuak: Mattin LARZABAL, PAGOLA, Jean HARITSCHELHAR, CHARRITTON, Gabriel OYARCABAL, J. C. LARRONDE, Auxtina MASSIGOGE, J. IDJEDER, ABEBERRY anaiak, Patxi NOBLIA, Arño HEGUIPPHAL, Ramuntxo CAMBLOG, Jean BERRIA, Jean-Pierre MENDIBOURE, François DASCAN, Michel ETCHEBER, Daniel LANDART, ET-CHAMENDY, LARRALDE, Allande ET-CHART...

II - Deputatuen bozkak

1) Lehen itzulian

— Ezkerraren alde Herri-Taldeak

— (Aldez aurretik EHAS).

Euskal-Herri barnean, lehen alditik nagusitzen da Michel **INCHAUSPE** eskuindiarra (Chirac-en R.P.R. alderdi «gaullistekoa»).

2) Bigarren itzulian

Itsas aldean:

— J. P. **DESTRADÉ** P. S.-koaren alde, berrogei abertzaleak (gero HITZA-HITZ taldea eratu dutenak).

— Halaber Herri-Taldeak (eta EHAS aldez aurretik).

Nagusitzen da Destrade.

Bi deputatu baititu ipar Euskal-Herriak, bat eskuindiarra du beraz, eta bestea P.S.-ekoa.

Estatuaz jabetu dira Mitterrand eta P.S.-eko deputatuak. Euskal departamenduaren zain gaude beti. Ez da xede horren alde bero barneko ministroa den **DEFERRE**, bi bider kazetei erran du. Aldekoak eta aurkakoak elgarrekin errezebitu ditu iragan Otsailan. Ezku-esku da biltza hemengo P.S.-tiarrak eta Hitza-Hitzekoak: 1985-eko ukanen dugula diote. Ikusiko dugu. Ez da ipar Euskal-Herriak duen arazo bakarra (ikus dezagun bereziki SEASKA-k darman borroka), baina hori ere bada.

(1982-03-17)

J. L. DAVANT

SEASKA

ZERTAN DEN



I- IKASTOLEN HAZKUNDEA: 1969tik ORAIN ARTE

Ipar Euskal-Herriko lehen ikastola 1969an, BAIONAN, irekia izan zen. Orduko euskaldun aintzek hego aldeko ikastolen bakarrik, egiten ahal zen eskola, gastu guztiak edo guztiz gehienak gurasoen gain direlarik.

Euskaldunen eta bereziki gazteek laster senditu zuten garantzia haundia zuela ikastolak, gure burua ez bestelakatzeko eta mundu moderno giroan gure nortasuna finkatzeko eta azkartzeko.

Gure mintzairaren erroak, gure izatearen erroak, nehork uste baino barnago ziren; izaitze hori, mintzaira hori galtzeko irrisku haundienean zirenak iratzartzen hasirik ikastolen beharra senditu zen. Ama-ikastolak sortu ziren. Halere hori ez aski; ttipiekin hasi lan ederra gero galtzen baita ondoko urtetan, lehen mailako ikastolak muntatu ziren, hor baitira finkatuko gure kulturaren lehen oinarriak erakaskuntza euskaraz erabiliz geienbat. Ama-ikastola eta lehen mailari segida emaitako, aurten, bigarren maila abiatu dugu.

Ama-ikastoletan ibiltzen dira 2 urte ta erdi 6 urte arteko haurrak, lehen mailan 6 urtetik 11 urte artekoak eta bigarren mailan 11 urtetik 15 urte artekoak.

Herri-iritziak (opiniore publikoak), ikastola ezin ulertuz ba du oraino ere aski lan. Bistan da, duela hamar bat urte, ikastola buruxoro edo burubero batzuen egintza bezala hartu zela. Gaurko egunean herri-iritzi horrek, guti edo aski, ikastolak ba direla ba daki, baina ikastoletaz duen ezagutza, ez doa urrunago.

Laster ordea, abertzale guztiek argi eta garbi ikusi zuten, euskara eta euskal kultura, ipar aldean ere, berriz indartzekotz, ikastola beharrezkoa eta baitezpadakoa zela.

Eta gizartesail horren oinarriaz baliatuz, emeki emeki eta urtetik urtera, ipar aldeko ikastolak ere emendatuko dira.

Huna nun noiz ireki diren:

- 1969 an: bat Baionan, ondotik Arrangoitzen finkatu zen.
- 1970 ean: bi, Baionan bat eta Donibane Lohitzunen beste bat.
- 1971an: lau, Senperen, Hendaian, Ziburun eta Donapaulen.
- 1972 an: bost, Azkaine, Uztaritze, Maule, Hazparne eta Donibane Garazi.
- 1973 an: bat, Espeletan eta bi gela berri Donapaulen eta Baionan.
- 1974 an: lau, bat Miarritzen, bi Baionan eta beste gela bat Donibane Lohitzunen.
- 1975 ean: bi, lehen mailako ikastolak biak: bata Donibane Lohitzunetara beste Angelun. Ama ikastola bat Pauen.
- 1976 an: bat, Espelete hetsi eta Kanbon ireki.
- 1977 an: Bi, Donapaulen lehen maila eta Saran ama-ikastola.
- 1978 an: bi, Mugerren eta Atarratzen.
- 1979 an: bi, lehen mailak biak, Maulen eta Uztaritzen.
- 1980 an: hiru, ama ikastola bat Bidartean, Lehen maila bat Arrangoitzen eta bigarren-maila Donibane Lohitzunen.
- 1981 an: bi ama ikastola: bat Baigorriin, beste bat Beskoitzen. Donibane Garazin: lehen maila ideki dugu.

Gaurko egunean, iparraldean ditugun 30 ikastoletan, 516 haur ba dabiltza, bi urte ta erditik 13 urte artino. Mundu ttipi horren eskolatzeko ba ditugu 57 irakasle. Horietaz bestalde ba dira 9 erakasle-gai eta 2 idazkari SEASKA batasunaren gain direnak.

II - IKASTOLAK, ZERTAKO?



Euskara galtzen ari dela, ezin ukatua.

— Etxean, karrikan, euskara gero ta gutiago erabilia da.

— Irrati, telebixta, agerkariak gehienak frantsesez dira.

— Eskola, nahiz izaiten diren hor euskal erakasaldi batzu, euskararen baztertzale haundi bat dugu.

Euskararen galtze hori badoa urrats haundiz azken hamar urte haue-tan eta horri ihardokitzeko aterabide zuzen eta ondoriotsuak behar dira. Orai arte segurik, erakaskintzan, ikastolak bakarrik dakar ihardesp-en hori.

Zenbait urte huntan frantses eskoletan ba dabiltza gobernuak ordaintzen edo pagatzen dituen erakasle ibiltariak, eskolaz eskola. Ba dakigu beren ofizioaren betetzeko dituzten baldintzak edo kondizioak ez dire-la onak. Ez dugu hemen haien borondate ona hauzian sartu nahi.

Bakarrik erran nahi duguna da: gobernuak ez duela seriozki beregain hartzen euskarazko erakaskuntza eta erakasle ibiltariari ematen dien bi-dea biziki txarra dela.

Zeren alde batetik, erakasle horiek ez ditu aintzinetik behar bezala moldatzen, eta bestetik, astean bizpahiru oren emanez bakarrik euskara-

AMA IKASTOLAK:

LEKUAK	IREK URTEAK	GELAK	ERAKASLEAK	HAURRAK
ARRANGOITZE	1969	2	2	24
BAIONA SAINT-AMAND	1970	2	2	24
DONIBANE LOHITZUNE	1970	2	2	40
HENDAIA	1971	2	2	31
DONAPALEU	1971	1	1	18
SENPERE	1971	1	1	15
AZKAINA	1972	1	1	16
HAZPARNE	1972	2	2	27
MAULE	1972	2	2	30
DONBANE GARAZI	1972	1	1	28
UZTARITZE	1972	1	1	15
MIARRITZE	1974	2	2	20
PAUE	1974	1	1	6
BAIONA HIRI ERDI	1975	1	1	19
KANBO	1976	1	1	11
BAIONA KURUTZE SAINDU	1975	1	1	11
SARA	1977	1	1	11
ATHARRATZE	1978	1	1	7
BIDARTE	1980	1	1	14
BESKOITZE	1981	1	1	5
BAIGORRI	1981	1	1	5
OLORONE	1981	1	1	5
		29	29	382

LEHEN MAILAK:

LEKUAK	IREK URTEAK	GELAK	ERAKASLEAK	HAURRAK
ANGELU	1975	5	6 1/2	65
DONIBANE LOHITZUNE	1975	5	5 3/4	53
DONAPALEU	1977	5	3 1/2	29
UZTARITZE	1979	3	2 1/2	16
MAULE	1979	3	1 1/2	7
ARRANGOITZE	1980	2	1 1/4	8
DONIBANE GARAZI	1981	1	1	5
		24	24	183

BIGARREN MAILA:

BAIONA	1980	2	4	19
--------	------	---	---	----

OROTARAT (81/09/10-ean):	— Ama ikastolak	382
	— Lehen Mailak	183
	— Bigarren Maila	19
OROTARAT		584 HAUR

BATASUNAKO LANGILEAK:

— Erakasle	55	
— Erakasle ordezkari	2	
— Idazkaritzan	2	
OROTARAT		59 LANGILE
— Erakasle gai	9	

ri, haurrek ez baitute deus funtsezkorik ikasteko biderik. Euskara pixka bat ikasiko dukete, baita ez dute inola euskaraz ikasiko. Eta hori ez erakasle ibiltariengatik, baina gobernuak hauei ematen duen erakasbidea gain, gainerik mugatua delako.

Gure herri hizkuntzak ez dezake beraz bide horretatik salbabiderik izan.

III - ZER DA IKASTOLA?

Ikastola ez da norbaiten eskola, ez alderdi batena, ez mugimendu batena, ez gizartesail edo klase batena, ez eta eliza batena.

Ikastola euskaldun jendearen herriko eskola edo eskola publikoa da. Ikastolako erakaskuntza aitamen eta erakasleen artean moldatua da. Ikastolako hizkuntza euskara da eta frantsesezko erakaskuntza mailka sar-arazten da lehen mailatik goiti.

IV - IKASTOLAK EUSKAL HERRI GUZTIETAN

Gure ikastola herriko eskola edo euskaldunen eskola publikoa denez geroz, normalki ikastolak herri guztitan ikusi behar genituzke. Baina, errealitatea besterik da. Zertarik datorren hori?

Gure ustez, bederen, kausu berezi hauengatik dira ikastolak hoin emeki emendatzen, hazten ari. Euskaldun jendeak uste baitu haurrak ikastolara igorri, gero ez duela bere bizia egiten ahalko, eskola frantses batetara doan haurrak bezain aise. Uste baitu ere, jende horrek, lehenik euskara ongi ikasi eta, gero beharbada aitamek berek ikasi duten bezain nekez ikasiko duela haurrak beharrezkoa dugun frantsesa.

OHARRA

Aurreko alean hutsune nabaria zen Gotzon Garateren artikuluan. Oso gaizki diagramaturik atera zitzaigunez parkamena eskatzeaz batera hona hemen betetako ordena: 1) 23. orrialdea. 2) 25. a, **Honek zera esan esan nahi du-tik iritzi ezkor edo da-raino.** 3) 24.a. 4) 25.a, jarri behar da-raino. 6) 25.a., **Formari bu-ruzko argibideak, hortik bu-kaerara.**

Beste alde batetik, Jon Kortazarren artikulua «Lauaxeta: Garbizaletasunetik sinbolismora» zen aurkezpen horretan esaten genuenez, eta ez «Lauaxeta: garbizaletasunik sinbolismora», azken hau baitzen testuan agertzen zena.

Zuzendaritza

Jende horrek behar luke ohartu, nola luzaz frantsesek eta frantsestu euskaldunek sinetsarazi diguten, euskaraz mintzatu edo hitzeginez, frantsesa gaizki ikasiko genuela eta frantsesa ez bagenuen ongi ikasten, jende gaizo batzu izanen ginela. Ondorioz, mintzaira bakar baten erabiltzera behartu gaituzte, eskolan bezala beste edozein lekutan, gure gogo zaurituaren goxatzeko erranez gainera, frantsesa zela bakarrik kultur hizkuntza, munduko landuena eta ederral Egun hogeita hamar, berrogei edo gehiago urte duten aitamak, atzo bezain berri balitz bezala, oroituko dira nola gaztigatuak izanak diren, eskolan euskaraz mintzatzen zirelarik, eta halaber zenbat trufatuak beste hanitz lekutan, frantsesa aski ongi ez zekitelakotz! Horrelako nortasun mendratze eta zapaltzeak ez dira ahanzen.

Horra zergatik, hanitz euskaldun guraso ez den menturazten bere haurraren edo haurren ikastolan ezatzera. Alta, herri eskola guzietan gauza jakina da egun, eta beste hanitz herri edo erresumetan baliatua: aitamen edo gurasoen mintzaira ongi finkatua edo oinarritua dutelarik beren baitan, haurrek beste mintzaira bat errezkiki ikasten dutela, eta biak berdin trebeki erabiltzen.

V Egitura ekonomiko baten beharra iparraldeko ikas-tolentzat

Ikusten denez erakasle ainitz badira iparraldeko ikastoletako haurren nonbre ttipiaren araberan. Bestalde, ezin da ttipitu erakasleen nonbrea zenbait ikastola ez hestekotz.

Ikastolen inguruan erabiltzen diren laguntzaile eta gurasoek beren denbora pasatzen dute gure elkartearen diru arazoaren konpontzeko. Ber denboran pedagogi problemetaz arduratzeko denbora eta gogoia eskasten dira arrazoin horrengatik.

Beharrezkoa ikusten dugu ikastolen arazo ekonomikoa parte handi batean bederen gurasotatik aparte konpontzeko bide baten emaitza.

Laguntza publikoa ikus genezake hiru moldetan:

1. Frantses gobernuarena

Zenbait ikastolek betetzen dituzte frantses legeak jarriak dituen kondizione batzu erakasleak estadotik ordainduak izateko, kontratu bat estadoarekin pasatu geroz. Baina, nola erakaskuntzako hizkuntza euskara den eta ez frantsesa, frantses gobernuak ez du onartzen ikastola horiekin kontratuen pasatzea.

2. Iparraldeko «Conseilu Jeneral» eta herrien subentzioak

Egitura horiek aspalditik frantses erakaskuntza ekonomikoki lagun-

tzen dute. Ikastolak zenbait urtetan egitura horiekin har emanetan jarriak dira eta frantses erakaskuntzari emaitzen duten laguntza berdina eman dezaten ikastoleri da gure galdera.

3. Hego Euskal Herrietako gobernu laguntza.

Ikusiz bereziki euskal erakaskintzak baduela egitura bat orai hiru probintzietan, Euskal Minixteritza bat, ikusiz ere beste erresumek beren gertizan hartzen dituztela arrotz herrietan beren nazional hizkuntza eskola batzuk, iduritzen zauku zuen egituratik zaukula etorriko laguntza ekonomikorik haundiena.

1981 / 1982-ko presupuestoa

Orotara, gure aurtengo konduak 4 716 940 liberetara helduko da 100-etarik 31az goituta da.

GASTUAK

100-etarik 75, Hilabete sari eta gizarte zergek betetzen dute. Alabainan, aurtun 59 langile-erakasle erabiltzen ditu.

100-etarik 3, moldakuntza gastuak.

Gaineratekoak, usaiako gastuak dira.

SARTZEAK

Azaroako biltzar nagusian, Diru Taldeak erakustera eman zuen, usaiako bideak ez zirela aski izanen aurtengo gastuen estaltzeko, Laguntza berri batzu lortu behar ginituela.

Burrasoen emaitzak, 100-etarik 18 estaliko dute.

Laguntzaileek 100-etarik 17.

Departamenduko eta Herriko Etxeetako laguntzek 100-etarik 11.

Saltzeak, Egutegieak, Langileen Ikastaldiek, uda lekuek, 100-etarik 12 estaliko dute.

Jaiek aldiz, 100-etarik 23.

Agertzen den bezala, gure presupuestoa nihundik ere ez dezakegu bete. Gainera, mementoko trezorera eskasak, seguritate zozialaren ordaintzea ez digu permititzen.

Frantses erakaskuntzako minixtroari buruz, deramazkigun urratsak laguntza eskuratzeko luzerakoak izanen dira.

Zer emanen digu aurtengo ikasurterako? Errealismoak, gauza guttiren esperoa manatzen digu.

500.000 franko egin ahal bezain laster gure tresoreri eskasak itotze-ko irriskutik atera gaiten.

400.000 franko geldituko zaizkigu eskas. Hasia dugun «borrokak» bide egin arte ez dezakegu erran ondorioak ukanen dituen ala ez diru mailan. Ez balitz, zueri bigarren laguntza baten eskatzea liteke gure xedea.

1981/1982-ko PRESUPUESTOA

GASTUAK (frankotan)

80/81-ko ZILOA	108.739,05
EROSKETAK	100.000,00
ANTOLAMENDUAK	110.000,00
ESKOLA LANKAIAK	96.000,00
HILABETE SARI ETA GIZARTE ZERGAK	3.550.000,00
MOLDAKUNTZA GASTUAK	120.000,00
ARGIA, GAZA, URA, etabar	190.000,00
JAIEN GASTUAK	200.000,00
GARRAIO & IBILTZEAK	30.000,00
GESTIOKO GASTUAK	48.000,00
UDA LEKU	130.000,00
BANKOETAKO GASTUAK	30.000,00
AMORTIZIOAK	4.200,95
	4.716.940,00

SARTZEAK (frankotan)

BURASOEN EMAITZAK	854.000,00
LAGUNTZAILEAK	787.640,00
DEPARTAMENDUKO LAGUNTZA	350.000,00
HERRIKO ETXEETAKA JAIK	150.000,00
	1.100.000,00
SALTZEAK	123.300,00
EGUTEGIAK	180.000,00
LANGILE IKASTALDIAK	140.000,00
UDA LEKU	130.000,00
	3.814.940,00
ESKAS	902.000,00
	4.716.940,00

SEASKA-ren eskariak

Gobernuko Giderrak eskuratu aintzin partido zozialixtak lege proiektu bat agertua zuen frantses estaduko populuen kultur eta hizkuntzek behar duten lekuari buruz.



Herri guzien eskubideetan ezin ukatuzkoak agertzen diren printzipio batzutan finkatzen zuten beren lege proiektua bainan porposamen konkruetan kargarik haundiena bide bazterrean uzten zuten hala nola erakaskuntzako gauzetan.

Printzipio horietan bat agertzen da gidari bezala, hori da:

«Hizkuntza baten jabe den jendalde orok badu hizkuntza horren erabiltzeko eskubidea, bere haurren hezteko eta bere kultur biziaren agertzeko. Eskubide hori ezagutua, goraiatua eta ezin eztabaidatua da».

Zer pasatzen da Euskal Herrian?

Hezkunde tresnak diren **ESKOLA - MINTZABIDE** - herri bizitarako egiturak oro, euskal hizkuntzari begira, diskriminalki ari izan dira eta gaur ere oraino hala ari dira.

Euskal herriak egiazko elebitasun baten aldera duen eskubidea gora agertu behar da. Eta errealki elebitasunera heltzeko, aspaldiko urteotan euskaldun jendeak jasan duen kaltearen araberrako neurri bereziak hartu behar dira.

Irakaskuntzaren sailean, ikastolan hasi dira, duela hamabi urte, euskal eskola tokian kokatzen, ama-eskolan lehenik, lehen mailan gero eta bigarren mailan gaur. Euskal Erakaskuntzarako.

Gure ustez, egoera horrek, zuzenesten ditu agertzen ditugun eskariak, bai eta delako legegaiari egiten diogun erantzuna.

Lehen eskaria:

Gaur, Frantses herri-hezkunde zuzentzen duen legediak, frantsesa baizik ez du ezagutzen erakaskuntzarako lehen hizkuntza bezala. Guk eskatzen duguna da, euskarazko hezkunde, eskolako mail guzietan, legeztatua izan dadin.

Alabaina, zer heinetan gaude, sail horretan?

Atzoko administraritzak Estaduko diru-laguntza guziak ukatu zizkigun, erakaskuntza osoki frantsesez egin behar dela erranez. Eta kontratuz baliatzeko, proposatzen zigan printzipio hori aplikatu genezan, oinarritzko ikasgaiantzat eta euskara erabili bigarren heineko ikasgai batzuen-

tzat.

Lege hori beti bizirik dago. Gorago aipatu dugun legegaiak, horren ezetzazko merezimendua ba luke, ama eskola eta lehen mailetan. Ez du halere, euskarazko hezkunde mail guzietan legeztatze beharra hain argi agertzen.

Bigarren eskaria:

Euskal gizartearentzat, elebitasun erreal baten eskubidea. Eta euskarazko hezkundearen legeztatzea, Euskal-Herriari doakion erakaskuntzarako heri-zerbitzu bat zutik emanez.

Bi erakasbideren zutik ematea eskatzen dugu:

- Euskarazko erakaskuntza bat, frantsesezko erakaskuntza on batekin.
- Frantsesezko erakaskuntza bat, euskarazko erakaskuntza on batekin.

Sail honetan, oroitarazten dugu, Euskal hizkuntzaren eta kulturaren Araudi baten alde, bildu den «Kultur Biltzarreko» erakaskuntza batzordeak egin duen lana. Lan horretan parte hartzen dugu guk ere, Ipar Euskal-Herriko beste kultur talde eta erakasle sindikatoekin.

Biltzarre horretan parte hartu duten etariek gehienak ados jari dira, bi burutako erakaskuntzabide bat eskatzeko Euskal Herriako. Eta hori Hezkunde Herri Zerbitzu beraren baitan: euskarazko erakaskuntza frantsesaren ikaskuntzarekin eta frantsesezko erakaskuntza euskararen ikaskuntzarekin.

Printzipio horren aplikabideak oraino argitu gabeak dira. Eta F. E. N./S. N. I. izan da osoki sistema horren kontra agertu den erakunde bakarra.

Hirugarren eskaria:

Eskubidea eta legea ere, bi erakasbide horien sartze-ateratzeetan, xantza berdinak aurki ditzaten baliatzaileek.

Laugarren eskaria:

Ikusiz gaurko euskal gizartearen berean, zer egoera desabantailatuan aurkitzen den euskal hizkuntza, eta hori herri-botereek daramaten politika gatik, berez doana da, euskarazko erakaskuntzak neurri normalak eta arraroak behar dituela, frantsesezko erakaskuntzaren aldean.

Bosgarren eskaria:

Gobernuari, berehala eskatzen dioguna hauxe da:

bitartean eta berehala, euskal eskolaren hastapena den SEASKAren dirualdea beregain hartzea. Denbora berean, eskatzen diogu ere, erabakiak hartuko dituen batzorde bat izenda dezan, SEASKAren batera euskarazko herri erakaskuntza antolatzeko.

Hola dugu ikusten euskal erakaskuntza publiko baten finkatzeko bidea euskal-herrian. Berez doa orduan SEASKA bere funtzioa oraitoki desberdina lukeela.

SEASKA 1982ko martxoan

Gau eskolak iparraldean



Gau Eskolen historiaz hitzegiterakoan Ikastolen mugimendua aipatu behar, honi loturik baitoa hasiera-hasieratik. Ikastoletara beren haurrak bidaltzen zituen gurasoak hasiko dira euskara ikasi nahirik, haurrek ikastolan ikasitakoa etxe barruan behintzat gal ez zezaten. Gau Eskola klaseak beraz, 1970ean sortu zirela esan dezakegu (Ipa Euskal Herriko lehen ikastola 1969an irekitzen da).

Klaseak leku aintzietan ematen ziren, taldeka eta lagunaren artean batez ere, noizean behin ikastaldi luzeak antolatzen zirelarik. Hemen ahan-tzeinezkoak ditugu IKAS bezelako batasuna edo eta MENDE BERRI el-kartea, eta zenbait pertsonen izenak, ixilean eta inolako laguntzarik gabe klaseek aurrera jarrai zezaten ahalegintzen zirenak. Guzti hauek Gau Eskolen historiaurrera osatzen dute, nolabait definitzeko eta lan astuna egin zuten helduentzako klaseak erakunde batetan elkartu artean.

Orduan hasten da Gau Eskolen gaurko historia, 1980eko ekainaren inguruan, erakunde bezala eratzen delarik eta liberatu bat lortuz. Liberatu horrek oraindik horretan jarraitzen du eta Koldo Ameztoi dugu, Lantxo honetarako zehazkizun guztiak eskeini dizkiguna.

Iparaldeko Gau Eskolak sortzeunetik lotu dira A.E.K.ri, honen bost-gairen eskualdea osatuz Euskarak eta euskararen irakaskuntzak ez dute

1981 / 1982 ikasturtean

- idazkaria liberatua
- 70 irakasle
- 30 zentrotan ematen dira kaseak (Parise, Bordale eta Paue barne).
- 671 ikasle

298 ikasle	lehen	mailan
201 ikasle	2	mailan
101 ikasle	3	mailan
54 ikasle	hobekuntzan	
17 ikasle	alfabetatze mailan	

mugarik ezagutzen eta A.E.K. dugu honetan adibide ezaguna. Hasierak gogorak izan ziren, «ni hasi nintzenean inork ez zekien Zuber-**roa, Donibane Garazin eta abarretan gau eskolak zertan zi-
ren. Gehienera, ba omen zirela, aipatzen zen-komentatzen du
Koldok— Orduan nire lana non zegoen jakitea izan zen** «Mo-
gimendua kostaldetik abiatu zen, behar haundia sentitzen baizen, baina
emeki emeki Iparralde osora zabalduz, Zuberogan hain hedatua ez egon
arren. Baina hedapen honek ez du esan nahi ez dela eskakizunik, eskaki-
zunak betetzeko adina ez dutela baizik.

Oraindaino herrixka eta hiritara zabaldu da mogimendua, baina kla-
seak lantegietara zabaldu nahiz harremanetan hasi dira pausu berria
emateko. Klaseak ez dira horretan geldituko. Hegoaldean euskaltegien
eragina ikusirik alde honetan ere horrelako zerbait experimentatzen hasi
dira, Bionatik hain zuzen, hego aldeko irakasle den batek bultzaturik
«**Hortarako hemen iparraldeko jendea ez baizen oso bero**»
Irakasle honek lehen mailan espermentatu du du euskaltegi bat.
Baionan eta orain bigarrena hasi delarik finkatuz doa pozesu osoa
sendotzeko asmoz gero iparralde osoan zabalduko lirateke euskal-
tegiak. Euskaltegiek gau Eskolen lana azkartu, arindu egingo lu-
kete zeren diferentzi nabaria dago asteen hiruzpalau edo hamar-
hamabost ordu saitzea. «**Gau Eskoletako ordu horiek ez dira
aski euskara ikastera ailegatzeko eta Euskaltegien bidez
urte batez jendea euskaldundu ahal da**».

Elkartearen egitura

- Biltzan Nagusia (ikasle, irakasle eta laguntzaile guztiak)
- Zuzendaritza (eskualdeetako arduradunak + Bulego ttikia + lantal-
deak + arduraduna)
- Bulegoa edo bulego ttipia (lehendakaria, diruzaina + idazkaria +
arduraduna)
- Bulego erabakitzailea (lan taldeak + Bulegoa + arduraduna).
- **lan taldeak:** Didaktika talde, taldea, Diru taldea, Informazio tal-
dea.

Gau eskolek aurrera jaoanik ere, beren akatsak dituzte. Giro fal-
ta esaterako. Honetan hegoaldearekin parekatzen dira, klaseetatik
kanpo ikasleak ez baitu euskaraz egiteko girorik lotzen eta euskara
ikasi eta menperatzeko kanpoan ere giro euskalduna behar du, kla-
sekoa ez da nahikoa. Prolema hau gairatzen irati berrien ardu-
radunekin jarri dira harremanetan, euskal irrati hauek ikasleari
etxean giro euskalduna emango diote eta, neurri batetan, klaseeta-
tik at ikasleak izango luka beste euskal ingurumen bat. Baina ara-
zoa ez da horrela konpontzen eta kaleetan behar den giro euskal-
duna lortzen ahalegintzen dira, Baionan esaterako.

Irakasleen formazioa da beste kezka bat, orain arte bakoitza
bere aldetik ibili da, ahal izan duena eginez, baina batasun premia
ikusten da, esperientziak azaldu eta irakaslearen formazioa ho-
beagotzeko. Didaktika arloan eta gaiari loturik A.E.K.ren
«Urrazpide» aldizkariak eta beste erabiltzen dituzte beren klase-
tara egokituz. Baina «**irakaslearen arazo bideratzea izan-
go da gaurdanik gure ardura haundiena**». Honela ihasko es-
perientziari jarraiturik aurten udako astebeteko ikastaroaz gain,
irakasleek hilabetero izaten dituzte bilerak eta asteondar batzutan
urtean zehar.

Laburtzeko, zeren euskararen irakaskuntzak dossier berezia be-
harko bailuke iparraldeko gau Eskolen kezka nagusiak hiruzpalau
dira gaur: 1. Hegoaldeko didaktika esperientzia berenganatzea. 2.
Euskaltegiaren esperientzia ezagutzea. 3. Ikasleari ingurume eus-
kalduna ematea. 4. ikastaldiak (ikasle nahiz irakasleentzat).

Hortik aparte diruarena dago noski, dirulaguntzanik ezaz kexa-
tzen dira. KORRIKA kanpainatik diru mardoska heldu zen ipa-
rraldera baina estamendu ofizialek ez diete laguntza dexenterik
ematen eta ikasleen kuotak ez dira nahiko gastuak betetzeko.


IPAR EUSKADIKO II ASTEA

Martxoaren 24, 25, 26 egunez Deustuko Unibertsitatean kultur aste labur hau ospatu zen bertako Euskal Kultur Mintegiak eraturik. «Ipar Euskadiko Lehen astea»-k utzitako hildoari jarraituz, Ipar Euskal Herriaren ezagutza osatuz joanik eta alde bietako errealitatea urbiltzen saiaturik etorri zitzaigun Iparraldeko zenbait jende bi gai nagusitaz hitz egiteko. Bestaldeko politika egoerari buruz Maurize Borthairu eta Jokin Apalategi izan genituen mahikide, Jon Gonzalez abokata azken momentuan ezin etorririk; eta kulturaren bilakaeraz Piarrez Xarriton, aita Lafitte, Jean Haritschelhar, Manex Erdozaintzi-Etxart, Jone Etxeberri eta Miren Intxausti (azken bi hauek SEASKAko andereñoak) mintzatu ziren.

Hirugarren egunean, Martxoaren 26an, Iparraldeko kantari eta dantzari batzu bere zuten «Ipar Euskadiko II asten»-ren programa.

IPAR EUSKADIKO II ASTEA

Deustuko Unibertsitatean



antolatzailea: Euskal Kultur Mintegia

POLITIKA

Gai zabal honetaz bi puntu nagusi azaldu ziren, elkarrizketara pasatu aurretik, hots, sindikal presentzia eta borroka M. Borthairuren eskutatik eta abertzale mugimenduaren gaur egungo egoera, Jokin Apalategik aurkeztuta. Esandako guztia idaztearen ezintasunean aspektu nabarmenagoak azpimarratuko ditugu.

Zertan den sindikal borroka? Borhairuren irudiko, lan eskakizkia (benetan larria: «mirakulo bat da gazte batek eskola uzten duen laster lana atzemaitia») eta prezioen gotiki-joatea. Abertzaleek ez dute euskal sindikatarik osatu, oraindik frantsesetan ekin egiten dute.

Eta zertan den abertzale mugimendua gaur gaur gaurkoz? Jokin Apalategik bi joera nagusi bereizi zituen. Alde batetik, IZAN eta bere erakunde adar diren Hemen, Erein, Herriko —behin ere ez politiko bezala definiturik—, ENBATA aldikaria eta HITZA HITZ (euskaldunen izenean sozializteko elkarrizketa bideratzeko sortua) kokatzen dira, euskal departamentuaren eta kultur tradizio baloreen defentsaileak izanik eta baita Miterrand-ek egindako ekonomia puntu zerrendaren posibilitateen jarraitzaileak.



Beste aldetik, bigarren politika joera osatuz, HERRI TALDEAK («gaur talderik handiena, zabalena eta azkarrena, gazte-dian errotuena eta nolabait aurrera begira indar gehiena agertzen duena»), Mendeberrri eta talde armatuak (Iparretarrak «EZ, Hordago») daude kokaturik. Talde hauek holan erraten dute: «euskal departamentuaren eskabidea mugimendu abertzalearena bezala ezinoinartzekoa da, zeren frantses estatuaren egiturazko eskaintza bat eskabidetzat hartzea babilizake». Gero, kultura mugikor lez baloratuz garrantzia ematen diote zapalkuntza kontzientzari eta aldetzeko borondateari, kapitalismo sistimaren hausketaren baten alde agerturik.

Azalpen hauen ondorioz Paulo Iztueta moderatzaileengandik eta publikoengandik sortutako galderen halako gaiak planteiatu zituzten eta holako erantzunak ematen zizkieten mahikideek :

Sozialismoak erakarritakoa

Zerbait on, gehienbat errebotetaz: sei euskaldun gazte libratzea, «Cour Sécurité de l'Etat» delakoa deuseztatzea, nazionalizate batzu... Baina euskaldungoari bereziki ezer gutxi: ez departamenturik, ez Seaskari laguntzarik, ez errefuxiatuentzako kartarik... nahiz eta, hori bai, extradiziorik ez eman.

Gaiteizeko gobernua

«... ez da ikusi han euskal gobernurik, ez da ezagutzen, ez da aipatzen». (Jokin Apalategik). Kontrapuntu moduan beste eritzi hau eman zuen ere: «asko egiten duela, anitz errefuxiatuak, gaur sekula baino gehiago eskapatu joanak, horiek duten presentzia eta dituzten arazoak eta haremak beste guztiak izkutatzen dituzte».

Baigorriko gertaera

Honetaz Iparraldean abururik zabalena: «euskaldungoaren interesaren bila dabiltzana ez dela, baizik kanpotiko talde batzuek egin dela». Seaskaren kontrako erasoek duten explikazioa honetan datza: SEASKA-ren prestigioa goratzen joanik eta Seaska abertzalegoaren muturra izanik «beldur dira SEASKAren bide abertzalegoaren erreindikazio guztiak herrian onartuak izango direla, orduan hori ito, zikindu nahi dute».

Burruka armatua

Nola argitu burruka honen sortzea? Bi faktore kontutan hartze-koak dira: ETarentzat eta hemengo burruka estilorentzat hango gazteek euki duten izugarriko admirazioa eta gazteen egoera soziologiko bera, alde batetik, «geroz eta gehiago errefutatzen dute loturarik Frantziarekin», beste belaunaldi batzuk ez bezala ez dute gerrarik egin Frantziaren alde, eta, beste aldetik, explotazio nabarmengo batetan bizi dira adinekoekin batera.

Posible da burruka armatu hori erakundetzea, irauntea? Galdera, galdera gelditu zen.

KULTURA



Egia esan 25ko mahai-ingurua ez zen oso mamitsua, ez zen distantzurik irten, antolatzaileak ez ginen ase bederen. Esan behar da ere faktore batzu bildu zirela mugatzen eta gutxitzen holako mahai-inguru batetik sor litezkeen fruituak: gaiaren zabaltasuna, planteamendu baten falta, inprobisazioaren baliabidea, batzuen aldetik azken datuen ezagutze-gabea...

Hala ere zenbait interesgarri ezaguterazi ziguten mahikideek. Guzti horretatik, lekuak mugaturik, laburpen bat egitera goaz.

Komunikabideak

Estatuaren komunikabideetan euskarak duen lekua zinbrikia izan da. Giscard-ekin eta da sozialistekin: irrastian, goizetan egunero 5 segundo, eguerditan 5 minutu eta asteen behin ordu erdi bat; telebistan gutxiago. Sozialistak etorri gero egoera pixka bat aldatu da irrati libreen ezartzearekin. Xarritonek aipatu zuen bi euskal irrati: Aturri Irratia («18 ordurik 2-4 euskaraz») eta «Gure Irratia» (Milafrangoan, euskaraz bakarrik ari dena). Ahaztu zitzaion barne aldean sortutako irratiak: Irulegiko irratiak (emankizun gehienak euskaraz). «Maiatz» aldizkaria aurkeztean ez zuen betearen eman eta Herria-z mintzatu zenetik aparte ezer gutxi esan sen aldizkarietaz (beste batzuen arte «Herriz herri» ahaztuz).

Hizkuntz arazoak

Euskararen eta euskal kulturaren normalizazioarako izan diren zenbait proiektu aipatu zuen J. Haritschelhar-ek, zentratuz berak aparte hartzen duen «pour léstatut de la langue et la culture basque» delakoan (hiru printzipiotan oinarrituta: hizkuntza guztiak unibertsalak dira, diskriminazioaren kontra eta gaitzaren ordaindu beharra) eta baita sortutako «Institute Basque» Bordeleko Unibertsitatea.



SEASKA eta bere egoera

Jone Etxeberri eta Miren Intxaustik, Donibane Lohitzuneko ikastolaren bi andereñoek, datu interesgarri batzu eman zuten Seaska-ren indarra eta egoera ulertzeko: 600 haur eskolaturik, haur eskolatu guztien %4-5a; lehen maila ez zen aski eta joan den urtean bigarrena hasia da.

Nola ordaintzen da? Familiko eta diru sortzearen arabera (%3a) eta diru sartzek? subentzioetatik %13a, saltzen dituzten gaztetatik %14a, gusasoek ipiniitakoa %20a, laguntzaileek %20a eta festetatik %33a. Azkenik, Jone Etxeberri-ren hitz batzu: «ikusten dugu, alde batetik itoak garena, beste batetik ikusten dugu itoak izanik ere bide hortan segitu behar dugula, ez du balio ametsik egitea ikastolik ez bada eskuara galduta da».

JAIALDIA



Azken egunean, 26an, ikusteko eta entzuteko Iparraldeko kultur lekukotasun bat. Bi motatako musika dastatzeko aukera genuen, alde batetik Anje Dulhalde eskeinitako kantuek —egungo eta munduko musika batzuen influentziak asimilatuz— eta, bestetik, Etxamendi eta Larralde kantatutakoak —bertsolaritzari lotuak, erritmo zaharrak erabiliaz—. Damuz ezin zuten etorri Martikorena anaia-arrebak. Urdiñarbeko dantza taldeak, biziki ontsa, maskaradaren zenbait dantza auztezu zuen.

Gaueko 10,30 etan amaitu zen jaialdia, joan zen «Ipar Euskadi II astea». Euskal kulturentzat, euskaldunen harremanentzat baliogarria izan dadin esperoan esan dezakegu ere Ipar Euskal Herriaren ikusmena ez dala osoa izan eta baita gazte mugimunduaren gazteek aurrera eramaten dutena gutxi agertua izan dela, batez ere kultur mailan. Baina hutsuneak, betegabeak eta gauza berriak hirugarren aste batetarako utziko ditugu.

82/03/29

EUSKAL KULTUR
MINTEGIA

Ondarrezko gaztelua

Hogeigarren mendearen etorkizunari begira gaudenek, Euskal Herriarekin ba dugu ekai bat amesgarria. Arrago edo melting pot arras adierazgarria. Gizarte guztiek aldakuntza gaitza jasaiten dute: berrogei ta hamar urtez, eta hamalauko gerlako bolbora itsugarria profet, sartu gara benetan elektrikaren oinak bezala atomo hutsen ibilketa harrigarrian. Euskal Herriko etxe eta inguruko bizi zirkulazioak harririk egon dira, lehen epe batean. Harriturik eta gero puskatu, ondar bat sortuz.

Ondarrezko isiltasunez

Oro berdín segitu zen, hasieran. Etxeetako gizonak gerlara; neska sehi zerbitzuetako lanetara. Hirien lillura. Herrietan, ondarrak: gizaki atzeratuak? Atzeratuak, baina euskaldunak.

Bizi eremuak, denborak, bahi batek bezala irazkindu ditu. Hogeigarren mendea eta euskal bizia, ez dira laster berean iragan. Mende lagarri honek, ondarrezko gaztelu bati uhainak sortzen dizkion hutsune desberdinak bezala, aintzinetik ezin asmagarriak, sortu dizkio. Iparraldeko gizarteak, hutsune berdintsuak daduzka. Mende zaharretako egiturak gelditzen zaizkio. Hitza eta isiltasuna. Ama edo aita batek semea edo alabari dion hitza edo ez hitza. Isiltasun euskaldun horren erran nahia, hogeigarren mendearen ondarrerako gazteek gutiesten dute, okaztagarri edo higuigarri ez daukatelarik. Isildua, hura ere, mintzaira bat dela, jende prisatuek eta zapartakalariak ez dute konprenitzen ahal. Erran gabe doanaren neurria, populu baten sekretu minbera da. Etxe batean, gehiagoko adierazgarri ez den isiltasun hori sartzen denean, itxuraldatzea sortua da. Erori da gure mundua, batzuek erranen dute. Erori da, uhainak zeharka ondarrezko gaztelu kondentatuen oin harrisia bezala.

Gure herriko gizarteak osatzen duen gizaki atzeratuak ba da aipamen. Hortarik ateratzeko, atzetik aurreratzeko, gibelatik aintzinzatzeko, bideak zilatzen dira. Nahi edo ez, aintzinzamen-dua egiten da. Erlojuak molde berezi batez baitabilta, ezkerretik eskuinera, lehenagokotik gerorakora. Kronos jainkoak greken denbora manatzaren zuena, gure mendaren zatikatzailea eta ildo egile jarria da.

Ondarrezko gazteluaren harresi oinek, goitira zoan uhainaren lehen jazarraldiak jasan ondolan, bigarrena ukanen du, jausterakoan. Gero, baina jasanen du. Anartean, inerziatzko lanak: uraren erorketa bere gatz jaloeekin. Bigarren uholdearen beha: eta zer egin anartean. Eta laster egin behar. Lotsagarri. Gazteluaren ondarrak, geldikizunak, atzeratuak deitzen dira. Eman dezagun. Joanen dira ere ondar bihi asko, inguruko ondartzarekin, leuntasunarekin amilduak.

Gazteluaren bakartasuna ere lotsagarri: ezin da lehenagokora itzuli. Euskal melankolia eta ezinbestea. Ondoriotzat: Nafarroaren ordoki haizetsuetan nahiaren eta ezinaren borrokak...

Ahetsaren lillura eta biziaren indarrak beste eremu batzuetan badabilta. Mundu mineralatik bestalde. Mende luzeak leundu harrizka borobil lizunen eta ur gazi mugikorraren fantasia zoroen arteko harremanak ez dira biziaren ekai orak.

Urak eta haizeak desegin gazteluaren dorre hutsetan gelditzen da hitza.

Hitzarekin

Euskaldungoa, euskaldunak zer diren, betiko gure arazoa. Izan ala ez izan, euskaradun mundu bati bizi eman nolabait.

Irristatzen zaigun behatzen artetikako ondar fin horren isurketa latzgarria zaigu eta, erortzearekin, ez du gaztelu handirik berriz sortzen. Haizea eta argiz egartsu den biziaren sustriarekin, hala ere, ondarraren heriotz mineralak jotzen du.

Atzeratuak ginelakoan edo ondoko mundu batetakoak edo menperatasunaren umeak, edo... bazter bizi batean jarria da euskal mundua. Plazara nahi duelarik atera, han ditu forma publikoak, bere kontrariotasunaz orratuak: mintzaira, eskola, irrati, telebista, agerkari frantsesak. Ate ondolan beraz gaude: lertsunak bezala hego egun batez, uharka euria gure munduan. Xortaka, uholdeka, euria gure munduetan, uhainaren antzean, gure munduko gazteluak deseginez. Gure aditz zaharrak, ondarrezko gazteluak bezala... aditz forma hutsunedenak. Ahatziak. Oroimenaren gazteluak errekarra.

Plazan dugu borroka egun. Hitzaren hartze-ko. Ari dira sort-en biziaren sustriaren lehen oziak edo begiak.

Hainitz badabilta batasunaren mitoarekin, bizia, desberdintasunaren izenean eskatzen dutenek, batzuetan, etxean berean ez dute onartzen. Nahi ta ez, desberdintasunean bizi gara. Bizia bera desberdintasunatarik sortu zen. Gerorako bizia atxeki nahi badugu, diferentzia horik beharrezkoak dira. Geroko ametsak gaurko origarriez jantziko baitira ere. Horrela, iparraldean ateratzen diren lan eta ekin-tza desberdinen izaitea biziki pozgarri da. Bakoitzaren berezitasuna, biziaren begi berri bat da.

Frantsesezko irrati, telebista, agerkariaren sistema ez dugu bat ere etsai. Lehertzen gaituztela, oharpen aisea da. Gure bizia interesgarriagoa dela, guri da erakustea. Ahalik gabe, eta menperatuari zor zaiona ordaindu gabe ari gara, ez da dudarik. Gure bizi nahia, hori baino handiago da. Gure buruak gure gain hartuz ditugu plazak gure munduaren adierazgarriez bete-ko.

Gazteluak berea egina du

Batasun nahia arriskugarria da. Beharrezkoa noaizbait buruan, batasun eta berdintasun bi konzeptuak nahasi dira. Sortzailaren, kreatzailaren egitateak, nor beraren izaitea gordeko duen espazioaren beharra ba du. Bestelako harremana menperatasun bilakatzen da.

Gisa hortan, mintzaira bat, kultura bat, espazio berezi batean baizik ez ditazke bizi: populu batek sortzen duen izaitean, izaita batean beraz. Haren alito amultsuan. Ere mu hori nazioa ditekela. Nazioa bat, nahi bat denaz gero, onar dezagun hala ditekela.

Iparraldeko gure txikitasuna gatik, hori egiztatzan dugu. Txikitasuna zer da, funtsean? Masa mendean bizitzen gara, masa lokarriekin, mass media hitz pareak azaltzen duenean. Txikitasuna gaitzetsia da: burutik behera sakatu digute hori. Euskal izaitteetan ere, bazter biziek ez dutela irauteko ahalik, egiztatu nahi digute. Begiak edo oziak, tzikiak izanak gatik, haletarik dira zuhaitzak espaziora zabaltzen.

Ekintza, liburu, agerkari, irrati, poema guztiak, udaberri honen atarrian, begi esperantzaz beteak dira.

Ondarrezko euskal gazteluak berea egina du. Biziaren amodiozko oziak edo begiak handitzera utzi behar dira. Haurrak bezala. Beren bidea eginen dute. Maita ditzagun.

L. ETXEAHARRETA

EKONOMIA

ETA

ABER-

TZALE-

TASUNA

Baskongadasetan alderdi maioritariao dugun PNV hainbat kontradiziotan sartuta dagoenez egunetik egunera kontradizio horiek jendearen agerian jartzen dute. Beharbada kontradiziorik garrantzitsuena bere buruak euskal burjesiaren interesen (ekonomikoen) alde saiatzen direlanean datza, euskal berriak esaturiko askatasunekin topo egiten duten interesak eta, bide batez, bere basteen gehiengoarekin.

la argitzen dugun arazo hau. Euskal burjeseriak Euskal Herriko hegoalde osoan ez du bakarrik operaziogunetzat Euskal Herriaren zati hau, estatu espainol osoa baino. Nolabait esateko langileentzat Euskal Herria klase burrukarako esparru autonomoa den bezalaxe euskal burjesiarentzat kapital akumulaziorako esparru autonomoa da Hego Euskal Herria. Arrazoi honegatik hain zuzen behar du euskal burjeseriak estatu espainoleko botere ekonomiko eta finantzieroekin harreman estu eta sendoak eduki. Eta autonomia zabal batek, eta askozaz gehiago independentziak, hoztu egingo lituzke, bere interesen kontra, harreman hauek. Gainera, hizkuntza erlazio ekonomikoetarako oinarritzko elementua denez gero, eta gaztelania nagusi, dominatzaile den neurrian, euskara baztertuta, zokoratuta dago bigarren maila batetara. Hortik dator burjesia honek Gernikako Estatutoa onar zezan, deszentralizazio administratiboa besterik ez den izan hori eta euskal herriak dituen prolemetatik bat ere konpontzen ez duena. Beronek argitzen ditu baita bere euskararekiko jokabide hotza eta batuaren kontrako eritzia.

Euskal burjeseria ez da nor Euskal Herriaren independentziaren ikurriña eramateko, bere klase instintuak ukatzen baitio. Badaki jakin

ere herrien independentziak artekak sortzen dituela sistema kapitalistan, zulatu egiten duela bere ekintzetarako beharrezko duen ingurugiroa. Eta badaki arrazoi berberetatik langileek bakarrik desira dezaketela independentzia, klase instintuak eta abertzaletasunak independentziaren alde burrukatzea kapitalaren kontra saiatzea dela esaten baitie. Horregatik Euskal Herria sozialista beharko da izan independenttea, askatua bilakatzeko.

Euskal Burjeseriak EEE (Europako Ekonomi Elkartea) delakoan sartzea behar du bere irabaziak gehitzeko, bere krisia gainditzeko. Independentziak behin betiko arriskuan jarriko luke. EEEan sartzea. Eta horretarako lan-

tegi ezerrontagarriak itxi behar dituzenez ez du lotsarik etorkizunik gabeko lantegiak iltzen uzteko, milaka euskal langile langabeziaren infernura bidaltzea eskatzen ba du ere.

Burjesia honek harreman sendoak dauzka oligarkiaren eta bere diru sarteak hortik datoz gehien batez. Iberduerorekiko loturak Baskongadasetako Gobernu-PNVren gaurko jakabidea azaltzen du, Lemoiz buruzko arazoan, lotsagabeko baietza eman diolarik. Interes ekonomikoak beste guztien gainetik daude, nahiz eta honek USAren dependentzia ezarri (zein, begira, oso pozik izan da onartua. PNVren buruaren zati on bat amerikazalea da, lotsagabeki, eta El Salva-

dorreko arazoa lekuko) eta izugarizko arrisku nuklearra, militarizazioa eta Euskal Herri polizial baten finkapena.

Bide beretik OTANi emandako baietza. Duela bi urte Arzalus eta Unzuetak Ameriketara egindako bidai, amerikazale ezagunak biak, PNVren Euskal Herria erre-gionalista eta inperialismoari makurtutako proiektuari bul-tzakada bat izan zen. Eta burjesiaren interesek estatu osoaren kontrol militar yan-kia eskatzen dute, eta batez ere yankien menperaketarako herririk arriskugarriarena: gurearena.

Ez gaitzan harritu ba, PNVren buruek noizean behin beren baseei halako zartadak eman ditzaten (usoan manifestazioa, Gernikako Estatutoaren onartze, bakearen aldeko manifestazioak, konstituzioa onartze, euskaltegi batzuren txakurtegi bihurtzea,...), bihurriak, hezteko zigorrak... eta horrela alderdia garbitu. Zeren badakite eskuin aldetik UCD eta beste botuak lortuko dituela. Baina guzti hoenk giro erantzurkorra sortu du, etorkizunearan prolema ugari sor ditzakeena.

Joku instituzionala onartzeak EEri gertatutako prolema prolema berdintsuak dakartza. Ez dezagun ahantz konstituzioa sistema kapitalistaren aurpegiaren antza eta irudi dagoela egina. Men eginez onartzeak gaindituezinezko kontradizio multzo itzela sortzen du. Baina bidea luzea da eta burrukak irakatsi egin beharko. Independentzia eta euskal gizarte sozialistaren aldeko burrukak irauten ba du-eta iraungo du-berak erakarriko ditu merezi duen defendatu projektu politiko bakarraren aldeko indar guztiak: Guztien gainetiko katerik gabeko Euskal Herria.

M. KORTA

KOXXKORTXU



ERRANDIA ETXETA

BIZKAIERA ERE EUSKARA BATUA DA (I)

Fenix hegaztiaren arazoaren antzera, bukatutzat emana zen kontu hau, berriro plazaratu da, indarberiturik gainera. Esan liteke, euskararen batasunaren lorketa, ia ziklikoki errepikatzen den burruka bat dela. Agian, espiral baten antza hartu du, erdigunetik gero eta hurbiltzenago goazelarik. Ni horrela delakoan nago.

Edozertara dela, azken bolada honetan harro dabilta, bizkaiera euskara batuari kontrajarri nahi diotenak. Bizkaiko eta Gipuzkoako euskalkiak alde batetik eta euskara batua bestetik elkarren etsai direla azaldu nahi digute eta gurutzada berria sorterazi gura dute Euskaltzaindiaren aurka, bizkaieraren —eta euskararen— likidazioaren errudun nagusia delakoan edo.

Planteamenduetan oker dabiltzala uste dut eta horixe da, hain zuzen, artikulua honetan eskematikoki adierazi nahi dudana.

Euskara batuari buruzko eritzi okerra

Batzuk eritzi eksklusibista dute euskara batuari buruz. Izan ere, Bizkaiko askok euskara batua h-dun gipuzkera edo dela uste dute; edo beste modu batetara esanda, euskara batuaren osoketa hauxe dela: Gipuzkerazko aditza, h letra eta euskalki guztietakoa dena. Horregatik uste dute, euskara batuarekin euskara bera murriztu egiten dela, pobretu egiten dela, batasunarekin euskalki guztiek galdu egiten dutela. Eskema batez adierazteko, alboko irudian agertzen den legez ulertzen dute euskara batua:

Ostera, nire eritzi, arazoa modu biltzailez zuzendu behar da. Batasuna ezer bada, biltzeko eta batzeko pentsatua da eta horregatik beragatik puxkak biltzeko, bateratzeko eta guztion onerako erabiltzeko burutua.


Hortaz, puxka guztiak elkarri loturik eta elkarrekin bildurik egiten da, nahiz eta lotzean era bikoiztu edo hirukoiztuak batu (ortografia, aditza, hitz berberaren itxura desberdinak,...) eta kasu horietan forma bakarra hartu. Nik neuk hurrengo eske-man adierazten den moduan ikusten dut batasuna.

Hau da, euskalkiek ez dute gorputzik galtzen eta euskara batua guztiekin aberastan da. Guztiak dira euskara batua eta berau guztiez osoturik dago.

Orduan, zertara dator ortografia batua? Zertara dator aditz batua? Zertara dator deklinabide batua? Zertara dator, azken batez, Euskaltzaindiaren beraren lana, batasuneranzko lana?

tuko duenik euskalkia edo euskara. Bai, ordea, beste euskalkiekin batu eta bateratu. Oztopo bakarra ortografia bera ikastean dago, hori alfabetatze-problema delarik; guztion lan eta nekea, alegia.

2.- Aditza Honetaz ba da proposamen konkretu bat, «Euskal Aditz Batua» deritzona hain zuzen ere. Punto honetan gogorrago agertzen da eztabaida: *dizul-*



B : Bizkaiera

G : Gipuzkera

BE: Beste euskalkiak



Euskara batua

Batzuren ustez, euskara batuarekin galdu egiten dute euskalki guztiek

Zer batzen den eta zer biltzen den


Hori da guztiok argi eduki beharko genukeen, batasuna ganoraz egiteko gehinipehin. Punto guztiak agortzeko asmorik barik, eskematikoki, batasunaren eremu nagusien errepaso laburra egingo dut.

1.- Ortografia. Hitz berberak modu bakar eta berean idaztea da atal honen helburua. Ez dut oztopo handirik ikusten puntu honetan, h famatuak bere garaian izugarritzko izkanbilak sortu zituen arren, eta oraindik ere sortzen dituen arren. Konkretuki, Bizkaitik ikusita, ez dut uste idazkerak berak aberastu edo pobre-

/deutsul, dezagun/da(g)igun, pluralizatzailen arazoa (*dizkizul/deutsudaz*),... Dena dela, hor ere ez da aberastasun/pobretasun arazorik, edozein formak beraren baliokideak adierazten duen gauza berbera adierazten baitu. Beraz, hor ere ez da ezer galtzen (ahalmenik behintzat) batasunarekin, batzen eta batertzen baizik.

3.-Lexikoa Hitz guztiak ez dira mota berekoak eta horregatik era desberdinetako jokabideak erabili behar dira. Lehen mailako sailkapen batetan bi multzotan bilduko ditugu hitzak, batasunari dagokionez:

3.1. Aldaketa morfologikoen fruitu diren hitzak, hala nola *berdin/bardin*, *berri/barri*, *gutxi/gilxi* eta antzeko bikoteak. Batzutan hiruzpalau forma agertzen dira kasu honetan, batasu-



Euskara batua euskalki guztiekin aberasten da

nak batu egiten du, forma bakarra bultzatzera joz (zabaldueña, zaharrena,...), baina zabaltasun handiz, kasu askotan ez baitago forma nagusirik ez akordio-rik (*burruka/borroka* adibidez).

3.2. Gauza berbera adierazteko euskalki desberdinetan hitz desberdinak erabiltzen direnean. (*gura/nahi, elorri/jin, txarto/gaizki,...*) hitz guztiak dira baliagarri eta erabilgarri euskara batuan. Hemen, beraz, bildu egiten da -ena; eta ezein euskalkitakoa dena euskara batukoa ere ba da.

4.- Atzizkiak Atzizkiei buruz, lexikoari buruz esan dugunaren antzerako

zerbait esan dezakegu, hotz:

4.1 Aldaketa morfologikoen kasuan, forma bakarra hartzera jotzen da, adibide modura, deklinabide batua aipa dezakegularik. Hemen ere, bat hartzen da, batu eta bateratu egiten da, baina inork ez du ezer galtzen (itxuraz beste), forma guztiak gauza berbera baitira.

4.2. Gauza berbera adierazteko atzizki desberdinak erabiltzen direnean, denak dira euskara batukoak. Hau da, bildu egiten dira, beren erabilera aukeran utziz. Esate baterako, *agaz/arekin, nahi/edo* (zernahi, edozer)...

5.- Joskera, esateko mo-

«Tokitasun erabaki», «egun erabaki» eta «azken» horiek zer esan nahi duten ulertzeko. Eta «Epetakoa Bantetxe» zoragarri horretaz zer diostazue? horixe!, benetan zoragarria dela, alegia, hori ulertu nahi duena zoratzeko gai dela.

Zigorrik merezi ote dute tamainako perlak idazten dituztenak? Nik neuk astabelarriak «cum laude» emango nizkieke, bide batez lasto-fardel bat ere

duak eta beste. Honetaz, gutxitxo egin da orain arte batasunari buruz. Eritzi-rik ote dagoen? Nik neuk neurea emango dut, dena bildu behar dela esanez. Ene eritiz, edozein euskalkitako esateko moduak euskara batukoak ere ba dira eta hor daude, idazleek beren guztiaren arauera erabiliak eizateko. Normala denez, Bizkaikoa denak bertakoak erabiliko ditu naizago, konturatzeko, eta lapurdikoak, hangoak; baina bai batak zein besteak elkarrenak erabiltzeko aukera dute. Bildu, beraz, gehitu eta ez eskastu, aberastu baizik.

Bizkaiko idazleek, zer?

Bizkaian ba gara, bizkaitarrak garela ukatu barik, batasunaren bidetik abiatu garen idazleak ere. Batzuren ustez, engainatuak izan gara; mesede eskasa egiten ei diogu geure euskalkiari eta euskarari berari. Bego hortan.

Hala ere, zer bildu eta zer batu ba daukagula uste dut eta hori garbi azaldu behar dugulakoan nago. Neure eritzia artikulua izenburuan bertan laburtu dut: *Bizkaiera ere euskara batua da*. Baina, nola jokatu behar dugu? Hortxe dago kokka.

Eritzi hori Bizkaiko euskalkiaren berezitasun batzuren erabilera zentra daiteke, hots, *bildu* behar diren gauzak beldur barik bilduz: lexikoan, atzizkietan, sinonimoetan, esateko moduetan eta abarretan. Dena den, hori hurrengo artikulua batetarako utziko dut.

J. R. Elxearria



Noiz arte segitu beharko ote dugu astabelarriak ematen? Dirudienez, luzarako ditugu astopotroak solte eta honelakoak dauden tokian, ba dakizue: astabelarriak ere hurbil.

Oraingo honetan, alderdietatik aske omen den «Euzkadi» aldizkari-ko itzultzaileak eman digu aukera egokia. Eta eskerrak erdal bertsioa ere eman digula, bestela gaizki ibiliko baikin

Revista Euzkadi
EREINTZA, S.A.

Gran Via, 38-7º
Tfno. 4434112
BILBAO

Aginko zuzbaki Recibo nº	Tokitasun erabaki Localidad expedición	BILBAO	Deretara Importe	3.500,- pts.
Egun erabaki Fecha expedición	28 Enero 1982	Azken vencimiento	28 Enero 1982	
Suscripción Anual - Nº 6 al 57				
Epetakoa Banketxe Pagadero en el Banco				



OSKORRIk disko berria atera du, **ADIO KATTALINA** izenekoa. Hori dela eta ateak zabaldu eta hitza, papera eskeini nahi izan diogu OSKORRIri berari diskoa aurkez diezagun. Esan beharra dago diskoa ELKAR etxeak ateratzen duela, eta urriaren inguruan Alemanian zehar egingo duten jirarekin batera PLANE alemaniar diskoetxeak. Diskoaren grabazioa Galdakaoko estudioetan egin zuten Jean Phocasen ardurapean, aurrerantzean ere OSKORRIrekin kantaldietara joango dena, eta azken lanak Parisko «Translab» estudioetan internazional mailan hospe hundiko den Christian Orsini soinu-injineruaren zuzendaritzapean.

Baina guk geuk ere helduko diogu kritikari eta orain-hau idazten eta inprimitegian sartzen dugun une honetan diskoa kaleratu ez delarik OSKORRIri eskeintzen diogu disko berria eta diskoak suposatu duena azaltzeko aukera

OSKORRIk «ADIO KATTALINA» AURKEZTEN DIGU

ANAITASUNaren erredakzioko lagun batek gure disko (ez «diska») berriaren aurkezpen antzeko zerbait eskatu zigunean benetan esan behar dizuegu ez genekiela ongi eta zehazki nondik heldu gai azkar eta arantzatsu honi, zeren eta munduan zerbait latz, gaitz eta astunik baldin badago kantari eta musikoontzat hauxe baita, hots: gure lana hitzez azaldu behar izatea, oraindik egin berria dugun lana, kriterio eza izugarriaz, juzgatu behar izatea. Nahiz eta jendeak sinistu ez, aitortu beharrean gaude OSKORRIk ez duela autokritikarik erabiltzen eta disko berri bat argitaratzen dugunetik hilabete batzuetara arte ez dugula doi-doi jakiten nolako lana burutu dugun.

Herri honetako hainbat gauza pitxien artean hauxe dugu bat, kritika faltaz guk geuk geure lanaren kritikoarena edo egin behar izatean. Baina demagun (ez dugu uste ezbai arrastorik egonen denik ere) gizarte berezi, arlote eta barrengarri batetan bizi garela eta, hau dena ahalik eta egokien asumiturik, ANAITASUNako irakurlego ezin fidelagoa kontutan harturi, goazen harira.

ANAITASUNA hau zure eskuetara iritsi orduko **ADIO KATTALINA** kaleratua izanen zaigu, horregatik eta lerro hauk hobeki konprenitzeko instruzioak emanen dizkizuegu:


1. Eskuratu ezazue **ADIO KATTALINA** izeneko diskoa edo kasettea (kontutan har ez diotsuegula erosteko esan, eskuratzeko baino).

2. Jar ezazue disko edo kasette pletinan eta martxan jar. Gaietik bada ere entzunaldi arin bat bederen egizue.

Zer entzuten den? Ba egia esan, ez dugu uste disko honek (ez eta aurrekoek ere) gure estiloarekin haustura egiten duenik, ez eta gutxiago egin behar duenik ere. Orain hamaika bat urte euskal musikaren bide hauetatik abiatu ginenetik asmo bat dugu, hain zuzen ere gaurko euskal musika egitearena; hau guztiz formula abstraktoa dateke, anitz kantarik aitor dezake hainbeste edo hainbestetsu, baina saia gaitezen guretzat zer esannahi konkretu duen azaltzen.

Gaur egunean, bizi garen egoeran eta bizi dugun kontestuan, herri zapaldu bateko hiritar legez, gure ezaugarri berezi eta gure sustraia kulturalak egunero erreibendikatzea ezinbesteko kuestioa dugu. Euskalzaile guztiok, eta euskaldun berri garenok bereziki, hainbat traumen artean trauma orokor bat dugu; gure aintzineko, orain arteko, euskal kultura osoa besarkatu eta ezagutu nahi genuke, euskal adierazpide eta adierazmodu guztiak menperatu nahi genituzke, hoik oinarritzat harturik eta inguruko zein unibertsal diren beste influentziakin batera, euskal esperientzia kultural berriak eraikitzeko eta finkatzeko aukera izan genezan.

Zoritxarrez hori ezinezkoa zaigu; ez dugu horretarako ahalmenik, sistematikoki ukatu eta ukatzen zaigu gure nortasunaren ezaguera, historikoki herri baztertu bat bilakatu gara, eta honi guztioni beste zirkunstantzia batzu gahitu behar zaizkio gaur egunean. Mundu desarroilatu guztian zehar kontsumo boragine izugarria hedatzen da, herri guztiek bere ezaugarriak merke saltzen dituzte, beren balore-eskala galtzen dute edo, hobe esanda botere-suenaren truke alda-



izen dute. Telebistaren bidez infrakultura batukor eta estu-
pido bat barne sarrarazten digute.

Eta gu hemen, geureari eutsi nahian, dramatismo gabe
bizi nahi dugun drama honen erdian noragaberik. Hau dena
extrapolatuz gure patua zein da? Edo folklokerietan geldi-
tu, betiko kontu zaharrak behin eta berriro erabiliz, etorki-
zun gabeko baserriar edo eta mundu guztian (berdin Berli-
nen zein Buenos Airesen) egiten den musikari amore eman.
Aski al da euskaraz kantatzea horri euskal musika izena
emateko?

Gu ez gara noski ezere eta inoren juez, baina gure iritzi
personalez gure arteko zenbaitek musika zaharregia, ezer
berri aportatzen ez dutela, egiten dute, beste zenbaitek ber-
ritz euskal nortasun gabeko musika sasi modernua egiten
dute, eta beste batzuk berriz (gure iritzi, beste askoren mo-
dernua egiten dute, eta beste batzuk berriz (gure iritzi, bes-
te askoren artean, gu tartean gaudelarik) gaurko euskal nor-
tasun gabeko musika sasi modernua egiten dute, eta beste
batzuk berriz (gure iritzi, beste askoren artean, gu tartean
gaudelarik) gaurko euskal soziedade industriatsuaerentzat
baliagarri datekeen musika modernu eta era berean errotua
egiten ahaleginetan gaude.

Norberak bere modura uler dezake hau dena, gure nazio-
nalismo musikala batzuten bultzagarri gerta daiteke eta
beste batzutan berriz frenagarri. **OSKORRI**ren esperien-
tzia konkretuan behar bada esan daiteke oso ausartak ez ga-
rela izan, nahiago izan dugula segur jokatu ausardia haun-
diak egin baino, piskanaka piskanaka aurrera jotzea, eta
hori behintzat lortu dugula uste dugu. Gure ibileran dau-
kagun problema gehienak nabaritzen zaizkigu: gure ibileran
daukagun problema gehienak nabaritzen zaizkigu: gure
beldur eta inseguritateak, batzutan kontserbadore izatera
bultzatzen gaituen herrinortasun ukatuaren trauma, geure
akats teknikoak jokaterakoan, eta abar...

Lehen ere aitortu dugu normalean autokritikarik ez du-
gula erabiltzen, honekin esan nahi dugu gure kantuak berez
sortzen direla, aurretik planifikatu eta helbururik finkatu
gebe. Ia gure ikasbide bakarra jendearekiko harremana,
jendeareko esperientzia eta honek sorrarazten dizkigun



kezak izaten dira. Hoorela gertatzen da **GABRIEL
ARESTIREN OROIMENEZ** gure lehen L.P.a oso lan sin-
plea dela, zailtasun eta pretentsio musikal handirik gabe-
koa, baina era batera freskua eta xamurra; horregatik behar
bada, eta lehen disko horren esperientziak baliaturik, bigar-
renean **MOSEN BERNAT ETXEPARE 1545** delakoan,
beste puntaraino joan ginen eta disko barroko bezain astuna
egin genuen, gure ustez kaskarrena, Ondoren L.P. bikoitza
grabatu zen, jendeak **DOBLEA** izenez ezagutzen duena,

egin dugun barnekoiena, aurrekoaren etsipenez sortua segu-
raski eta igual ilunegia edo trinkoegia. Urrengoan berriz,
PLAZARIK PLAZA delakoan gibeltasun hori baztertu na-
hiz edo, kantu arin eta pozgarri zenbait sartu genuen.

Horrelakoa da ba gure ibilbidea, urtez urte, diskorik dis-
ko halako aldaketa dialektikoak jasan ditugu; punta bate-
tik besterainoko martxa horretan ere zerbait ikasi dugu eta,
gure ustez behinik behin, gero eta lan helduagoak sortu di-
tugu. Guk geure lanean hori estimatzen dugu gehienbat: na-
hiz eta gantio espektakularrik egon ez, nahiz eta bide espe-
rimental ausartik urratu ez, beti **OSKORRIK** zerbait berri
aportatzen duela eta bere lana gero eta hobekiago bururatzen
duela.

ADIO KATTALINA berri honetan zer den gogoanga-
rriena? Ba, behar bada, gure estiloaren eta bereziki gure
profesionaltasunaren finkatzea. Hau, dudarik gabe, orain
arteko lanik profesionalena dugu, **PLAZARIK PLAZA** au-
rrekoarekin konparaturik askoz sakonago eta landuagoa da,
armonia eta instrumentazio aberatsagoak, erritmo aldetik
ere konplikatua, hitz batez **PLAZARIK PLAZA** baino
zailago baina baita interesatuegoko ere; ez dirudi, hasieran
behintzat, hura bezain komertziala (komertzialismoaren
asuntua hori bati bihurria eta nazkantea gertatzen da), baina
seguru gaude **ADIO KATTALINA** berri honek arrakasta
haundiagoa lortuko duela.



ADIO KATTALINAko kantuak.

● **Gu gaituzu Oskorri:** Iparraldeko herri doinu batetan oinarri-
turik aurkezpen kantu bat egin dugu, batez ere kantaldietarako, kantu
barnean taldekide bakoitzari bertso barregarri bana dedikatzen zaiolarik.
Nahiz eta inolaz ez izan disko honen eta gaur egunean egiten dugun mu-
sikaren ezagugarri egokiena grabatu nahi izan dugu, igual broma baten
antzera edo diskoaren sarrera alaigarri gisa.

● **Guridi:** Jesus Guridik bere obra gehienetan, berak sortu zenbait
melodiekin batera anitz herri doinu erabili ohi zituen, nahiz eta askotan
nondik bilduak zituen aipatu ez. Kasu honetan guk Guridik erabilitako
herri doinu bat hartu eta egokitu egin dugu gure erara.

Ba dakigu askok ez dutela onartuko gure berritze lan hau, baina egia
esan ez zaigu gauza handirik axola. Guk horrela dakusagu eta gure eska-
ma barruan, azken melodia ezagun eta dantzagarri horretara iristeko, le-
hengo pausu eta desarrolloak beharrezkoak zaizkigu.

● **Adio Kattalina:** Disko honi izena ematen dion kantu hau Zuberoako kantu bat da. Gure ustez oraingoan aintzinako herri kantu bat egoki xamar gaurkotzea lortu dugu. Funtsezkorik aldatu gabe, gartsuki lanegin dugu kantu luze honen gainean, esku artean genituen elementu guztiak erabiliz. Uste dugu goxoki eta patxadaz dastatzeko kantua duzuela.

Albokak textuari dagokion dramatismoa ematen dio, eta saxo, bibolin eta gitarra elektrikoak gaurkotasun haundiko kontrapuntuak kosten dituzte; perkusiorako Indiako «tabla» izeneko instrumentua erabili dugu.

● **Haurrak:** Nafarroako haurren jolas xoil batetan oinarriturik Bixentek desarrollo obsesibo eta errepikagarri bat prestatu du. Beti hari berari jarraituz atmosfera berezia lortzen da, orijinal xamarra eta indar haundikoa. Ez dago dudarik haurren kantua zenak beste maila batetara iragan duela.

Amurizak bertso ironiko eta kantu orijinalen ongi girotuak eskribitu ditu kantu honetarako.

● **Euskal Herrian euskaraz:** Kantu xamurra, guk himno antzera edo asmatu genuena. Natxok konposatutako doinu baten gainean Xabier Amurizak «euskal herrian euskaraz» leinari buruzko bertsoak egin zituen.

Balada antzeko kantu bat da, kuadrilan kantatzeko aproposa; seguru asko (hori espero dugu behintzat) euskaltegietan ikasiko duten kantu bat da (A.E.K.ko euskaltegietan behinik behin).

● **Gipuzkoako buelta:** Zegama aldean albokaz jotzen zen doinu zahar bat, baina guk guztiz berritua eta tinbre desohituz horniturik. Berrezi erritmo aldetik oso landu egin dugu eta nahiko orijinala gelditu zaigula uste dugu, doinua fisik aldatu gabe jotzen badugu ere erritmoaren kontzepzioak ez du ezer ikusirik bertso tradizionalarekin.

Perkusiorako «darabukka» izeneko danbor arabe bat erabili dugu.

● **Nafarroa:** Antonek egindako melodia xehe eta sentikor bat, neurri batetan nafar jota kutsua duena. Honetarako Amurizak bertso gordin eta sakonak jarri zituen.

Iruñeko gaitariak behar zuen giroa eransten diote.

● **Kalera noa ihesi:** Ba dago herri kantu bat. «Urruti nere menditik» izeneko, baserritarren bizitze zoriontsu, paketsu eta eroso kantatzen duena; guri amorrua ematen zigun hainbeste kirtenkeria batera ikusteak letra horretan, eta zeharo aldatu egin dugu kantuaren zentzua. Nahiz eta gogor gertatu, oraingoa baserritik ihes egin nahi duen baserritar gazten historia da.

Triki-tixa estiloan baina beste instrumentuek jantzirik.

● **Oma:** Oma Gernika aldeko herririk bat da. Bere edertasunez liluraturik Polin Gurreak doinu triste hau egin zion saxofoiez jotzeko. Laino artean despeditzen da gure diskoa.

OSKORRI taldeak

MUSKARIA aldizkarikoekin hizketan

euskal Herri honetan kulturari ihardutea ez da bat ere erreza. Baina musikazko aldizkari bat sortu eta mantentzea askoz arriskugarria. Zorionez gure herri honetan ba dugu aldizkari bat, musikari dagozkion kritika eta berriak zabaltzen dituen: MUSKARIA. Aldizkari hau zertan den, nola sortu zuten eta zer nolako harrera izan duen ezagutzeko sortzaileetarako balekin izan gara.

«Hiru lagun bildu ginen, hirurak musikaz oso arduraturik, eta musikazko aldizkari bat sortzea pentsatu genuen. Gure asmo hau orduko giroaren barruan ulertu behar da, 79-80 urteetako giro musikalaren barnean. Euskadiko musikaren «boom» fama-tua, diskoetxe berri edo berriztatuen lana (Xoxoa, IZ,...) Beste alde batek Bilbon, Donostian eta beste zenbait herritan talde berriak hasten dira eta inortxok ez du honetaz idazten. Hemengo egunkari eta aldizkariak ez zioten kasu larregirik egiten mugimenduari honi. Guk giro honen inguruan landu genuen gure asmoa.

Hasieran inor ez zen gutaz fidatzen. Kantariak berek ere ez zuten argi ikusten gure lana eta anekdota gisa bat kondatuko dizut. Lehen alean agertzen den ITOIZekiko elkarrizketa egiterakoan haien aldetik taldean ez zegoen jendea etorri zen eta guk galderak egiten eta haiek erantzunik ez. Nola erantzungo ziguten, taldekoak ez baitziren».

Lehen alea keleratu ondoren irakurleen aldetik erantzun ona jaso zuen aldizkariak eta astiro-astiro aldizkariaren beharra finkatuz

joan zen. «Guk geuk ere ez genuen inon 3. alera iritsiko ginelarik, baina hor daude 2., 3., 4.,... eta jadanik 11.a atera dugu. Ez da lan makala, izugarriko lana darama horrek eta guk ezer kobratu barik»

Aldizkari bat kaleratzea barne eraketa eskatzen du, talde eratu. Hori dela-eta honela mintzo da. «Hasieran lagunaren artean egiten genituen gauza guztiak, telefonoa hartu eta «Hi, nik zera daukaku». Baina gero lanak bilera batzu prestatzea eskatu zigun eta handik aurrera barne antolaketa izan dugu: bilerak, lanen banaketa...».



Eta ze erantzuna izan duzue bai irakurle goaren aldetik, bai musikariaren aldetik? «Ba, begira. Irakurleen aldetik oso ona, azken alean egindako inkestaren erantzunak astekarria edo hamabostekaria bihurtzea eskatzen digute, nahiz eta guk ezin duguna bete jakin. Musikariaren aldetik ere erantzun ona jaso dugu, hasieran batzuk ez ginduen hain ongi ikusten»

Baina kritikarik onartzen ez dutenak ere izan dira, beste hainbat arlotan kritikak hase-rre eta halakoak sortu ohi dituzenez, hemen ezagutu dule holakorik «Bai, noski. Hemen batzutan ezin izan dugu kritika gogorrik egin zeren kantariak haserretu egin izan dira. Behin gure editorialean kritika-aldia etorria zela esan genuen, kritika beharrezkoa zela eta batek baino gehiagok jo zuen guregana holakorik esateko nor ginen esanez».

Aldizkariaren izenak kezkatu egin ninduen hasieran, zergatik izen hau, nondik asmatu duzue? «Hor ez dago tranparik. Gutariko bat «amanitas» izeneko perretxiko baten bila zebilen, «amanitas muscaria» izeneko hain zuzenperretxiko hau aluzinogenoa omen zela eta guk izenik ez genuenez izen hau hartu eta aldizkariari jarri genion. Gainera Muskaria herria ere ba dago».

Erderaz dator gehien batez aldizkaria, gaztelaniaz, baina euskarari tokia emanez. honetaz ere izan ditugu gure bururak. Batek euskara gehiago sartu nahi eta beste batek gehiegi zela esan. Inkestan euskara gehiegi eskatzen digute eta saiatuko gara gehiago sartzen».

Azken galdera etorkizunari begira ze asmo dituen izan da. Luzerako jarraitzeko asmorik? «Bai, noski! Gu jarraitzeko asmoz gabilta, ahal dugun neurrian aldizkaria ateratzen saiatuko gara. Guk hemendik ez dugu ezer ateratzen eta aldizkariaren salneurria merkea da, ia nork eskeintzen dizun aldizkari bat 60 pezetatan».

Inkestararen erantzunetaz hiltzegin dugu. Aurreko ale batelan inkesta bat jarri zuten aldizkariaren irakurleek erantzun dezaten eta harrera ezin hobea izan. Orain erantzun horien arabera aldizkaria hobeagotzen saiatuko dira.

Muskaria. 43 posta-kutxa. Algorta (Bizkaia)

NIKO ETXART lanean

Niko Etxart kantaria disko berria prestatzen dabil. Diskoa Has dantzan aurrekoaren bideelatik joango da, honen segida izango litzateke, hau da abesti arinak eta erritmo alaiak «zeren gaur gure herriak jasaten duen egoera hain latza denez beharrezko dugu alaitasun pixka bat». Diskoarekin produkzio berria zabalduko litzateke, Gorka Knorro. Urko eta hiruren artean sortulako produkzioa, baina honelaz ez dago oraingoz zehetasunik.

Diskolik aparte ikusgarri berezi bat montatzen saiatzen da Niko, lehengo Minxoriak taldekoekin. Ikusgarri hau Miatz alderako litzateke prest eta Zuberoako Maskaradetan oinarriturik gaurko musika eta letrak sartuko lirateke erabat barregarria izan nahieran.

LASARTE bertsolariaren hirugarren kasetea



Donostiako IZ elzeak kaleraturik, Orioko Lasarte bertsolariaren hirugarren kasetea alera berri da. Lanaren aurkezpena Donostian izan zen martxoaren 25 ean. Kasete honetan bertsolari honen zenbait lan sartzen dira, guk tituluak bakarrik jarriko ditugu. Lasarteren beraren hitzak errespetatuz:

1 Bederatzi puntuko bertsoak, lanari jarriak.

- 2 Mutil batek bere andregai izandakoari jartzen dizkion bertsoak.
- 3 Arantzazuko eleizarako egindako bertsoak.
- 4 Nere billobari jarritako bertsoak.
- 6 Lore eder bati jarritako bertsoak.

MIREN eta BINGEN trikitilarien kasetea



Miren neskatza trikitilaria, Azpeitian plazaratzen da lehen aldiz 1980ean, panderoan Zestuako Joxe Mariren laguntza duelarik, Donostiako Txapelketarako eliminatarioan. Urte honetan bertan sortuko da MIREN eta BINGEN hernaniar bikotea, Zarauzko Trikitilari Gazteen I. txapelketan parte hartuz bigarren saria lortzen duelarik. Hurrengo urtean, 1981ean, Zeanuri eta Zarauzko txapelketetan txapelidun ateratzen dira.


Hau duzue bikote honen «curriculum vitae» delakoa eta orain zintza hau alera du, ohizko moldeen barnean eskertzeko berrikuntza batekin, kaseteak letrak dauzka barruan. Dena dela kaseteak eskasa ikusten dugu, makallsu, batez ere abots aldetik. Ez dut uste abots tonu hau aproposena denik trikitiliza kantuelarako.

joxe ugarriza

Uztailaren 13tik 18ra bitartean

DONOSTIAko XVII. JAZZALDIA: MUSIKARI BIKAINAK ETA BERRIKUNTZAK

Modern Jazz Quartet, Cont Basie eta bere Big Band, Crusanders taldea, Randy Weston eta Marsalis Brothers dira Uztailaren 13tik 18ra bitartean ihardungo duen DONOSTIAko XVII. JAZZALDIAN izango ditugun musikari batzu.



Programakuntza osatzeko Teté Montoliú piano-jolea etorriko omen da antolatzaileen ustez-Kultur eta Turismo Ekintzetarako «ongi merezi duen gorosarre edo omenaldia» eskeintzeko, beraren zenbait adiskidemin partaile izango direlarik.

Aurten JAZZALDIAk zenbait berrikuntza dakarza, honela Duke Jordan-en hirukotearen saio bat antzoki balean ospatuko omen da baldintza akustikoak aproposenak izan daitezen (esperientzia honek hurrengo urtean jarraipena izan dezan nahi luke antolatzaileek). Bigarren berrikuntza «jazzaldia ez dadin soilki musikerakusketak bat alegia, baizik eta musikarako lantegi, gerta dakien musikariei» Musik Lanlegia irekiko da, aurten gitarra elektrikoari eskeintza, Barzelonako Aula de Música Moderna i Jazz delakoaren Arthur Bernsteinen irakaslearen ardurapean.

Ohizko ekintzek, ihazkoen antzera, behiko dute programakuntza. Lehen egunean Amateur Taldeen Nazioarteko Lehiaketa. Bigarrenean Euskal Herriko Amateur Taldeen Lehiaketa-aurten Trinitate enparantzara eraman zitekeena-eta Boulevardeko dohainezko kontzertuak, filme eta hitzaldiak.

JAKIN

EUSKAL KULTUR ALDIZKARIA

Hiruhilabetero

22. zenbakia KOMUNIKABIDEAK EUSKAL HERRIAN

- Euskararen normalizazioa
- Euskal nobelaren etorkizuna
- 1981eko euskal liburugintza

Egin zaitez
JAKIN aldizkariaren
harpidedun

Eskabideak eta harpidetza:

JAKIN Aldizkaria
Ategorrieta hiribidea
(lehen. Gral. Mola), 23, 1a.

Donostia/San Sebastian
Tel. (943) 27 17 13

BERDEA BERDETU NAHIEAN

EKOLOGIA:

Euskal Herrian Lemoizeko projektu madarikatua inposetzen hasi zitzaizkionetik aurrera, debate ekologikoa sortu da ekologia ideologia iraultzaile bilakatu nahian. Hau dela eta, ANAITASUNAKo txoko hau zabaldu nahi genizueke honetaz arduratuta zaudeten guztioi debate ekologiko nahitanahiez behar-beharrezkoa zaigulakoan. Zuen burutazioen zain, agur bero bat.

«EKOLOGIA» hitza nahiko hedatuta dago egun gure artean. Eguneroko komunikabideetan azaltzen zaigu, zelan edo halan, ekologismoaren arazoa: ez dakit nongo zabortege ilegala dela, ba dakit nongo aireko kutsadura itzela dela, autopista baten projektu baten lehenengo faze baten bigarren partearen aurkako borrokak direla, edo Ibaizabaleko kloakan arrainik ez dela, edo herri bateko ura kutsatuta dagoela, edo klasifikatu gabeko txori arraro batzu Diputapen aurrean kolzatuta aurkitu dituztela, edo hau esan eta berehala dakarkigute parabola: **GEHIAGO ZAINDU BEHAR DUGU INGURU AHUL HAU!!**

Egun den «ekologismo» honen bul-tzatzaile bezala Lemoizeko mamua daukagu. Berau inposetzen hasi zitzaizkigunetik aurrera, sendotuz joan da gurean ekologismo izena eduki lezakeen zeozer. Izeneko talde antinuklearrak talde ekologista bihurtu dira kaleko praktikan nuklearkeria zerbait zabalago baten baitan harturik. Lemoizekoa ardatza legez hartuta, burlena zelako, beste maila bateko elkarrizketa hasia da gure Herrian, «ekologismoa» ideologia orokorra legez, eguneroko egiazko alternatiba legez planteatuz; baina nire ustez, elkarrizketa horrek ez ditu behar zituen urratsak eman. Eta azken honen arrazoia, beharbada, alderdi pilitikoetan topatu beharko litzateke, azken batez «alderdiak» dira eta ez «osoak». Horientzat «ekologismoa» beren programaren parte bat baino ez da izan, ideologia serioarekin zerikusirik handirik ez daukana, beste batzu politikaren gaintetik jartzen saiatu diren bitartean.

Gobernuak, bere aldetik, parte hartu nahi izan du botodunak kezkatzen dituen arazoan, eta honela, ekologismo natural eta iraultzailea litekeenaren aurrean ANBIENTALISMOA ezarri digute, edo beste modu batez esanda,

ekologia instituzionala; eta hortxe daukagu politikoseriokorbatadunok Zuhaitz-Eguna antolatzen eta nonnahi zernahi landatzen, daukaten sustriak baino zulo gehiago egin arren. Arren!!

Hau honela, «ekologia» hitza kakaztu egin da, edonon entzuten da hitz bera buru ezberdinetako ahoetan bada ere. Artaldean ardi gutxi baziren orain artzain bi. Izan ere, EKOLOGIA izeneko zientzia zabaldu da gure artean Biologiaren eskuz, eta ekosistemak aztertzea hartu du helburutzat. Eta hau garrantzi handikoa da, ekosistemon konplexutasun eta egonkortasun naturalek ideia asko eman baitiezagukete gizartea beste modu batez eratzerakoan. Eta ez legoke txarto egunen batean ekosistemek muga administratiiboak betiko baztertzen dituztela ikusiko bagenu. Autore batzu hasiak dira ekoherria, ekogizartea, ekotopia, ekobardenak (azken hau da M. Gabiriak Bardenak salbatzeko proposatutako alternatiba serio bat) eta holakoak erabiltzen, giza-natura harremanetan oinarritu behar direnak izendatzeko. Baina ekologia unibertsitario horrek ba dauka eduki kontrako arazoa: lizentziatu eta doktoreak ateratzen dira unibertsitatetik «Ecologo» jartzen duen erregeak sinatutako tituluz. Eta tituluak tituluduna egiten ez duenez, mutur gutzietakoak agertzen dira ekologo. Honek esan nahi du, nire eritziz, batzuk karrera amaitu dutela asko estudiantuta baina gutxi ikasita eta gutxiago ikusita. Ez da harritzekoa, ez ez ez, nuklearkeriaren aldeko ekologoak irrastian entzutea; harritzekoa kontrakoa da. Beraz, bereiztu beharra dago ekologo-ekologista eta ekologismo-ambientalismoa.

EKOLOGIA ALTERNATIBA BEZALA

Ekologia alternatiba sozial erradikala izan liteke?

Analizatu egin beharko genuke gure ingurua, egia esan, gurea ez dena batzuk lapurtu egin zutelako. Gainera, ezin ditugu terminoak aldatu, gu inguruan bizi bagara, eta bizi gara, berorren parte bat baino ez gara eta, beraz, ez da gurea, gu izan aurretik bera zen. Honek, gauza ximple dirudien arren, filosofia itzela gordetzen du, naturarekiko harremanak (hartu eta eman) zelakoak izan beharko litezkeen bideratzen baitigu.

Gaurko gizartea txarto doala ezin ukatu, argia dago, baina zein da horren kontradizioa? Orain urte batzu proletargoa/burgesa zela esaten zen, baina egun ez dago hain garbi, lehenengo sinpletasunez esanda, behintzat. Gaurkoa, jakintsuen esanez, ez da beste krisi bat, krisirik krisiena baizik, azkena beharbada, zibilizazioaren amaiera? Eta honen kausa zein den arakatea ez da batera erraza. Ezin daiteke izan estatutu baten errua, edo politikariena, edo industriariena, edo teknologiariena, edo itzelezko hazkuntza demografikoariena, edo balore moralena, edo..... ez sakonagoa, konplexuagoa izan behar da kausa, gizarte-eredu oso batena. Progresua etengabe izango zela pentsatzen bazen ere, gaurko krisiak kontrakoa frogatu du: Mundu finito batean bizi gara. **Mundu mugatu batean kontsumo materialaren eten gabeko hazkuntza ezina da.** Eta hortantxe sartzen da ekologismoa, naturak daukan errekursoen hustirakuntza errazionala gizarte errazionalan gertatu behar da eta. Eta gaur irrazionalerian bizi erazten gaituzte (ala bizi gara?). Beharbada, ez du merezi, ezkertiar batzuk diotenez, krisi hau salbatzeak; beharbada lagundu egin behar dugu amiltzen. Gainera, ez dago oraingoa salba lezakeen kristaurik (bestela ez litzateke kristaua izango, uste dut nik). Eta amiltzekotan, ZER?

Iragapena hasi da nonbait, gauza txikietan zein handietan. Baina betikoek gizarte hau galtzen badute, jakingo dute zelan «sortu» hurrengoa. Gure eskuetan dago hurbiltzen zaigun urratsa bideratzea: gizarte teknokratiko-zibernetikorantz ala ekosistema sozialerantz. Leloak garenok ezin inprobisatu.

I. AUZMENDI

AZENTUAZ JO ETA KE

eso beste. Ozendi ahoska itzazu, zeure bu-ruari entzunez hobe ohar zaitezen:

Zerenetabestéla
Sustantibóak
Horiegia baldinbáda
Besteláko

Aipatutako hitzaldiotan, hizlari aritu zirenak guztiz famatuak izan arre, hau euskara ez den zalantzarik ez dago. Izan ere, hau da lehen aipatu dugun bideetatik bat; azentuak nahi den lekuan eta beti desberdin jartzea, Alegia. Ez dira, hala ere, asko, bide hau erabiltzen dutenak, eta, behintzan honela espero dut, ez da bide hau zabalduko. Arriskugarriago deritzat bigarren bideari, hots:

Béhar dúgu
Sustantíboak
Bíde bátez
Zuenpoéma

Honelako adibideak parra parra entzun daitezke, egunero, euskara «kultoa» erabiltzen dutenen artean. Bai erdaratik hartu ditugun hitzak eta bai jatorria euskaran bertan duakatenak ere hartu, eta gaztelaniaren azentua ezarri egiten diegu. Erdararen eragina hain handia izanik, ba da bere etxean gára eta dizkiógu esaten dela esaten duenik. Entzun dezagun baina, erdarazko zati hau:

Macondó erayá unpávorosó torvéllinó depólvó yescombrós, sacúdidó porlá fuerzá

delhúracán bíblicó, cuandó Aurélianó saltó oncé paginás paránó perdér eltiempó enhechós...

Niri, hau entzutean barregura datorkit, Gabriel García Márquez-i, zihur aski, pistola bat hartzeko gogoia letorkioke. Zer egin dugu, ordea? Gaztelaniatzko zati bati euskararen azentua aplikatzea besterik ez.

Oso kritikatu izan da Iñaki Lasak ANAITASUNA-n proposatutako bidea. Ni, ados nago guztiz egokia ez dela; osatu beharra dauka, eduki ere, eta zuzendu beharra zenbait puntutan, baina, nik dakidala, daukagun onena da. Zer egingo dugu? Euskaltegi, gau eskola ikastola eta abarretatik «liburuko euskara hori» egiten duen hainbat euskaldun ateratzen ari garelarik bide hori baztertu? Nik neuk, ez dut horrelakorik egingo. Hona hemen, bada nire proposamena: har dezagun daukagun apur hori oinarri eta denon artean osa eta hobe dezagun. Baldin guk egiten ez ba dugu ez du inork egingo, ez gure jakintsu horiek eta ez lan horretarako gai sentitzen ez direnek ere.

Artikulú honékín azéntuari burúzkó kezká sortéa lortú banú pozík nengókeén, Oraíngoán hurréngoarí uztén diót hitzá, Dakienák idáz dezalá, cá denón arteán bizí apúr bát ematén diógún guré azéntuari.

BITTOR URAGA



SASTRE NERGARA, I DONOSTIANKO ESTILOA

PROTOIEN ENERGIAREN KONTRA: POTROEN INDARRA (IV)



1901.urtean Orbegozo zeritzan Orioko apaiz batek bertso herriak jarri zizkion «Orioko herriko/barraren aurrean» agertutako baleari. Hona heman batzu:

Haundia bazen ere azkarra ibillian, bueltaka han zebillen jun ta etorrian, hondarra harrotuaz murgil igerian, zorriak zeuzkan eta haiek bota nahian.

Ikusi zutenian hala zebillela, berehala jun ziren treiñeruen billa; arpoi ta dinamitak eta soka pilla aguro ekartzeko etzen jende hilla.

Baliak egindako salto ta marruak ziren izugarri ta ikaratzekuak; atzera eragin gabe hango arriskuak, arpoiakin hil zuten... han zire hanguak!!

Egun bertsolaritzak etorkizunik baleuko ez litzateke baleei esker, eta hurrik eman ere ez!!

Baleak gero eta gutxiago azaltzen dira, gero eta gehiago hiltzen dituztelako. Eta zertarako hil? Baleengandik gehien «probetxatzen» dena zela da: bizarrak, olia, haragia, guritxkak (glandulak), larrua eta abar luzea; eta gutxien erabiltzen dena, beste guztia. Hori guztiori hartu, elaboratu, izendatu eta gure etxearen inguruko dendetan jartzen digute salgai: imprentako tintak, kosmetikako barra eta pomadak, eskubila eta brotxak, larruak eta abar luze bezain onuratsua (batzurenzat, jakina). Nonon irakurri dudanez, gurixketatik hormonak

ateratzen dituzte, eta pentsatzen hasita nago, TV-n ikusten diren aurpegi batzu nahiko arraroak direla. Beharbada Eta Orbegozok bertso batean aipatutako «zorriak zeuzkan» horiek ere probetxatu egiten dituzte? Ni baietzean nago. Gainera, gerra bakteriologikoa hasia da eta lehengai diren zorriak ez dire erraz aurkitzekoak; politikoak beraiek ere ez dira dutxatzen!!

Baleei esker hainbeste diru irabazten duten enpresek ANAITASUNAN propaganda ateratzerik nahi ez dutenez, debaldekoa egingo diegu (ez dago zergatik). Hona hemen baleak maitekiro «babesten» dituzten batzu: AVON (atean jotzen duena, bai zera!), BAYER (football ekipoa ez, bestea), COLGATE, PALMOLIVE (zooko baleengana irribarrez aginak erakusten joateko moduan!!), HELENA RUBINSTEIN, LETRASET, -SHELL, GULFOIL, TOTAL, IVES ROCHER, NESTLE (gero horrelako kumeak ikusten dira!!), TOBLER-SUCHARD, Eta enpresa hauek baleen alde azaltzen dira, Euzko Gobernua HABEko ikasle ba-

kuan daukagun lagun bakarra. Ez norixe: Inguruko inguruan diren fokak ere egoera berditsuan aurkitzen dira. Berria orain gutxi kaleratu zen, Groenlandia aldean oraintsu hasi baita foken safaria, baina diferentzia batez: baleak arpoien burdinaz jausten diren bitartean fokek hagaren kolpez utzi behar dute beren zulogabeko larrua. Gainera, fokakumeak dira gehien bilatzen direnak, horien larrua finagoa omen delako. Eta larrua bera da probetxatzen den ia gauza bakarra (bakar-bakarra ez bada), Boulevard edo Gran Viatik antzarren antzera paseiatzen diren baleen olioetatiko pomadaz gantzututako monada nazkagarrien larrua bestean larruaz estaltzeko.

Eta foken iraungipena ekidin nahian, lehenago baleekin egin zuten moduantxe, GREENPEACE-ko itsasuntzia bertara abiatu zen fokakumeen larrua pinturaz zikientzeko, eta horrela bizia salbatu ahal izateko. Berandu heldu ziren. Berandu heldu ziren hara, baina gu oraindino sasoz gaude gure aurretik pasatzen diren fokadun horien larruak (fokarenak, jakina) pinturaz betetzeko. Ea lotsak hartzen dituen!! Safaria heldu da, har dezagun pintura eta artez larrura!!


Bertso berriak fokadunen kontra jarriak. Neguak beti ekartzen digu hirira pizti ugari antzarren sama inguratuta hainbat foka ta azeri. Ezin begira gelditu eta egin dezagun safari pintura hartu ta botaiogun monada larrudunari.

Kupida gabe bota nahi diet haiei gaitz honen errua berezko antza goratu nahirik daukatenei amarrua, pentsatzen dute goxo dutela azala eta barrua baina berea maite badute zertako beste larrua?



tzuren alde azaltzen den bezain samur. Azken batez, ba al dago ardirik gabeko artalderik?

Okatik Okara eta botatzen dut porque me FOKA. Balea ez da iraungiteko arris-



Gure erriaren bizia aurrera
Ez da iñoiz gelditzen.
Danon eginkisunak, urduritasunak osotzen
dabolako, ta zuek umeok bere,
garrantzitzuak zarelako, geroa danona da,
Bizkaia olan landu da beti.
Indarrez, zurtasunez.
Gure erriaren sintzotasuna gogortuz,
eguneroko okerrak zuzenduz.
Gauza obeagoak sortuz.
Da olan jarraitu bear dau.
Ilusioz, gaur eta biar.
Bere sortzegunetik Bizkaiak eta bere jendeak
geituz laguntza eskeñiz,
Bizkaiko Aurrezki Kutxa lez.
Danena dalako.
Bizkaia ori dalako.



*Nuestra gente.
Nuestra ilusión.*

*Gure herria.
Gure asmo bakarra.*

CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

CREADA Y PROMOVIDA POR LA DIPUTACION FORAL DEL SEÑORIO DE VIZCAYA

POLIZIENTZAKO EUSKARA

Gotu Erregetzaren garaitik, arabiar inbasioaren aurretik, Euskal Herriaren aurka egiten ari den genozidioan, oso instituzio gutxi izan ahal dute haien eskuak garbi edukitzea.

Genozidioaz mintzo naiz, zeren hauxe baita ondoen legokien hitza Euskaldunek haiek izatasuna utz dezateen eta frantses ez edo gaztelaerez mintzatu ditezten antolatutako diren kanpainak oro, bost axolatazatzat joz Euskara, Mendebaldeko kulturaren bitxi ederra hizkuntza bizien artean desagertzea.

Ez Madriletik ez Parisetik lortu ez baldin badute Euskararen desagertzea arrazoi honegatik da: Euskal Herriak, denboran zehar, bere herriaren aurkako izendatu diren neurri zapatazileen kontra egin izan duen borroka sutua.

Hau ez da inolaz berbaorik, egia, egia hutsa, eta ez da beharrezkotzat jotzen aipa neurriak banan banan izendatzerik. Bitxi maite den Euskararekiko desinteresa erdeinaria Estatuko kultur giroan ere aurkitzen da baita: Euskal Herriko kanpo, zeinari oraintsura arte bere Unibertsitatearen edukitzea galerazten bazitzaion, Peninsularen zabaleran Salamanca-ko Unibertsitatean ikasi ahal zen, urte batzuek direla, Euskara bakarrik.

Orain, Euskal Herria deusezteko lehen porroten ondoren XV mende geroago, Polizia Nazionalak Euskara mintzodun agenteak izateko duen gogoa azaltzen zaigu. Jakinik, hilebete batzuek barru polizia autonomoa arituko dela kalean, zeinak oraingo polizia ordeztuko baitu.

Adibiderako Catalunya-n catalana ikasten dabilzaten polizia badiela esaten da. Ez dut dudatan jartzeko, baina ez dakit ez non ez zenbat ari diren zeren niri beti zuzendu bait zaizkit gaztelaniaz. Gainera, Abenduaren 22an, Bartzelonan, Sants-eko komisaldegiara zuzendu nitzenean kotxean jasan nuen lapurketa bat salatzeke, orduko komisariak bahitu ninduen duda-mudakotzaz hartu bait ninduen. Hark, nire Estatuko Nortasun Agiria irakurriz nire ogibidea mekanikari nintzela susmatu zuen. Argi-argi zegoen paper haretan ni METGE nintzela, hots, osagile nintzela. Nire dokumentua etxe berean, hamairu hilebete aurretik, zegoen berriztatu eta inolako arazo barik.

Egia esan, jende orok du euskaraz ikas eta mintzatzeko eskubidea. Baina nork zaindu du eskubide hori orain arte? Euskaldunak gaztelaniaz ikastera, gaztelaniaz idatzirik prentsa irakurtera, telebista erdalduna ikastera eta erdaraz mintzatzera izan dira bortxatuak.

GUERNICA 1945



Euskara ikasteko eskubideaz aritzen haiz maiz era ezberdin dira beraz ikasteko. Esate baterako postaz, disko edo kaseteekin, inor molestatu gabe eta bakoitzari ondoen datorikion orduan aritzeko. Beste modu bat bartzelonako Udaletxeak sortu duena da: udal funtzionarioei catalana ikasteko aukera eman zaie serbitzu onduen barne, haientzako ikastaro berezietan. Bada, Donostia osoan hain polizi gutxi da Euskara ikasteaz arduraturik klase oso bat lortzeko kapaz ez direla?

Beste formula bat Gasteizko polizi autonomoaren egoitzetara joatea litzateke asten batzutan, edo asteburuetan, edo hilebetean urtean, ikastaro trinkoan, zeren Gasteizen polizientzako Euskara irakaste bereziak bait dira. Behar bada, eta ez litzateke irtenbiderik eroena, polizi nazionalaren egoitza beretan, Logroño-n edo, Euskara ikastea posible litzateke, horrela handik irtetako poliziak ongi gertaturik lirateke ondorengo norakoetarako.

On litzateke honelako edo bestelako bideren bat aurkitzen saiatzea. Gehiago luzatu barik galdera bat datorkit burura: zenbat komisaldegi edo kuarteletan dute gaztelani-euskara hiztegi arrunterik? Haietarik zenbat dira euskal aldizkariren batetan harpide direnak? Guarko legistapenarekin bat datorren Ministeritza egokiak argitaratzen den guztiaren zabalkundeari atzeragarriak maiz jartzeko baldin badizkio, nola ulertuko da Euskal Herrian jazotzen dena?

Sortutako arazoak irtenbide erraza izan dezake nahi izanez gero. Zeren, «La Vanguardia»-ko martxoaren 10ean Barne Ministeritzak esan zuenez, polizi hoiak ikastarora espia gisa ez baldin dagoaz ere, polizi horiek ez dute haien lana beteko edozein unetan beharrezkotzat jotzen baldin badute, nahiz klasean egon?

Zudayre-
(itzulpena)

ZULOAK, MILOIAK ETA BANDERAK

Ez da luzez aritzeko nire nahia, baina hiru gaik, beste batzuren artean, zeharo ukitu naute. Egia esan, norbaitzuek ordainduko ez dituzten hogeita bost miloiak, Espainiako Telebista eta Lemoiz, sarri izendatutako gaiak baldin badira ere, berriaz ditugu gure artean. Euskal Herriak historian zehar pairatutako zapalkuntzak sortu dizkigun gai ugariak maiz suertatzen bait zaizkigu.

Ez dakigu, nik behintzat, Espainiako Estatuan diren gainerako herrietan zer nolako arrakasta izango duen Monarkiaren banderak, baina gure herrian aski txarra, begi bistan dagoela edozeinek dakuske. Arazoa hortik abiatu arren zergatik ez dugu alderantziz lotzen, esan nahi bait dut, Ikurriñak zer nolako arrakasta duen hor zehar, erre arren ez baita edonolako multarik jartzen. Ez dut nik, ordea Benidormeko atsoari multarik jartzeko eskatzen, berorik eman baldin badio suak on egin dezaiola. Baina norbaitzuentzako horren garrantzitsu baldin bada haien bandera, eta multak jarriz zerbait zuzenduko dutela us-tean badira, jakin bezate, edo susma sike-ran, beste batzuei horrela gerta dakiekeela, eta ezpata bera erabiliz, neurketa berdint-sua egin beharko luketela erakutsi nahi di-guten ongi nahia benetan ona dela sines de-zakegun. Militarkumeek dute, gehienbat, bandera haien herriko ikurtzat zeren haien jolaserako, gudetarako irakur, oso baita beharrezko bandera izatea, nola desberdin-du, bestela, zeintzu diren alde batetako sol-datuak eta zeintzu beste aldetakoak? Hitz eginez ez da posible izango eta. Herri batek hori baino, bandera baino, garrantzitsuago den zerbait izan beharko luke ezaugarri-tzat, kulturaz, izakeraz, pertsonalitateaz ari natzaizue, ez trapuez.

Gobernuaren ustez, militarkumeenez, bandera erretzean Espainia ukatu omen dute zomorrotuek. Galdera, behar bada, urrunago bota beharko genuke, ba da Espainiarik? Zer ote da Espainia superestruktura besterik? Eta, gainegitura ez da, nik uste, herri bat. Nola ulertu, orduan, monarkiaren bandera erretzean estatuko herria mindu dutela erretzaileek, suposatzen den herri horren ezaugarria bandera hori ez baldin bada, zeren bandera hori gobernu-arena bait da soilik, hots, militarkumeena.

Ez ote da Espainiako zerik garrantzi-tsuena haien hizkuntza, singularra diot, ez al da hori Ameriketara exportatu zuten bitxirik baliosoena? Hori izango da, orduan, patriaren ezaugarriker sendoena eta ez bes-terik. Patria hau egiterakoan indarrik han-

diena hizkuntzan egondu da beti, hizkun-tza bakar bat inposatzean. Hori litzateke herriaren, patriaren, ezaugarria eta ez ban-deratxoarena.

Banderea erretzeak ez du Gobernu-a zapuztea baino suposatzen, ez da erre hiztegi-ren bat, ez da erre herririk, trapu bat bai-no, ez dazegun erroparik urratu. Ez da na-zismorik banderak erretzea baizik herriak erretzea, eta ez dugu euskaldunek Gernika erre. Ez da nazismo euskaraz hitz egin na-hia, baizik eta hori ukatzea poliziak, horren ikastea nahi dutela esanez, klaseko giroa apurtuz. Ez da nazismoa lotan egoitea, bai-zik eta lotan zaudela tiroka edo kolpeka kaleratzea, eta hori maizegi sentitu dugu gure lepoan.

Ez gaude zoro, zoro gaudela demostratu nahi digute milaka patraina asmatuz, poli-ziek euskara ikasteko eskubidea dutela oi-hukatzen digutenean edo Lemoiz guztiz probetxagarri gerta daitekeela esaten digu-tenean. Eta arazoa ez dago hor. Ez da inoiz hor egon. Arazoa ez da batzuk eskubide du-tela euskara ikasteko, zeren ikasi edonon ikas dezakete, baizik eta zergatik toki konkretu horretan ikasi behar, ez al da poli-ziena oso ikaskintza programatu, oso eta on bat? Ikas dezatela han, ikastea baldin bada haien helburua.

Eta gure gobernu-a, euskal Herriaren lu-rralde bat zapaltzen digun Gasteizko Go-bernuak amua iruntsi du. Amua irunste-ko-tan gara beste zenbaitzu Martxoko 27an, larunbatez eta gaueko hamarrak inguruan, Madrilera telebista mirakulugarria ikusi genuen zatarrak. Bitartean, Pariseko tele-bista Espainian egiten den torturaz ari zen, baina guk ETAk ekar ditzakeen kalte izu-garriak ausnartzen genituen hormetan zi-rren pintadak ikusten genbiltzela. Ikaratu-rik atera ginen ikustaldi ederretik euskal-dunok zein gaizto garen ikusi eta ikasi bait genuen. Onena, dena dela, informatiboaren ostan etorri zitzaiguna zen. Bai jaunande-reok! Makarra batzu izan baitziren ban-kuak ebasten, nola ETAk egiten duen, te-rroristak ikusi ahal izan genituen bi filme-tan, «Sesión de noche»koan eta «Informe Semanal»ekoan. Jokaldi bikoitza ondo ikasteko. «I.S.»ean zuloak eta buzoiak nola erabili erakutsi ziguten motorista jaka beltzdunek, terrorismoa nola kontrolaturik den erakusteko. Bigarrean, filmean, zein filmeago ez dakidala esan dezadan, poliziek zein ongi jokatzen duten gu salbatzearren ikusi bait genuen. Eskerrik asko eta «urte on demola Jainkoak».

J.I. Basterretxea

EUSKAL LOKUZIOAK DIRELA ETA...

Mintza ahalmenaz gogoeta batzu.



I-Hizkuntza habitatzen dugu

XX. mendeko filosofiak ezer eriden badi, lengoaia animaliak gabela eriden du, eta hizkuntza habitatzen dugula. Beraz, lurralde bat baino lehenago hizkuntza da aberria, eta euskara da, hain zuzen, gure terriorioa.

Halabaina, gizarte burruka eta hizkuntza diglosia medio, euskara terriorio heste eta antzua bilakatu zaigu barne muinen bazterrean. Ezen, erdal terriorio joriagoen mendean, barne herbestera kondenturik gaude euskaraz mintzo garenak.

II-Asaba zaharraren baratza

Asaba zaharren baratza, euskara, lur eremua zen iadanik Xabier Lizardik abestu zuenean, eta XX. mendearen hasieran euskara mortuari buruz hiru planteamendu agertu ziren: Migel Unamunokoak euskara antzu zetzala eta lurralde joriagoetara aldentzeko utzi zuen; Sabino Aranak ere antzu somatu eta baratz garbi baina artifiziala landatu zuen, lore sintetikoak sarturik; R.M. Azkue, berriz, beste lurraldetara aldatu nahi ez, ez belar artifizialak laket, eta laborari gelditu zen bere lur hestuan.

III-Koldo Izagirre laborari

Bainaez zen R.M. Azkue laborari ezjakin. Bestelurretakoeta bereko gauza asko ikertu eta ikasi zituen, ez bait zen gelditu lurra antzu mantentzeko jaritzeko baizik. Aintzina, euskarak eskola zuen etsai eta ezjakina aldeko —Koldo Mitxelenak esan duen legez— baina orain eskola behar du aldeko, ezjakina aldeko ez duelako. Halan, Koldo Izagirrek R.M. Azkueren tradizioa

segitzen du, lurrari atxiki laborari eskolatuena, «Euskal Lokuzioak» liburu berrian (Hordago Editoriala, 1981) bildu uztak frogatu duenez. Izan ere liburu handia da, tamainoz bezainbat jakintzaz.

IV-Euskararen zero gradua

Euskarakiraungo bazuen euskara batua behar zen, gizarte bilakaerari egokituriko hizkuntza bat halegia; eta egin egin zen. Zero graduko hizketa bat moldatu eta azken hogeit urteetan finkatu samar dagoela dirudi.

Baina, aldiberean, euskara batua ez da gauzaa izatera iritsi. Dela diglosiagatik, dela euskararen barne arazoekaitik, mintza ahalmena laburturik gelditu zaigu. Gauza filologikoa baino gehiago gauza filologinoa bilakatu zaigu euskara. Eta euskara batua ez da aski, ezen normatiba soil bat den aldetik bizitza falta du: kreatibitatea falta du.

Kreatibitate gabezia egungo gizartearen ezaugarri nabarmenena bada, euskarazko mintza ahalmena ere oso motza da, gogorra eta kreatibitate gabekoa. Euskaldunok —euskaldun gehienon— elbarriak gara euskararekiko. Beraz, mintza ahalmena errekuiperatu behar dugu, estiloak errekuiperatu behar ditugu, kreatibitate linguistikoa behar dugu euskera fosil utzi nahi ez badugu.

V-Bilduma irekia

Koldoren liburuko bilduman ez dira lokuzio guztiak biltzen, izan ere lokuziogintza corpus bat baino gehiago egitura sortzaile bat da. Egitura sortzaile hau hobeto ikertzeak balioa gehituko lioke liburuari, segur. Alderantziz planteaturik, berriz, egitura sortzaile hori ikertzeko material zabala ematen du liburuan dagoenean dagoela.

Desoreka tipi bat somatzen diot liburuari, gipuzkera euskara bada ere euskara gipuzkera denik uste ez dudalako—Axularren egia, lokuzioen gehingoa gipuzkorazkoak izatea alegia.

Baina bilduma ireki da funtsean eta hutsuneak ez dira akatsak betegarriak baizik. Halan, bada, bai Koldorena bai beste guziona da betetzeko eginbidea.

VI-Satorrak jota

Egunotan, bestalde, Ebaristo Bustinza «Kirikiño» zenaren artikulua aritu naiz

irakurtzen «Egunekoa» liburuan (Labayru ikastetxea, 1981). Herri euskarari atxikiro idaztea zen aldetik lokuzioak esakunak beretzat-ohartuki goretzen zituen, eta eder batzu eriden ditut haren artikuluetan Halako batetan, esakuna eder bat aipatu eta azaltzen du, honela:

«Bilbaoko emakume batzuk illabeterako edo joanda errian aurkitzen ziranak, goizean berandu jagi eta etxetik urten eta egurastuten ibiltzen ziran ezerean ardura barik, eta euren auzoko batek onan esaten eban:

— Ainbeste emakume izan, da oindindio illuntzean be orren eoak eta gelak SATORRAK JOTA egoten dira, ori da ganorea daukiena.

Esakun onek dakar gogora satorrak jota egoten dan landarea, emen lurpilloa, or lurpilloa; eoak, bear dan moduan ipiñita, dagozanean, landa garbia lez, leun-leun eta polito egon oi dira; baiña bertanbera lagata goizean jagieran lez emen sakokunea or goikunea eta an estalgiak metan eginda, satorrak jotako landa baten antza badauko zelanbait».


VII-Lokuzioak eta kreatibitatea

Oinarrizko euskarak mintza ahalmena laburtzeko arriskua du, eta normatiba gainditzen duen estilo euskara behar da. Dialektoetako euskara behar da. Dialektoetako euskarak eta estilo berebiziko idazleak errekuiperatu behar dira, irakaskintzan ere, oin oinarrizko euskararekin batera, ez bait da hizkuntzaren arauak betetzen soilik ikasi behar, baizik eta mintzatzan, hau da, sortzen.

Koldo Izagirreraren liburuak gogoeta batzuren pretextoa eman dit, liburuaz ezer gutxi esan badut ere. Ez naiz kritika sako nagotan sartuko (indizea erantzi behar litzaioke, hori bai), esan dezadan bakarrik lan handia eta interesgarria dela delaresgaretara orain «blokeaturik dagoen euskararen errota» lokuzioen alorrean behiala zelan ziharduen ondo erakusten duela.

Halaere, Koldok berak abisatzen du eta berrabisatu egin nahi dut, lokuzioetan, kreatibitatea, kreatzailea onartuko den gauza asinatzen duena dela, eta ez onarturik den gauza berrerabiltzen duena; beste hitzez esateko, lokuzio eginak ez dagoen lekuan imintzea, kreatibitate ezaugarri ezik, kafean indabak sartzea dela.

Mary Jame Burgess



LUZETARA

1. Kanpotar, herbesteko (iparraldean).
5. Sakonak ez diren itsas-hondoak.
10. Ur-errotia.
14. Zein garaian?
15. Azkenaurreko hilabetea.
16. Bator, Mongoliako hiriburua.
17. Firme, sendo.
18. Haitzuloak.
19. Izaera, jarrera.
20. Atera, irten (iparraldean).
21. Agudo, aisit, laster.
22. Eria.
23. Belardi, soro.
25. Erromatarren etxeko jainkoak.
26. Agur! hebraieraz.
29. Iratxoa.
31. Etxeko animalia.
33. Joan zen urtean.
34. Juntagailu disjuntiboa.
37. Makiladun ezaguna (2 hitz).
40. Bihi.
41. Geza, motel.
42. Nahasi, konbinatu (metaleak).
43. Justo, historialaria (*Sancho el Mayor, Rey de los Vascos* egin zuena).
45. Matelhezurra.
46. Bizkaiko jendeiza aberats bat.
49. Txori zuri handi.
51. Marrazki.
52. Zolu.
53. Alde (aditz konposatuetan).
58. Komuneko tresna.
59. Kartago-ko erregina.
60. Oztopo, pilota jokatzean.
61. «Orain noa, bihar arte aia».
62. Laranja baten zati bat.
63. Taket, kabila.
64. Zapatak nola belzten diren.
65. Andeetako txilibista.

GOITIK BEHERA

1. «Kontra» esan nahi duen aurrizki.
2. Ezkata gabeko arrain bat.
3. Letoia egitean erabiltzen den metale.
4. Landare lasaitzaila.
5. Bere buruarekin eginiko.
6. 1000-pezetako billete.
7. Jean Diharce (2 hitz).
8. Fruitu more txiki.
9. Ikatzaren forma bat.
10. Ertasiako hiri.
11. Nafarroako Herriberri.
12. Garratza, larderiatsua.
13. Mementuak.
22. Erkidego baten elkarrekin proiektua.
24. Idealista, erromantiko.
25. Andeetako ugaztuna.
26. Xikara, kopa.
27. Kainen anaia.
28. Jostailu, bitxi (iparraldean).
30. Zehatu.
32. Arratseko janaldi.
34. eman (dezepzionatu).
35. Estekatu, elkartu.
36. Ahuleria.
38. Fabrika.
39. Itsas ninfak.
43. Euskal soldadu.
44. Errota.
46. Niri buruz.
47. Aditz kausatiboa.
48. Gogaide, asmokide.
50. Burugogorki.
52. Ale, bikor.
54. *Informea*, seksu-portaerari buruz.
55. Txurrit egin.
56. Mihiarraina.
58. Ahots.

Abonamendu Txartela

Izena

Lanbidea

Adina

Tfinoa:

Helbidea

Herria

Probintzia

Aurrezki kutxa
edo Bankua

Sukurtsala

Kontu edo libretaren
zenbakia

Urtean 1500 ptz.

ANAITASUNA

Zabalbide 68
Posta-Kutxa 495
Bilbo-6. Tfinoa.:
(94) 411 66 20

anaitasuna

hilerro informazioa euskaraz

ZABALBIDE, 68
BILBO-6

